

goiena

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA



2011-07-08
EGUBAKOITZA
472. ZENBAKIA
11. URTEA
DOANEKOA
GOIENA.NET
TOKIKOM

Velascok Tour laburra izan du

Jausi eta lepauztaia
hautsi zuen atzo | 28



Arrasatearra, lurrean. | ROBERTO BETTINI

Kukai taldeak 'Karrikan' ikuskizuna
egingo du gaur Arrasaten | 31



Bergaran nagusiekin aritzeko
auzolandegia antolatu dute | 16



Mikel Aristi txirrindulari bergararra
Europako txapelketan izango da | 29

HASI DIRA INDUSKETAK LEZETXIKIN

Udarekin batera, hasi dira Arrasateko Lezetxiki koban indusketa lanak; 20 ikaslek dihardute, tartean lau debagoiendarrek. Alvaro Arrizabalagaren gidaritzapean aztarna bila jardungo dute hilaren 13ra arte. | 4

Aitor Juaristi eta Amaia Agirre
arrasatearrak (aurrean),
Martin Arriolabengoa
aramaioarra eta David Cano
oñatiarra, Lezetxiki koban.

ANDER MONEDERO

SINADURAK

	ESTEPAN PLAZAOLA 6
	6 USDO AGIRRE
	JOSU ELORTZA 16
	24 MARIJO PAGALDAY
	IDOIA ETXEBERRIA 40

ASTEKO GAIA 2 | DEBAGOIENA 4 | IRITZIA 6
ELKARRIZKETA 8 | HERRIAK 11 | KIROLA 28
KULTURA 31 | ZURE IRAGARKIAK 35
ZERBITZUAK 36 | ESKELAK 36
EZKONTZAK 37 | NON-ZER 38

Urteko langabe kopuru txikiena egon da ekainean: 2.984



Arrasate eta Bergara
dira tasa handiena
dutenak | 5

Umeen Eguna ospatuko dute bihar, lehen aldiz Leintz Gatzagan

Herritik kanpoko
familiendako ere
zabalik dago | 27

goienakluba[™]
Abantailaz betetako kluba!

ORAINDIK ...

EZ DUZULA?

goienakluba[™] 2011

Tel.: 943 25 05 05 | e-posta: kluba@goiena.com | www.goienakluba.com | Urteko kuota: 48 €.

ALZHEIMER GAIXOA ETA FAMILIA HERRITAR GUZTION ZAIN DAUDE

- ▶ Alzheimerraren ikerketaren nazioarteko urtea dugu
- ▶ Luzaroago bizi garenez, geroz eta kasu gehiago daude
- ▶ Jendarte osoaren laguntza behar dute afektatuek



Emakume edadetu bat, gelako leihotik begira. | LEIRE KORTABARRIA

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

"Apurka-apurka zelan joaten doan ikustea eta ezer egin ahal izatea": Alzheimer gaixotasunak eragiten duena laburtzen dute Arrasateko gaixo baten senideen hitzek.

Burmuina eta, horrekin batera, ezagupen-funtzioak –memoria, hizkuntza, orientazioa, ekiteko ahalmena– pixkana-pixkana hondatzen dituen gaixotasun beldurgarria da Alzheimerra. Hondamen horiek batera, pertsonalitatea eta portaera zeharo aldatzen zaizkio gaixoari. Gaitzaren eragin

ezagunena da gaixoak bere oroitzenak galtzen dituela, berri-eraketa hasita; azkenean, bere gertukoena ez ezitu ezagutzen, eta eguneroko gauza arruntak egiteko gauza ere ez da izango. Txagorritxu Ospitalean diharduen Luis Galdos neurologo oñatiarrak esaten duenez, "azkenean, norbere kontzientzia galtzen dute, ibili ezinik gelditu arte, aurretik infekzio baten ondorioz hiltzen ez badira". Gaixotasuna agertzen denetik gaixoa guztiz mendeko den arte "5 eta 20 urteko epea"

pasatzen da, gehienetan, baina zenbat eta goiztiarrago izan, orduan eta azkarrago zabalduko da gaixotasuna.

Gaixotasun neurologiko hori 1906an identifikatu zen, baina 105 urte ez dira nahikoak izan sendabidea topatzeko. Hori bereziki bultzatu nahian, Osasunerako Mundu Erakundeak eta Nazioarteko Alzheimer Fundazioak gaixotasun hori ikertzeko nazioarteko urtea izendatu dute 2011. Eta arrazoiak soberan daude: zahartzaroko gaixotasuna denez, bizi-itxaropena handitzen doan neurrian, kasu kopurua ere handitzen joango da: Hego Euskal Herrian eta Espainian, 650.000 bat gaixo daude; 65 urtetik gorakoek %6ek izaten dute Alzheimerra, eta 2020rako, gaur egungo bi halako gaixo izango dira.

"Bizitza aldatzen zaizu"

Alzheimerrak ez dio bakarrik gaixoari eragiten; oso modu zuzenean eragiten dio haren familari ere. Batez beste lau kide zenbatuta familia bakoitzeko, Alzheimerrak bi milioi laguni baino gehiagori eragiten die Hego Euskal Herrian eta Espainian. Alzheimerra familia osoaren eta jendarte osoaren erronka da.

Hortik sortu dira gaixoen familien elkarteak. Gipuzkoan Afagi sortu zen orain 20 urte. Bertako presidentek, Koldo Aulestiak, esaten digunez, "familia osoari bizitza aldatzen zaio", eta laguntza behar izaten da: "Arreta psiko-sozial zerbitzua da guretako garrantzitsuena eta familiek gehien eskatzen dutena. Gaixoaren senideek egoera eta erabaki zailak izango dituzte, eta horiek baloratzen laguntzeko eta behar duten babesa emateko profesional batzuk ditugu Afagin". Aulestiak esperientziaz daki premia horren berri, bera ere afektatua delako. Eta

"Nahi beste deitu dezakete laguntza eske"

Gipuzkoako Alzheimer gaixoen senideen elkarteak, Afagik, taldea dauka Arrasate ere. Arrasate Pasealekuko 3. zenbakian dute egoitza eta eguazten arratsaldeetan batzen dira.

Afagik Donostian ematen ditu zerbitzu gehienak, baina batzuk Debagoienan ere lor daitezke. Tartean, arreta psiko-soziala. Hori jasotzeko, hitzordua egin behar da Afagiren Donostiako egoitzara deituta (943 29 71 18), eta profesional batek zerbitzu hori emango du. "Nahi beste alditan deitu daiteke, nahi beste elkarrizketa izateko", esaten du Afagiko presidentek, Koldo Aulestiak.

Zaintzaile zuzenendako hiru eguneko ikastaroak ere ematen ditu Afagik, 8 edo 9 laguneko taldeetan.

bere esanetan, "babes mota hori ez da beste inon aurkitzen, elkarrean ez bada".

Erabaki zailak, dilema handiak izango dituzte: gaixoa etxean bakarrik uzterakoan, atea giltzaz itxi? Eta etxean zerbait gertatzen bada? Bestalde, gaixoa etxean izan edo erresidentziara eraman? Eta han gustura ez bada sentitzen...?

Donostian hitzordua

Gaztaroa eta ustezko perfekzioa gorai patzen dituen gaur egungo jendarteak "bizkarra ematen" dio Alzheimerrari eta, oro har, demen-tziari, Koldo Aulestiak dioenez: "Eta gogoratu behar dugu edozeinek izan dezakeela, eta normal hartu behar dugu. Kontzientzia piztu nahi dugu, baina kontzientzia ez da pena, konplizitatea baizik. Horregatik, aurten lehenengo aldiz kalera irtengo dugu Afagikook, eta irailean martxa solidarioa egingo dugu Donostian Alzheimer gaixook eta zaintzaileok".

Horrez gain, datorren urtean, urrian, Donostian izango da Espainiako Alzheimerraren Kongresua, eta han batuko dira Hego Euskal Herriko eta Espainiako familien elkarteak, boluntarioak, erakundeak... Aukera polita izango dugu Gipuzkoan gaixotasun horren kontzientzia handitzeko.

Laguntzak ez dira nahikoak

Babes psikologikoaz gain, laguntza materiala behar izaten dute



MGEP
MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOAK
www.mondragon.edu/gep


Oñati gestio heziketa
www.mondragon.edu/enpresagintza

GOI-MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK 2011-2012

Matrikulazioa
Uztailaren 4tik aurrera

MGEP	OÑATI Gestio Heziketa
<ul style="list-style-type: none"> • Sistema Elektroteknikoak eta Automatizatuak • Erregulazio eta Kontrol Sistema Automatikoak. • Sareko Informatika Sistemen Administrazioa. • Fabrikazio Mekanikoko Diseinua. • Fabrikazio Mekanikoko Produktzioaren Programazioa • Industri Ekipoaren Mantenimendua. 	<ul style="list-style-type: none"> • Administrazioa eta Finantzak • Idazkaritza • Merkataritza, Kudeaketa eta Marketing-a
Kontsulta pertsonalak:	
943 71 21 91 E-posta: aarriaran@eps.mondragon.edu	943 71 80 09 E-posta: enpresagintza@enpresagintza.mondragon.edu





LUIS GALDOS

LUIS GALDOS
NEUROLOGOA

"Gehiago inbertitu behar da arazo sozio-ekonomikoei aurre egiteko"

Txagorritxun Debagoieneko Alzheimer gaixo asko hartzen ditu Luis Galdos oñatiarrak. **Zuk esana da eskolaratu bako jendeak arrisku handiagoa duela. Zergatik?** Burmuina dinamikoa da, eta jaiotzen garenetik bere potentzialtasun guztiak aktibatzen egin behar dira. Eskolaratze prozesua kritikoa da horretan.

Hipertentsioa, diabetesa, bihotzeko gertakariak... ere faktore bat izan daitezke.

65 urtetik gorako Alzheimer gaixoen faktore horiek proportzio handiagoan dituzte gaixotasuna ez dutenen aldean. Aldaketa baskularrek gehitu egiten dute Alzheimerera eragiten duten bi proteina.

Azken urteetan kasu gehiago ikusten dituzu?

Bai; alde batetik, bizi-iraupena handitzen doan heinean, kasu gehiago izango dira; eta bestetik, gizarteak gaixotasuna hobeto ezagutzen duenez, kontsultak ere handitzen doaz.

Zeintzuk dira orain ditugun hutsune handienak?

Zientzian, tratamendu eraginkorrak lortzea, eta ikuspuntu sozio-ekonomikotik, gehiago inbertitzea Alzheimerrek sortzen dituen arazo sozio-ekonomikoei aurre egiteko.

Badago arriskua txikitzeko modurik?

Bizitzaren lehenengo urteetan, eskolaratze unibertsala bermatu behar da, eta gero, arrisku faktore baskularrak kontrolatu. Eta, nola ez, ariketa fisikoak eta kognitiboak egin.

Ikerketen alde, eman zure oroitzapena

Aurkikuntza iraultzailearen baten ezean, 100 milioi lagun baino gehiago oroitzapen barik geratuko dira 2050. urterako. Eta Alzheimerren gaineko ikerketaren urtean gaudela aprobetxatuta, oroitzapenen Interneteko biltegi erraldoia osatzeko ekimena abiatu dute Reina Sofia Fundazioak eta Espainiako Gobernuak. Helbidea hau da: www.bancoderecuerdos.es.

Edozeinek parte har dezake bi modutara: norberak bere oroitzapena emanda –idatziz, argazkiz edo bideoz–, doan; edo oroitzapen bat diruz lagunduta, 1,20 eurotik hasi gura beste diru emanda. Norberak ematen duen diru hori Alzheimerri ikertzen laguntzeko erabiliko da.

egon behar dira. Afagiko presidentek dioenez, "gaixoak ez dira umeak, eta ez ditugu horrela tratatu behar. Umeek gero eta gehiago dakite, eta Alzheimer gaixoak, aldiz, dakitena galtzen doaz. Hori ikustea izaten da senideendako gogorrena".

Arrasateko gaixo baten senide eta zaintzailearen hitzek kezka hori adierazten dute: "Ailegatu da egun bat non ez nauen ezagutuko. Momentu horretaz pentsatzen larritzen gara, baina gehiago larritu beharko gintuzke beste honek: noiz ez dugu guk bera ezagutuko?"

Baina beste hau ere esan behar da: memoria emozionala, bihotza, beste modu batera esanda, inoiz ez da galtzen. Luis Galdos neurologo oñatiarrak honela dio: "Gaixotasunaren hedapenak uzten ditu burmuinean kaltetu bako alde erreserbatu batzuk, noizbehinka estimulatu daitezkeenak, batez ere, afektuen eta sentimenduen bidez". Badirudi, hortaz, beste behin, sentimenduak direla hainbeste maite dugun aitaita, amama, aita edo ama horrenganako lotura inoiz ez galtzeko bidea.

ESANAK

"Dementziei bizkarra ematen zaie, baina edozeini gerta dakiguke"

"Kalitatezko zerbitzua behar dute gaixoak eta bere zaintzaileak"

KOLDO AULESTIA | SENIDEA

familiek. Alde horretatik, Afagiko presidentek esaten duen moduan, "laguntza ekonomiko aldetik aurrerapauso handiak eman dira, baina baloratu behar dugu diru horrekin ze motatako zerbitzua ari garen ematen, bai erakunde eta erresidentzietan, bai etxean. Bizi-kalitatea behar dute gaixoak eta zaintzaileak". Izan ere, Alzheimer gaixoak zaintzaile zuzenaren figura sortzen du eta behar du; biak batera doaz beti. Luis Galdos neurologoaren esanetan, "normalean zaintzailea emakumea izaten da, emazte, alaba, erraina, arreba edo iloba moduan".

Laguntza aldetik ere hutsuneak ikusten ditu neurologoak: "Ez dago behar guztiei aurre egi-

teko moduko laguntzak, orain jasaten ari garen politika neoliberal ez baita egokiena laguntza sozialak lortzeko". Bestalde, "persona baten mendekotasuna oso garesti irteten zaio zaintzaileari, bere lanpostua sakrifikatu arte-raino batzuetan, zerbitzu sozialek eskaintzen dituzten laguntzak nahikoak izaten ez direlako, eta psikologikoki erronka ikaragarria da, askotan seme-alabak oraindik etxean dituztelako eta ardura bikoitz hori ondo eramatea, adostea, batzuetan ia ezinezkoa gertatzen zaie".

Bihotza da zubia

Senideak, bereziki gaixoarenganako gertuen dagoen pertsonak, egoera zailak bizi izateko gertu-

Finantzaketa kuota personalizatuak



SIMS

SERVIMASA

Sukaldeko altzariak eta osagarriak

Aitziturri 4, Posta-kutxa 173
Tel.: 943 76 19 95 Faxa: 943 76 07 49
20570 BERGARA

103 Industria poligonoa
Tel.: 943 52 05 00 Faxa: 943 51 57 57
20100 LEZO

Lau debagoiendar dabilta Lezetxikiko indusketetan

Udaro bezala, dagoeneko hasi dira Arrasateko koba indusketzen

MIREIA BIKUÑA | ARRASATE

Azken 16 urteotan moduan hutsik egin gabe, hasi dituzte indusketak Lezetxikin. Ekainaren 23an hasi zituzten eta hilaren 13ra arte egongo dira lanean, Euskal Herriko Unibertsitateko irakasle Alvaro Arrizabalaga oñatiarrarekin. Guztira, 20 bat ikaslek dihardute, tartean lau debagoiendarrek: Amaia Agirre eta Aitor Juaristi arrasatearrek, David Cano oñatiarrak eta Martin Arriolabengoa aramaiorrek. Kanpotik etorritako ikasleak ere badaude: Salamancatik, Madrildik... Guztiendako "oso inportantea" da halako indusketa baten lan egitea. "Lezetxikik ospe handia dauka, eta luxua da hemen egotea. Curriculumerako oso inportantea da, eta hezurak topatzea oso motibagarria", esan digu Ortuelako Lorea Burzakok.

Bederatzi orduko lan jarduna

Jarduna 09:00etan hasten dute egunero. Materiala haitzuloaren sarreran dute. Hara heldu orduko, bikoteka banatu eta lanean hasten dira. "Urtero ikasle berriak etortzen dira, baina baita aurretik esperientzia dutenak. Saiatzen gara talde orekatua egiten. Lan egiteko bikoteka ipintzen ditugu: bat berria eta bestea esperientziaduna. Elkarrekin egiten dute lan metro koadro baten", kontatu digu Alvaro Arrizabalagak. Hori da Lezetxikiko "protokoloa".

Bazkaltzeko ordu bete hartzen dute, eta 17:30era arte lanean jarraitzen dute. Ondoren, materiala batu eta etxera. Guztira, bederatzi orduko lan jarduna. Normalean belauniko edo leku estu baten eserita. "Indusketak egiteko jarrera deserosoak erabiltzen ditugu, eta gorputzarekin minduta bukatzen dugu. Batez ere, eskuetako artikulazioak mintzen zaizkigu. Baina hau arkeologia da, eta badakigu zer dakarren. Lan gogorra da, baina gustura egiten den horietara



Lezetxikin diharduten ikasleak, indusketa lanak egiten. | MIREIA BIKUÑA

ESANAK

"Sabaitik eroritako harriak topatu ditugu orain arte"

"Ikasleak Abadiñoako Balinkobara ere joaten dira"

ALVARO ARRIZABALAGA | ARKEOLOGOA

koa", dio Amaia Agirre arrasatearrek.

Maila zaharragoetan lanean

Ekainaren 23a ezker dihardute lanean, eta oraingoz ez dute ezer aipagarrik topatu. Lanean diharduten mailan ez ei dago material arkeologiko aipagarrik. "Azken lau urteotan Barandiaranek ukitu bako mailatan egin dugu lan, eta material asko batu dugu. Bada, oraingo maila ez omen da horren aberatsa. Sabaitik eroritako harriak topatu ditugu eta hezur batzuk ere bai", esan digu Arrizabalagak.

Dena den, maila horren azpian oraindik material arkeologikoa egon badagoela dio. Zenbat denborarako lana dagoen galdetuta, zera esan digu: "Ez dakigu. Guk,

behintzat, beheko haitzarekin topo egin arte lanean jarraituko dugu", diote.

Oraingoz gida erabili dute indusketak egiteko. Dena den, heldu dira Barandiaranek ukitu ez zituen mailalara. Horietan dihardute lanean. "Hemendik aurrera dauden mailak geroz eta zaharragoak dira. Euskal Herrian erabat ezezagunak diren faseak dira. Lanean jarraituko dugu", esan digute.

Indusketak egiten segi arren, ez dakite zer topatu ahal izango duten: "Maila horietan ez dakigu zer egon daitekeen. Hori da arkeologiak duen mirari txikia".

Maila zaharragoetan lanean

Oraingoz topatu dutenaren errepaso ere egin digute: hartz espe-

AMAIA AGIRRE
ARRASATEARRA



"Arkeologia ikasketak egiten nabil Bartzelonan, eta praktikak egitera etorri naiz Lezetxikira. Pozik nago, curriculumerako eta esperientzia hartzeko leku aproposa da. Lan polita da, baina gogorra".

DAVID CANO
OÑATIARRA



"Historia ikasketak egiten nabil Gasteizen, eta arkeologia gustuko dudalako etorri naiz. Gogorrena goizeko lehen orduak izaten dira. Gorputza gogortuta izaten dugu, eta belauniko egonda...".

LOREA BURZAKO
ORTUELLARRA



"Hirugarren urtea da Lezetxikin nagoela, eta oso gustura, gainera. Jarrera deserosoan egoten gara bederatzi ordu, eta batez ere eskuetako artikulazioak mintzen zaizkigu".

zie zehatz bateko hezurdura asko, beste animalia batzuen hezurra eta harrizko tresnak. Material asko batu dute. "Barandiaranek topatutakoarekin alderatuta gaur asko batu ditugu. Hark zazpi garren mailan ateratako kopurua bikoiztu egiten dugu ekinaldi bakoitzean", dio.

Maila zaharragoetan lanean

Lezetxikin praktiketan dauden ikasleek badute aukera Abadiñoako Balinkoban indusketak egiteko. "Helburua da eurek eskarmentua hartzea, esperientzia hartzea. Horretarako, ezinbestekoa da leku ezberdinetan indusketak egitea, eta kasuistika ezberdinekin topo egitea. Egunero taldetxo bat Abadiñora joaten da", esan digute.

Lehen aztarnak Murugainen

Astlehenean hasi zituzten Murugainen indusketak, eta dagoeneko topatu dituzte lehen aztarnak: Burdin Aroko herrikka bateko harresiaren eta Espainiako gerrako trintxera baten aztarnak. Gainera, hainbat bala-zorro ere topatu dituzte, baina ez dute oraindik zehaztu ze garaitakoak diren.

Basarri Barri (ABB) proiektuaren barruan sartuta dagoen Murugaingo indusketa proiektuan hilaren 29ra arte jardungo dute lanean, Aramaion.



Indusketa lanak Murugainen. | ANDER MONEDERO

Pamiela argitaletxeak, Kulturaren aldeko Euskal Fundazioaren babesarekin

JUAN ZELAIA
XI. Saiakera saria


antolatzen du, euskaraz idatzitako edozein gairi buruzko saiakerak edota iritzi lanak zabaldu eta sustatzeko asmoz.

Saria: 9.000 €

Lanak bidaltzeko: Pamiela etxea (Juan Zelaia Saria), Agustindarren industrialdea-Soltxate. G. kalea-31013 IRUÑEA.

Irailaren 30a arte

Tel.: 948 32 65 35
soltxate@pamiela.com
Arauk: www.pamiela.com



2011

Urtean lehen aldiz, 3.000 langabe baino gutxiago gure ibarrean

Azken datuen arabera, 2.984 langabe ekainean Debagoiengan

EDU MENDIBIL | ARRASATE

INEMeko azken datuen arabera, 2.984 langabe ziren gure ibarrean amaitu berri den ekainean. Urteko daturik onenak dira aurreko hilabetekoak. Izan ere, urtean lehen aldiz, 3.000 baino langabe gutxiago zenbatu dituzte. Beti ere hortik gorako zenbakiak izan dira urtariletik hona. Gipuzkoako tendentziari jarraituta, egoera hobetzeko bidean dela dirudi. 1996. urteko ekainetik, langabeziak beherakadarik handiena izan du aurtun Gipuzkoan: 1.363 langabe gutxiago daude. Hori baina aurreko hilabetearekin alderatutako datuak dira. Oraindik ere datuek negatiboak izaten jarraitzen dute: Gipuzkoan, esaterako, izako ekainean baino 3.660 langabe dira gaur eta Euskal Autonomi Erkidegoari dagokionez, 2010ean baino 18.049 langabe zenbatu dituzte. Maiatzarekin alderatuta, Gipuzkoan 2.105 kontratazio gehiago izan dira ekainean.

Euskal Autonomi Erkidegoan, Bizkaian 81.098 lagun dira lan barik (2.231 langabe gutxiago maiatzarekin alderatuta), Araban 21.842 (339 gutxiago) eta Gipuzkoan 41.474, esan bezala 1.363 langabe gutxiago.

Apirilean okerren

Urteak emandako datuei erreparaturaz gero, langabezia tasarik handiena Debagoiengan apirilean izan genuen (3.175 langabe). Martxoan apirilean baino bi langabe baino gutxiago zenbatu zituzten

HERRIZ HERRI		
HERRIA	LANGABEAK	EHUNEKOA
Antzuola	84	%9,23
Aretxabaleta	291	%9,02
Arrasate	1.246	%10,77
Bergara	768	%10,70
Elgeta	36	%7,32
Eskoriatza	193	%9,28
Leintz Gatzaga	5	%3,76
Oñati	361	%6,68
GUZTIRA	2.984	%9,63

ITURRIA: ESPAINIAKO ENPLEGU ZERBITZU PUBLIKOA

DATUA	
2.984	LANGABE
Gaur egun 2.984 daude langabe gure ibarrean. Herriak, Arrasate da daturik ezkorrenak erakusten dituenak.	

Debagoieneko herrietan. Beti ere, INEMeko kopuruetan ez dute Aramaio kontabilizatzen, Arabaren barruan kokatzen baitira Aramaio langileen datuak. Gauzak horrela, ekaineko datuak

oinarri hartuta, %9,63koa da langabezia tasa gure ibarrean. Edozein modutan, herri guztietan dago langabe gutxiago.

Espainiako Enplegu Zerbitzu Publikoaren datuetan ikus daitekeenez, langabezia tasarik altuena Arrasaterena da gaur: %10,77 eta 1.246 langabe gutxira; Bergara oso hurbil dago, %10,70 portzentajearekin eta 768 langaberekin. %9aren bueltan kokatzen dira Antzuola, Aretxabaleta eta Eskoriatza eta daturik onenak Elgetak (%7,32, 36 langabe), Oñatik (%6,68 eta 361 langabe) eta Leintz Gatzagak dituzte. Azken honetan 240 lagun bizi dira eta datuen arabera bost lagun daude langabezian gaur.

Orain dela hamar urteko errolda

Aipatutako datu horiek guztiak 2001eko erroldan oinarritutakoak dira. Datu horien arabera, 62.010 lagun bizi dira Debagoiengan. Kopuru horretan ez da Aramaio kontabilizatzen, Arabaren barruan kokatzen baitira Aramaio langileen datuak.

Orain dela hamar urteko erroldaren arabera, honela banatzen da Debagoieneko biztanleria ibarreko herrietan, biztanle gehien dituen herrietik hasita: Arrasate, 23.118 lagun; Bergara, 14.965; Oñati, 10.705; Aretxabaleta, 6.184; Eskoriatzak 3.925 biztanle dauka; Antzuolak 1.899; Elgetak 974; eta, azkenik, Leintz-Gatzagan 240 lagun bizi dira azken erroldaren arabera.

Amaia Diaz de Monasterioguren | Dietista

"Gure sukaldaritzaren onurak zabaltzen saiatu gara Sergio Perez sukaldari madrildarra eta biok"

Basque Culinary Centerren bitartez, mundu zabalean ibili da azken hilabeteotan

OIHANA ELORTZA/E.M. | ARRASATE

Cervantes Institutuarekin lanikidetzan, Basque Culinary Centerrek elikadura osasungarriaren gaineko tailerra jarri du abian munduan zehar. Bertan parte hartzen ari da Amaia Diaz de Monasterioguren dietista oñatiarra.

Zientzia, sukaldaritza eta dieta, hirurak batu izan dituzue aipatutako tailerretan, ala?

Bai, martxoan hasi ginen ekimen honekin eta azarora arte iraungo du. Elikadura mediterraneoren onurak zabaltzea, gure sukaldaritza ezagutzera ematea eta zientziaren ikuspegitik jakiak aztertzea izan da helburu nagusia. Zientzia eta osasuna uztartuz, janariaren onurak azpimarratzen saiatu gara. Azken baten, kimikoei eta zientzialariek badihardute ikertzen eta gure lana nolabait hori erakustea izan da. Edozein modutan, azarora amaituko den arren, nire lana amaitu da dagoeneko.

Nagusiki gazteei zuzendutako ekimena izan da.

Bai, baina adin guztietako jendea izan dugu. Palermon, esaterako, gaztetxoak ziren nagusi baina Nueva Delhin medikuak, sukaldariak eta bestelako profesionalak izan genituen. Tangerren, Chicagon edota Rio de Janeiron ere izan gara (15 hiri dira guztira egitasmoan) eta



Amaia Diaz de Monasterioguren.

esperientzia aberasgarria izan da. Gure errezetak zabaltzeko ahaleginetan, erosketak tokian tokiko merkatuan erosten genituen eta aurretik zehaztuta geneuzkan sei errezeta toki bakoitzeko produktuekin (legatzaren orde besterain bat adibidez) eta hango ohituretara egokituta prestatzen genituen.

Zein izan da zure egitekoa?

Sergio Perez Madrilgo sukaldariarekin ibili naiz eta niri *deabru* papera egitea tokatu zait... Badakizue, dietistari mugak jartzea eta zorrotzagoa izatea dagokio, eta sukaldariak berriz gozamen hutsa aldarrikatzen dute. Joko polita sortzen zen bion artean hitzaldietan. Erakutsi baino, asko ikasi dut han eta hemen. Aberasgarria izan da oso.



Martitzen arratsaldean Arrasaten egindako elkarretartzeko irudi bat. | AMAIA TXINTXURRETA

Charo Romanen hilketak salatzen elkarretartzeko egin zuten Arrasaten

E.M. | ARRASATE

Emakumeei erasorik ez! lelopean, 30 bat lagunek elkarretartzeko egin zuten martitzenean Arrasateko Plazan. Arrasateko Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Plataformak deitu zuen elkarretartzeko, Charo Roman hernaniarraren hilketak salatzen. Jakingo duzue, domekan hil

zuten Charo Roman Hernanin, eta epaileak kartzelara bidali du haren bikotekide ohia, hura hiltzea leporatuta. Goizaldean egin zion ustez eraso gizonak emakumeari, labankadaka, eta Charo Romanen alaba ere zaurituta dago. Ustezko erasotzailea, 42 urtekoa, espetxeratu egin du auzia daraman epaileak.

ASCENSORES
HEMEN

Igogailuaren mantentze-lanak oso garesti ordaintzeaz gogaituta?

AURREKONTUA
2 EGUNETAN

Informa zaitez:

Tel.: 943 04 40 01

debagoiena@ascensoreshemen.com

www.ascensoreshemen.com

Deitu!



943 04 40 01

Zure aurrekontua

115 €-tik
aurrera.



ZABALIK

ESTEPAN PLAZAOLA
'http://goiena.net/iritzia/'



Udalekuak

H amasei urte bete berritan joan nintzen begirale Euskal Udalekuetara Antzinera, Lizarratik gertu dagoen herri txiki batera. Han 5 urte egin ondoren, Urdirotzera joan ginen, Agoitz eta Auritz artean, Itoizko urtegitik gertu, dagoen herri huts batera. Han beste 20 urte inguru: lehenengoak, begirale; hurrengoak, sukaldian laguntzen edo mantenu lanetan.

Gaur egun bada udalekuetan non aukeratu: bertso udalekuak, kirol udalekuak, udaleku musikalak, zientzia udalekuak, udaleku teknologikoak, multiabenturazko kanpamenduak... Garai hartan ez zegoen halako ugaritasunik, baina orduan ere baziren luxuzko instalazio-eskaintza zutenak: bi frontoi, futbol zelai "reglamentarioa", igerilekuak... Ez zegoen gurean halakorik: belauetarainoko ura zekarren erreka zen gure igeri- eta dutxa-leku ohikoena; papar parerainoko sako-nera zuen putzu bat genuen "pizina olinpiko", etxe aurrean zegoen zelai txiki bat futbol zelai eta urruntoagoko beste bat "beisbol-zelai"; etxean argia eguneko ordu jakin batzuetan izaten genuen eta ura ere ez beti nahi adina. 100-110 lagun inguru 15-18 egunez baserri zahar birmoldatuen. Bertan bizi izan nituen nire bizitzako oporrak diren onenak. Han ezagutu nuen egun euskal kultur munduan ezaguna den hainbat jende, han ezagutu nituen bizi guztirako lagun ditudan hainbat, han ezagutu nuen... Bergarara ekarri ninduen neska.

Jolasa, sormena, harremana, lagun-giroa... genuen, besterik barik, eguneko jardunaren ardatz. Gauetan... goian zeru izarratua eta behean sua: kantua eta kontua, jaia eta dantza. Oraindik badira gisa horretara jarraitzen duten udalekuak: Euskal Udalekuek Goñi, Abaigar eta Bernedon jarraitzen dute; bailarako euskara elkarteek ere antolatzen dituzte eta beste elkarte asko dira ildo berari jarraitzen diotenak. Sofistikazio eta baliabide handiagokoen artean antolakuntza xumeagoak sona galtzen ari diren honetan horien balioa errebindikatu nahi nuke. Izan ere, Tapia eta Leturiak dioten bezala: *Ongi dibertitzeko... aski dira bi esku, eta hiru peza...*

USTEAK USTE

USOA AGIRRE | 'uagirre@goiena.com'

Zorionak, Aitor!

A sko poztu ninduen joan den astean jakin nuenean Aitor Mendizabal pilotari antzuolarra ASPE enpresa profesionalak fitxatu zuela hiru urterako. Afizionatu mailan hainbeste txapelketa irabazi eta hain maila handia eman ostean, merezitako saria izan du Aitor txiki-k. Eta Aitor ez ezik, zoriontzekoa da Olalde kirol elkarte ere, ez du-eta edozein kirol elkarte profesional izango den pilotari bat hezteko aukera izaten. Profesionalarako pausoa handia izango da Aitorrentzat, baina Olaldekoek orain arte moduan lanean jarraitzeko bultzada ere bada. Zorionak, Aitorri eta pilotaren inguruan Antzuolan lanean ari zareten guztioi!

MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA | 'http://goiena.net/iritzia/'



HANDIK ETA HEMENDIK

Porruko salda

Luis Aranberri Mendizabal
http://eibar.org/blogak/amatino/

Egunen batean norbaitek "porruko salda" esango du eta inork ez du erreakzionatuko. Bai, adituek -Altube eta Azkue aipatuz- gogoraziko dute forma hori ez dela jatorra eta hiztegiek azpimarratuko, berriz, Euskaltzaindiak "porru-salda" hobesten duela, baina ezer gutxi gehiago.

Jose Antonio Arana Martijaren heriotza zela-eta, zera irakurri ahal izan genuen Gernikako euskaltzainaz: "Euskaltzaindiaren liburutegiko sortzailea". Euskaltzaindiaren liburutegian, antza denez, arasez, liburuez eta agiri zaharrez gainera garbitzaileak, idazkariak, artxibatzaileak eta sortzaileak daude eta azken hauetako bat Jose Antonio Arana Martija genuen.

Nik uste nuen, ordea, Euskaltzaindiak liburutegiren bat duen bezala, liburutegiak berak ere sortzailearen bat izan zuela eta, hain zuzen ere, Jose Antonio bera izan zela Euskaltzaindiaren liburutegiaren sortzailea.

Jaso dut "Agrupación de Sociedades Laborales de Euskadi" (ASLE) delakoak hilero argitaratu ohi duen aldizkaria, *Euskadiko Elkarte Laboral Taldeako Aldizkaria* alegia.

Logikarik ez zaio falta. Erakundearen izen ofiziala "Elkarte Laboral Taldea" baldin bada, aldizkaria "Taldeakoa" izan behar. Zergatik ez?

Bai, badakit begiko, belarriko eta ipurdiko mina ere ematen duela, baina tristeena da jakitea -a artikulua kenduz gero (taldeko) gehien-gehienok konpondutzat joko genukeela hanka-sartze hori, -a artikulua dagoen dagoenean utzi eta dagokion -ren atzizkia jarri beharrean: taldearen aldizkaria, alegia.

Honezkero irakurleren bat hasia izango dugu Euskadiko Elkarte Laboral Taldearen euskal mailarik eza sumatzen, baina euskal irratiko publikoak urteak daramatza "Euskadi Irratiko albisteak" edo "Euskadi Irratiko informazio-zerbitzuak" iragartzen eta inork ez du okerririk salatu.

"Euskadi Irratiako albisteak" esateari ekin

beharko ote lioke behingoz hanka-sartzeaz jabetu gintezan?

Gainera, ez da gramatika-kontua soilik. SER Irratiak "los informativos de la SER" iragartzen dituenen, harrokeria-puntuak sumatu ohi zaio, "bere" albistegiak merkatuko onenak edo berezienak direla adierazi nahirik ari baitzaigu, eta ez Bilbotik edo Bartzelonatik egiten diharduela azpimarratu gurarik.

Euskadi Irratiko Informazio Zerbitzuak ematen zaizkigunean, aldiz, gure irratiko publikoak ez da eskaintzen ari zaigun ekoizpenaz harrotzen, barruan dituen tramankuluak edo giza-baliabideak azpimarratzen baino.

Euskadi Irratiak ez du albistegirik.

Euskadi Irratiko albistegiak daude.

Edozein euskaldunek daki zein den *gobernetu-bozeramaile* eta *gobernetuaren bozeramailearen* arteko aldea.

Ez dakit ordea *gobernetu bozeramaile* zer arraio den asmatuko ote genukeen erdaraz ez bagenek.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiboa Elkarte
E05 Basabe Poligonoa,
20550 ARETXABALETA

Lehendakaria Estepan Plazaola

Zuzendari nagusia Inazio Arregi

Zuzendari Eneko Azkarate

Erredaktore burua Monika Belastegi

Sailtako arduradunak Xabi Urtzelai

(Kirola), Iñaki Iturbe (Disenaua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

Maketazioa Iñaki Iturbe, Imanol Soriano, Kepa Martelo.

Publizitatea Mireia Larrañaga,

Amelia Mundifano, Zortza Martin,

Itsaso Berezibar, Imanol Elortza.

Testuen zuzenketa Sergio Azkarate

Harpidetza eta banaketa Maria Leturia

Administrazioa Agurtzane Gaintzarain,

Ane Berezibar, Iratxe Bengoa.

EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPEREA

ARRASATE 20500:

Udalora Lizenziaduna 31 | 132 posta-kutxa

Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00

arrasate@goiena.com

ORDEZKARITZA

ARETXABALETA 20550: Durana 11

Tel.: 943 79 86 21 | Faxa: 943 77 18 54

aretxabaleta@goiena.com

Publizitatea Aretxabaleta 20550

E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05

Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com

Harpidetza Aretxabaleta 20550

E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 08 10 50

harpidetza@goiena.com

Lege Gordailua: NA-3329/2000

ISSN: 2174-369X


Tirada: 20.100 ale.

Difusioa: 19.951 ale.

OJD erakundeak ikuskatutako astekaria.



Eusko Jaurilaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

GUTUNAK

Maitale
maitagarria

Iñaki San Miguel
Aretxabaleta

Euskara emakume bat da. Berarekin hainbeste denbora konpartitu eta gero, momentua da ozenki esateko: "Bai, nahi dut".

Orain arte, harreman gorabeheratsua izan da, konpromiso handirik gabekoa.

Denetik eduki dugu: ulertezintasuna, inkomunikazioa, erruak, haserreak... baina momentu oso onak, hitz politak, musuak eta bertsoak ere bai.

Gasteiztik nator **HABE** azterketa egitetik.

Hala eta guztiz ere, maitasunak paperez ez du ulertzen eta geuk baino ezin dugu geure burua epaitu.

Geuk bakarrik baino ez dakigu batek bestearenganako sentitzen duguna.

Nire Euskara emakume izenez josita dago eta emakume horietako bakoitzak, bere moduz, aberastu nau: Agurtzanerekin

agurra egin nion.

Jasonerekin jaso nuen "lekukoa".

Gurutze batekin euskaltegiko "kalbarioa" hasi zen.

Loreak euskaldunaren usainak erakutsi zizkidan.

Eliarekin supazter-txokoa. Kar-kar Karmelarekin.

Miren Birginiaren ontasunari, amen.

Beñatekin euskalkiaren deabrua esnatu zen.

Marisol, bidea delako garrantzitsuen.

Lola, Rosi...elkarrekin gurutzatu genuen baldintzen basamortua.

Ana, *porque un día hablaremos en vasco.*

Koldorekin koldarkeria uxatu nuelako.

Miriamekin ahotsaren miraria.

Aipatu ez bazaituztet, errimogatik izan da eta ez estima-ezagatik.

Eskerrik asko, denoi, zuen laguntza eta maitasunagatik.

Eskerrik asko, euskara maitatzen irakasteagatik.

Paperik gabe, Euskararekin ezkondu nahi dut betiko eta zuek denok gonbidatuta zaudete.

Eskerrik asko!

Agustin Aranburu
(Arrasate Rugby Taldea)
Arrasate

Bizitza guztia errugbian eman ondoren, orain dela bi urte Klubeko Batzarra utzi behar izan nuen.

Gaur egun, 13 urtez errugbiko karpa antolatzen eta laguntzen ibili eta gero, berau uzteko garaia iritsi zait dagoeneko.

Baina utzi aurretik, eskerrak eman nahi nizkieke maila pertsonal eta aldi berean era publikoan urte hauetan beraien laguntza eta kolaborazioa eman, Garagardo Festa egin eta herrian jai hau uztartzen lagundu duten guztiei.

Alde batetik, Udalari.

Beste alde batetik, laguntza eskaini diguten babesle guztiei.

Eta, nola ez, urte hauetan bertan parte hartu duten herritar guztiei.

Azkenik, aipamen bereziena Kajo tabernako nire lagun Antoniori eskaini nahi nioke, ekimen guztietan eskaini duen babes eta laguntza guztiagatik.

Eskerrik asko, guztioi, bihotz-bihotzez.

San
Martzialetako
mahai eta
aulkien egoera

Miren Zabala
Bergara

Lerro honen bidez, gure haserrea adierazi nahi dugu.

Urtero bezala, San Martzialak ospatzeko Udalak eskaintzen dituen mahai eta aulkiak alokatu ditugu.

Orain arte, ez dugu inolako arazorik izan zerbitzu honekin.

Aurten, ordea, ez gaude batere pozik zerbitzu honekin.

Mahaiak eta aulkiak egoera penagarrian eman zizkiguten; mahaiko iltzeak irtenda, "kaballeteak" apurtuta eta aulkiak hala-moduz.

Okerrena San Martzial egunean mahaiak itzultzeko orduan gertatu zen.

Aulki eta mahaien

egoeraren errua guri bota ziguten, fidantzarik gabe geldituko ginen mehatxua eginez.

Hori gutxi balitz, arrazoiak eskatzeko orduan beraien erantzuna hau izan zen: "Tenéis dos opciones, o robáis una silla a otros en buenas condiciones o os quedáis sin fianza".

Gure kasua bakarra ez dela izan esan digute. Beraz, hurrengo urtera begira zerbitzua hobetzea eskatzen dugu.

Eutsi goiari,
Iban!

Mikel Sanchez
Arrasate

Akabo. Bost etapa egin eta etxera. Ez da justua.

Berrito ere lurrera erori eta etxera.

Ez du zorterik arrasatearrak. Baina, oraingoan, munduko lasterketa onena utzi behar izan du, Frantziako Tourra.

Tira, etorriko dira garai hobeak, eutsi goiari! Ea laster ikusten dugun errepedean.

Atal honetan argitaratzeko diren gutunek, gehienez izan behar dituzte 1.900 karaktere (hutsuneak barne) edo 50 lerro. GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Ibarra 6, 20570 Bergara | papera@goiena.com | Faxa: 943 25 05 13

ELGETA, ESKORRIATZA ETA ARAMAIOKO JAIK 2011

GOIENA TELEBISTA | SAIO BEREZIA

UZTAILAK 8, 22:15

UZTAILAK 9, 10:00 / 16:45 / 21:00

UZTAILA 10, 14:00 / 22:30EAN

BABESLEA:



DEBAGOIENDARROK DIOGUNA

goiena



Eva Salaberria, Arrasaten, joan den martitzenean, Goiena telebistan egon ostean. | ENEKO AZKARATE

Eva Salaberria | Donostia 2016 bulegoko zuzendari gerentea

"Gure proiektuaren erdian daude pertsonak, ez azpiegiturak"

Salaberriak dio 2016a izango dela "pilula eferbeszente" moduko bat, "lurraldean sartzen dena, konexioak eta dinamikak sortzen dituen..."

ENEKO AZKARATE | ARRASATE

Donostia 2016ko bulegoko zuzendaria da Eva Salaberria (Donostia, 1964). Irribarretsu, pozik, dago lortutakoarekin. Donostiak merezita lortu duela hiriburutzat. Erronka handiak ditugula dio. **Donostiaren izendapenaren aurka azaldu diren aholkuek harritu egin zaituzte?**

Lasai gaude. Dinamika politikoei, arrazoi eta dialektika politikoei erantzuten diete erreakzio horiek. Epaimahaiak argi utzi zuen geuk merezi genuela 2016ko Europako Kultura Hiriburua izatea.

Belloch Zaragozako alkateta eta Aguilarraren ministroa bereziki gogorak izan dira.

Bai, baina, esaterako, Zaragozako talde teknikoak deitu digu zorionak emateko. Epaimahaiaren behin betiko txostenaren zain gaude, argudio zehatzak eta eza-gutzeko. Zergatik aukeratu duten Donostia eta ze gomendio ematen dizkiguten.

Zergatik halako jarrerak?

Galtzaile txarraren erreakzioa da. Duela hilabete, Donostia fabritoen artean zegoen. Hauteskundeen ostean, berriz, galtzaile ematen ziguten... Epaimahaiak Donostian izan ziren hauteskundeen ostean. Ezagutu nahi zituzten agintari berrien asmoak. Elkartu ziren Bildukoekin, jaso zuten jaso beharrekoak, aintzat

hartu zituzten... Hortik aurrera ezer gutxi dugu esateko.

Erabaki politikoa izan dela diote.

Ez da erabaki politikoa izan. Proiektu kultural baten balorazioa izan da. Gaur egun edozein hiritan dago gatazka: belaunaldi ezberdinen artekoa, espazio publikoaren erabiltzerakoan, ezberdinen ametsen artean... Baina, gatazka egon arren, jakin behar dugu zer egin biolentziarik ez erabiltzeko.

Arriskuan dago Donostiarendako hiriburuaren kontua?

Ez. Zaragozan lasaitu dira. Belloch hasi zen purrustadaka, baina oposizio alderdiak eta herritarrek esan zituen lasaitzeko. Kordoban, jarraitzen dute oso haserre, baina...

Zergatik Donostia?

Proiektu ezberdina aurkeztu dugulako. Arriskuak zituen gure proiektuak. Besteena kultura ekitaldi edo gertaera ohikoez osatutako egitaraua zen. Urtarrietik abendura arteko kultura programazioa. Donostiak ez du hori egin, badaukalako ohiko kultura programazio aberatsa.

Non dago ezberdintasuna?

Donostiak prozesuaren alde egin du eta ez programazioaren alde. 2016 da guretako pilula eferbeszente moduko bat. Lurraldean sartzen den pilula. Pixkanaka, konexioak eta dinamikak sortzen ditu... eta, 2016an, festa handia!

Festazaleak gara euskaldunak?

Asko gustatzen zaigu festa, batez ere zerbait daukagunean ospatzeko. Lortu behar dugu europarrak Donostiara etortzeko gogoia edukitzea. 2016a bukatu ostean, pilula eferbeszente horrek izango ditu osatzeko dohainak. Ditu-gun helburuei erantzuna emango diolako, urteak pasa ostean.

Berritzailea da azpiegiturretan eta inbertitu beharrean pertsonetan inbertitzea.

Hori egin zaie erakargarri epaimahaiakoei. Gure proiektuaren erdigunean daude pertsonak, ez programak edo azpiegiturak. Pertsonok daukagu gaitasuna mundua eraldatzeko. Hori da gure egiten dugun apustua. Epaimahaiak ikusi du Donostiak eskaintzen dituela beste era bateko esperientziak. Kultura eta hezkuntza direla lehen mailako tresnak Europak dituen erronkei erantzuteko: kultura aniztasuna; teknologia eta kulturaren arteko harremanak; natura eta hiriaren artekoak; elkarbizitzaarako ditugun arazoak...

Aniztasuna nabarmendu duzue.

Hizkuntz aniztasuna da gure aberastasuna, baina Europakoa ere bai. 33 hizkuntza ofizial daude Europan. Ze paper dauka euskarak? Zein izan behar du? Horiak dira gure erronkak, baina baita Europarenak ere. Hor dago Donostiaren arrakasta. Proiektu ber-

takoa da, baina, era berean, oso unibertsala.

Bilduk alkatetza lortu izanak arriskuan jarri du proiektua?

Aldaketa politikoren aurrean, kezka sortzen dira, baina Juan Karlos Izagirrek eta gobernu talde berriak oso ondo kudeatu dute aldaketa une hori. Oso giro ona eta talde lana egon da Donostiako hautagaitza defenditzera Madrilera joan garenean. 22 urte daramatzat lanean Donostiako Udalean eta hau izan da proiektu bakarra talde guztien artean batasuna sortu duena. Hau erdua da eta aprobetxatu egin behar dugu. Elkartzen gaituenari eman diogu garrantzia eta herritarrek jarrera hori txalotu dute.

"Gurea proiektu bertakoa da, baina, era berean, oso unibertsala"

"Herritarrek txalotu dute elkartzen gaituenari eman izana garrantzia"

Ze ekarriko dio Donostiari Europako kultura hiriburua izateak?

Elkarlanerako aukera; elkarrekin pentsatzeko eta proiektu berriak gauzatzeko aukera; euskal kultura kanporatzeko, kanpoko kulturengandik ikasi eta gurearekin nahastu eta berriak sortzeko aukera... Kultur alorretik kanpo, jardura ekonomikoari dagokionean ere, onurak handiak izango dira. Aurreikuspena da inbertitzen den euro bakoitzeko 8 euro itzuliko direla. Donostia eta Gipuzkoari ez ezik, Euskal Herri osoari ekarriko dizkio onurak.

Zertan gauzatu da Kultura hiriburua izate hori?

Bost lan sistema ezarriko ditugu: *Auzolab* edo hiritar energien laborategiak; Sormenerako laborategiak; Hizkuntza laborategiak; Kultur parke laborategiak, eta Transmedia laborategiak. Lan sistema horiek jende asko mugiaraziko dute eta hortik etorriko dira lehen proiektuak.

Noiz gauzatuko dira proiektuak?

Proiektuak 62 jardura ditu. Baina prozesuan oinarritutako proiektu batek utzi behar dio prozesuari lan egiten, ea zer ateratzen den hortik. Ardatza eta bizkarrezurra zehaztuta ditugu. Orain, lanean hasi eta geroago eta jende gehiago inplikatu behar dugu proiektu gehiago ateratzeko.

Ze ekitaldi mota?

Asmatu ditugu hiru gailu ibiltari: itsasontzi bat, tren bat eta zirku bat. Horiak Europara joango dira azaltzeko egiten duguna eta han ikasitakoa hona ekartzeko. Bestalde, Shakespeare hil zela 400 urte betetzen dira 2016an eta parkeetan antzetzuko da Udako gau bateko ametsa. Beste ekitaldi bat izango da *Festimar*, gure itsasoan egingo dena; edo *Alicia In Miresgarri World* erakusketa...

Eta umeen danborrada handia...

Urte hasierako ekitaldi nagusia, 2016koa izango da hori. 9.000 ume danborra astintzen.

Ze aurrekontu izango du honek denak?

2009tik 2020ra arte, 11 urterako, dauzkagu 89 milioi euro. %75 izango da finantzazio publikoa, hiru erakundeek, Kultura Ministerioak eta Europak jarria. Gainerakoa, finantzazio pribatua.

Poloniako Wroclaw hiria ere izango da Europako Kultura Hiriburua 2016an. Harremanik baduzue?

Izan dugu eta badugu. Irailean batzartuko gara. Aipatu nahi dut Fagorrek planta handi bat daukala hiriburua hartan. Hortaz, berez ere, Gipuzkoak eta Debagoienak badugu harremanik Wroclaw hiriarekin.

"Donostiari ez ezik, Gipuzkoa eta Euskal Herri osoari ekarriko dizkio onurak"

"Aurreikuspena da inbertitzen den euro bakoitzeko 8 euro itzuliko direla"

Debagoieneko OSASUN ZERBITZUAK



AKUPUNTURA

INTEGU

Arrasate / Uarkape 18, behe, ezk / 943 77 13 34

ETXEBERRIA ANA

Antzuola / Errekalde 6, behe / 943 76 60 13

ALBAITARIAK

ETXEBERRIA JULIO

(DEBAGOIENeko ALBAITARI OFIZIALA)

Bergara / 609 54 16 13

DENTISTAK

ANE LASAGABASTER

Arrasate / Otalora lizentziaduna 18 solairu artea ezk.

943 79 13 68

AGIRRE HORTZ KLINIKA

Bergara / Ibargarai 9-1B / 943 76 00 23

ARANBURU HORTZ KLINIKA

Bergara / Telesforo Aranzadi 1 / 943 76 02 46

ARRASATE HORTZ KLINIKA

Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23

ARREGI HORTZ KLINIKA

Arrasate / San Bixente Ferrer 1, behe / 943 79 71 90

ASTIAZARAN SOLOZABAL

Bergara / Iparragirre 1, behe / 943 76 27 95

BENGOA SAN MIGUEL ANGEL

Aretxabaleta / Durana 14, 1. / 943 79 05 57

BERGARA HORTZ KLINIKA

Bergara / Bidekurutzeta 36, behe / 943 76 05 77

CAVIGLIA SILVANA

Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54

GOROSABEL J. ALBERTO

Bergara / Fraiskozuri 5A, 1D / 943 76 56 88

IRIARTE ANE MAITE / ITZIAR ARANO

Arrasate / Iturriotz 7 - 1 / 943 79 69 45

IRIARTE IDOIA

Bergara / Arte kale 1-1C / 943 76 01 65

Elgeta / Torrealdea 2 behe ezk. / 943 76 80 06

LOPEZ DE GOIKOETXEA

Arrasate / Alfontso X. Jakintsua 5 / 943 79 17 74

MAZMELA BOLINAGA ENRIKE

Eskoriatza / Gorosarri J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36

SAINZ MALKORRA ANA

Antzuola / Herriko Plaza 4 / 943 78 71 69

DERMATOLOGIA

TAMAYO CONCEPCION

Oñati / Atzeko kalea 6 behe

620 12 48 43 / 943 71 61 82

ENTZUMEN ZENTROAK

INSTITUTO OPTICO - BIOACUSTICA

Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68

ERREUMATOLOGIA

GORASARRI ZUBIZARRETA, XABIER DOKTOREA

TROJAOLA ZULUETA, LURDES DOKTOREA

Arrasate / Zaldibar kalea, 1-1 / 943 77 00 40

HOMEOPATIA

AMAIA IRIARTE (MEDIKU HOMEOPATA)

Arrasate / Nafarroa etorbidea 11

943 08 11 00 / 695 78 19 21

KIROPRAKTIKA ZENTROA

LARRAÑAGA ANDREA

Arrasate / Erdiko kalea 22, 3. eskuma / 943 79 92 83

LOGOPEDIA

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

MASAJISTAK

AZPEITIA IRUNE

Bergara / Ibargarai 44, behe / 943 76 73 43

ETXEBERRIA ANA

Antzuola / Errekalde 6, behe / 943 76 60 13

OPTIKAK

BEGIONDO OPTIKA

Aretxabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21

OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA

(ERRESONANTZIA MAGNETIKOA)

Arrasate / Nafarroa Etorbidea, 3 / 943 79 44 22

OSTEOPATIA

BENGOA NEREA

Arrasate / Erdiko kale 22, 3 ezk / 659 58 66 89

ETXEBERRIA ANA

Antzuola / Errekalde 6, behe / 943 76 60 13

PODOLOGOAK

ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA

Arrasate / Erdiko kalea 54, behe esk. / 943 79 97 46

IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA

Bergara / Ikerleku zeharbidea z/g / 943 76 07 84

OINEZ PODOLOGIA KLINIKA

Aretxabaleta / Belorrieta 10 / 943 79 16 45

PSIKIATRA

GALLASTEGI PABLO

Bergara / San Martin plaza 2-1. ezk. / 943 76 26 64

PSIKOLOGOAK

GARMENDIA LANDER

Arrasate / Obenerreka 2, 7H / 943 79 35 86

NUÑEZ TXOMIN

Arrasate / Olarte 10 / 943 79 88 16

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

YOGA

SAMADHI YOGA

Bergara / Masterreka 13, behe

943 76 11 38 / 639 23 57 53.

DUELA 10 URTE

2001-07-06

Ulmak lantegi berria inauguratu zuen

Oñatiko Ulma Hormigon Polimeroren egoitza berria inauguratu zuten. 7.000 metro koadroko lantegia Zubillagako Osiñurdin industrialdean eraiki zuten. Inaugurazio ekitaldian, orduko Industria sailburu Josu Jon Imaz, Oñatiko alkate Angel Iturbe eta Hormigon Polimeroko presidente Rafael Anduaga izan ziren, besteak beste. Ekitaldi hartan azpimarratu zuen Ulma taldeak 40 herrialdetan saltzen zuela.



Eraikin berriaren inaugurazioa. | GORKA ETXABE

2001-07-08

Eskoriatzako auto-krosa toki berrian

Ordura arte Fagor Ederlan aurrean zegoen zelaian egiten zen Eskoriatzako sanpedroetako auto-kros txapelketa, baina, bertako lanak zirela-eta, antolatzaileek beste zirkuitu bat egin behar izan zuten. 1.000 pertsonak baino gehiagok jarraitu zuten Almen ikastolaren ondoan egindako zirkuitu berrian jokatu zen lasterketa. 80 autok hartu zuten parte, gehienak Debagoienekoak; azkarrena Iban Guridi oñatiarra izan zen.

DUELA 5 URTE

2006-07-07

Arrasateko parkinga zabalik

Arrasateko parking publiko berria zabaldu zuten uztailearen 7an. Denera, lur azpiko 450 aparkaleku ditu Biterik, hiru solairutan banatuta. Lehenengoa publikoa edo txandaka erabiltzekoa da eta 137 aparkaleku ditu. Bigarren solairuan beste 13 aparkaleku jarri zituzten txandaka erabiltzeko.

ESKORIATZA

HERRITARRAK

Joseba Gabilondo 27 urteko eskoriatzarra Irlandan eta Gasteizen bizi izan da; hirietan bizi izatea gustuko ez duela dio, eta Eskoriatzan edo Lekeition gustura dagoela aipatu du. | MIRIAN BITERI

"Irlandatik bueltan bisitatu nuen lehenengo tokia Atxorrotz izan zen"

Eskoriatzako perrexila da Joseba Gabilondo; herrian egiten diren saltsa guztietan sartuta dagoena; tartean, jaietan.

Zelan joan dira sanpedroak?

Oso ondo. Azkeneko urteotako onenak, bai antolatzen ibili garen denon aldetik eta baita parte hartu duen jendearen partetik; azken horiek esan digute oso ondo egon direla, azken urteotako onenariakoak. Eguena eta egubakoitza oso ondo irten ziren. Danborrada ere itzela izan zen; presoen batailoian irteten naiz urtero. Eguenean, Eingeinketik antolatutako koadrilen arteko jokoak ere ederto irten ziren. Lehenengoak izateko ezin hobeto joan ziren, hamar koadrilak parte hartu zuten.

Zer dira sanpedroak zuretzako?

Azken urteotan beherantz egin dute; baina oso onak izan dira, inguruko herrietako guztiak etortzen ziren. Aurtengoarekin bat datorrela uste dut. Gainera, badaude gazte batzuk parte-hartzaileak eta oso langileak direnak, eta eurei esker oso ondo joan da dena. Hori dela-eta, urte hobeak datozela iruditzen zait.

Batukadan ezin izan zinen egon...

Hala da. Lana dela-eta, ezin izan nuen ikusi, baina ikaragarria izan dela esan didate; gainera, bideo bat ikusi dut. Aurtengo sanpedroak herritarrengandik irten dira, eta hori da politena. **Jaiak amaitu dira eta orain lan egitea tokatzen da. Udaleku irekietan zabalitza umekin...**

Bai, oso gustura nabil. Nagusiekin nabil ni, datorren urtean gaztelekura doazenekin. Elkar ezagutzen gabilta.

Udalekuan bakarrik ez; gaztelekutik antolatutako Udaeron koordinatzailea ere bazara...

Halaxe da. Oraingo, nahiko harre-ra ona izan du; Eskoriatzan eta Aretxabaletan koadrila polita



Joseba Gabilondo eskoriatzarra eguzten arratsaldean, Alberjian. | MIRIAN BITERI

"Fokatze desegokiekin eta testurekin jokatzeari gustuko dut gustuko"

"Guatemalara goaz abuztuan. Larraitz laguna daukagu han bizitzen"

sortu da. Martitzenean, esaterako, orientina izan zuten Urkulun eta gustura ibili zirela esan didate. **Bestalde, teknologia berriak dituzu oso gustuko. Zelan dago www.danbolinerua.com bloga?**

Azkenaldian geldu dago. Irlandara abenturan joan nintzenean sortu nuen, hango esperientziak kontatzeko. Gero, teknologia berrien gaineko albisteak sartzen hasi nintzen. Orain geldu daukat, www.eskohitza.com komunitatean beste blog bat dut-eta.

Blogez gain, Twitter eta Facebooken ere kontuak daukazu...

Bai. Bi kontu horiek ditut lotuta, eta, hortaz, batean zerbait idazten dudanean bestean ere agertzen da. Twitterren jende ezezagun gehiago daukat; Facebookeko lagunak ezagutzen ditudanak dira, hala nola informatikariak, blogariak eta euskaltzaleak.

140 karakteretan nahi dugun guztia kontatu daiteke?

Bai. Batzuetan, agian, motz gertatzen zait, eta bigarren tweet bat idatzi behar izaten dut; dena dela, uste dut norberak gura duena esateko nahikoa direla 140 karaktere; askotan, gainera, argazki bat sartuta nahikoa da, horrekin guztia esaten duzu-eta...

Argazki hitza aipatu duzu... Non ateratu duzu irudi politena?

Leku askotan. Eskoriatzan erretratu eder asko ateratu ditut. Atxorrotzen argazki oso politak ateratu dira. Bestalde, Irlandan ere irudi ederrak egin nituen; esaterako, 1916ko altxamenduan fusilatutako inguruko monolitoa zegoen, eta oso irudi ederrak ateratu nituen. Lekeitio ere ona da horretarako. Ama hangoa denez, asko egoten naiz han, kostaldea asko gustatzen zait-eta.

Zelako irudiak dituzu gustuko?

Fokatze desegokiekin jokatzeari gustuko, baita testurekin ere. Esa-

terako, aurtengo Errekan Gorako kartelego argazkia nirea da.

Bestalde, Athleticzalea ere bazara. San Mamesera joaten diren horietakoa?

Oso gutxi. Lehen, noizean behin, aitarekin joaten nintzen, baina, azkenaldian, futbolak atzera egiten dit. Athleticzale amorratua naiz, baina futbol munduari nazka hartzen ari naiz.

Mendira joatea gustuko duzu...

Hala da, bereziki Atxorrotzera noa gustura. Irlandatik etorri nintzenean bisitatu nuen lehenengo tokia Atxorrotz izan zen; orduak egon naiteke han begira. Udalaite ere oso gustuko dut. Pirinioak ere harrigarriak dira, orain gutxiago joaten banaiz ere; lehen urtero joaten nintzen.

Amaitu aurretik, oporrik bai?

Guatemalara goaz abuztuan. Larraitz laguna daukagu han bizitzen eta bera bisitatzeraz goaz.

NIRE HERRIAN

ATXORROTZ, KUTTUNENA

Atxorrotz du gustuko. Alberjia ere nabarmendu du. Horren harira, azaldu du proiektu "polita" dagoela aurreikusita. Honakoa esan du: "Adierazpen librerako gunea nahi dugu sortzea". Kultura eskaintzarekin ere pozik dago. Bestalde, herritarren parte-hartzea ezinbestekotzat jo du eskoriatzarrak.

AP-1 AUTOBIDEA ETA AHT

Parte-hartzearen harira, dio "askotan" kosta egiten dela eskoriatzarrak mugiaraztea. Bestalde, AP-1 autobideak "paisaia" ez duela laguntzen esan du. Horren harira, kalteordainak oraindik ez dituztela jaso gogorarazi du. AHTren "munstro handiak" eragingo dituen kalteak ere salatu gura izan ditu.

HERRIAK

BERGARA

Artoa birrintzeko makinak, Miguel Altuna institututik Kongora

- ▶ Mekanika alorreko zortzi irakaslek hartu dute parte proiektuan
- ▶ Hurrengo ikasturtetik aurrera ikasleek landuko dituzte eta Kongora bidaliko dira makinok

EDU MENDIBIL | BERGARA

Proiektu berritzailea jarri dute abian Bergarako Miguel Altuna institutuan. Orain arte ikasleek lantzen zituzten mekanizazio proiektuak txatarrara bota edo ikastetxeko bitrinetan ahaztuta bukatzen zuten, baina, aurrerantzean, aipatutako proiektuei etekina ateratzea izango da helburua. Eta azpigaratutako herrialdeei laguntzeko bada, askoz hobeto. Horrela, hurrengo ikasturtean artoa birrintzeko makinak egingo dituzte ikasleek. Eta Afrikan, Kongon, erabiliko dituzte hango nekazariak Bergaran landutako makinak.

Zortzi bat makina urtean

Mekanika alorreko zortzi irakaslek hartu dute parte proiektuan urtarrietik hona: Joxu Aranak, Enrike Azpiatzuk, Aitor Diaz de Espadak, Xabi Epeldek, Ibon Gantxegik, Jon Intsaustik, Gorka Lazkanok eta Jon Zalduak. Hurrengo ikasturtean, esan bezala, mekanizazio ikasten diharduten ikasleek izango dute aipatutako makinak muntatzeko ardura. Aurreikuspenen arabera, lau ikaslez osatutako talde txikiak egingo dituzte eta 6-8 makina egingo dituzte ikasleek. Irailetik urtarrilera bitartean ezagutzak baneratu ondoren, handik aurrera makinak egiteari ekingo diote. Arduradunen arabera, ikasleen inplikazioa askoz ere handiagoa da eurek egindako lanari erabilpen erreala ikusten diotenean. Proiektuak ikasleak motibatzen balio izango duela uste dute, "haien erantzukizuna handiagoa delako".



Gorka Lazkanok irakaslea, artoa birrintzeko makinaren prototipoarekin. | E.M.



Makina egiteko prozesu osoa landu dute amaitu berri den ikasturtean. | E.M.



Alberto Bolinaga eta Santi Barreña, Shell Eco-Marathon autoarekin. | TXOMIN MADINA

Artoa birrintzeko makina zergatik egin duten galdetuta, zera diosku Lazkanok: "Hainbat aukera aztertu genuen, eta, Via Campesinakoekin egon ostean, Kongotik azaldu zuten interes handien artoa birrintzeko makinak eskuratzeko. Produktuak merkaturatzeko arazoak ei dituzte eta gure makina baliagarria izango zaielakoan egin dugu".

Shell Eco Marathon 2011

Bestalde, Miguel Altunak eta Gas-teizko Mendizabala institutuak parte hartu zuten Alemanian, Lausitzeko zirkuituan, jokatu-tako Shell Eco Marathon auto lasterketan, maiatzean. Bergaran, Santi Barreña eta Alberto Barandiaran izan dira proiektuaren arduradunak. Elektrizitate eta elektronika alorrekoek hartu dute parte. Datorren urtean Rotterdamen jokatu-tako da proba.

Via Campesina eta Kongo

Via Campesina gobernuz kanpoko erakundearen bitartez egin dute kontaktua Kongorekin Miguel Altunako ikasleek. Hainbat proiektu izan dituzte esku artean azken hilabeteotan, tartean ura atera ahal izateko bonbak edota polipastoak, karga pisutsuak igotzeko. Azkenik, artoa eta mandio-ka birrintzeko makina egin dute, diseinutik hasi eta osatu arteko prozesu osoa. Bestelako makinak egiteko ere gertu daude Miguel Altunak. Proiektu txalagarria benetan.

Antzuolako jaietan

ZATOZ GURERA!

Gorosti • Larrea • Arin • Mox
Gailur • Ongi Etorri • Surpe

Ikus itzazu argazkiak, astero, asteleheneko Goiena paperean

UDAKO ARGAZKIEN VII. GOIENA LEHIAKETA

Erakuts egizkiguzu zure udako argazkiak

Bidali zure udako argazkiak eta irabazi sari bikainak!

Argazki guztiak fotoblog honetan: goiena.net/blogak/argazkiak



LARA GONZALEZ



970094774949202



MIGUEL DE GANESHA

Har ezazu parte!

Oinarriak

- **Parte-hartzaile bakoitzak, gehienez, 5 argazki aurkez ditzake.** Argazkiarekin batera adierazi beharko dira:
 - Egilearen izen-abizenak eta herria.
 - Harremanetarako telefonoa.
 - Argazkia noiz eta non ateratakoa den.
 - Argazkian zer eta nortzuk agertzen diren.
- Argazkiak bidaltzeko epea: uztailaren 1etik irailaren 16ra arte.
- Argazkiak aurkeztu ahal izango dira paperean edo digitalizatuta (paperean ondo erreproduzitzeko adinako bereizmenarekin).
- Udako argazkiak izango dira: **berdin da aurtengo udan ateratakoak izatea edo beste uda batekoak.**
- Bidali argazkiak eta datu GUZTIAK e-postaz: argazkiak@goiena.com helbidera, edo Goienara ekarri:
 - ARRASATE: Otarola Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate
 - ARETXABALETA: Basabe poligonoa EO5 edo Durana 11-2 solairura, 20550 Aretxabaleta.
- Debagoieneko edozeinek parte hartu ahal izango du (ez da adin mugarik izango).

- Egoitzara ekartzekotan kartazal batean sartuta, CD batean, edo argazki digitalak gordetzeko beste edozein euskarritan eta JPG formatuan.
- Parte hartzeko ez da ezer ordaindu beharko.
- Beste inon argitaragabeak izango dira argazkiak.
- Argazkiak izan daitezke koloretan zein zuri-beltzean.
- Argazkiak argitaratuko ditugu astero uztailaren erdialdetik aurrera asteleheneko Goiena paperean eta Goiena.net-n sortuko dugun foto-blogean. Goiena telebistan ere erakutsiko dira argazkiak.
- Irabazleak nortzuk diren urriaren 3an jakingo dugu asteleheneko Goiena paperean.
- Epaimahaia Goienako kideek eta bailarako argazkilari profesionalak osatuko dute eta argazkiaren kalitatea, originaltasuna eta balio historikoa hartuko dituzte kontuan.
- Jasotako argazki guztiak argitaratzerik ez badago, Goienak aukeraketa egingo du egokien iruditzen zaizkion irizpideen arabera.
- Jasotako argazkia guztiak Goienako artxiboan gordeko dira eta aurrerantzean erabiliz gero, egilearen izena adierazi egingo da.

Sariak

1. saria

Panasonic LUMIX DMC G10 argazki kamera digitala eta KB Photoestudiok eskaintzen dituen ikastaroetako batean, %50eko deskontu bonoa Bergarako KB Photoestudio argazki dendaren eskutik.

- 12 megapixel.
- LUMIX G VARIO 14-42mm / F3.5-5.6 objektiboa.

- 3 hazbeteko LCD pantaila.
- Live View Dual denbora osoan.
- Flash eta guzti.



2. saria: Cantabrian bi lagunendako astebukaera bateko egonaldia. Arrasate Bidaiek-en eskutik.



3. saria: bi pertsonarendako afa-ri edo bazkaria Leintz Gatzagako Gure Ametsa jatetxean.

ANTOLATZAILEA:

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK:

KB
photoestudio
www.kbphotoestudio.com
Panasonic LUMIX

GURE AMETSA
JATETXEA

ARRASATE BIDAIAK



Jose Mari Etxabe ARTE eta SUDC elkarten egoitzaren kanpoan, lapurrak sartu ziren leihoa seinatzen. | JOKIN BEREZIARTUA

Lapurretek, etenik ez: ARTE eta SUDC izan dira azken kaltetuak

Erremintak ostu dituzte; salatu arren, lapurrak harrapatzeko esperantza gutxi

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE
Lapurretek ez dute etenik Arrasaten. Eta ez du itxurarik etengo direnik: udako oporraldiak datoz, lapurrendako sasoirik oparoenak direnak. Orain arte lapurreta gehienak partikularrei egindakoak izan dira baina joan den asteburuan, Arrasaten pisu handia duten bi kultur talderen egoitzetan sartu ziren: SUDC eta ARTE elkarteek Nafarroa etorbidean duten egoitzetan, hain zuzen.

"Especialistak dira"

ARTEren egoitzatik eskuko erreminta elektrikoak eraman zituzten batez ere, besteak beste, zulagailuak eta lisatzaileak. Jose Mari Etxabe elkarteko presidentek ikusi zuen asteburuan zerbait arraroa gertatu zela, astelehenean egoitzara sartzean armairuak zabalik ikusi zituzten. 1.200 euro ostu diete erremintatan: "Especialistak direla uste dugu, oso argi zuten zer eraman nahi zuten. Hau da, azkar saltzeko moduko erremintak lapurtu dituzte eta egoitza barruan lasaitasun osoz ibili ziren, euren dako balioa izan zezakeen guztia eramateko", dio. Salaketa jarri

dute eta, Etxabek arabera, espero dute galdutakoaren "erdia-edo" errekuiperatzea: "Seguru bat bada, baina dirua errekuiperatzeko fakturak beharrezkoak dira, eta ez ditugu erreminta guztien fakturak". Hori bai, ez du uste lapurrak harrapatuko dituztenik eta beraz, egoitza seguruagoa egingo dute. Lapurren sarbidea izan ziren leihoak -goiko irudian-

sendotuko dituzte: "Behin sartu badira berriro ere etorriko dira", uste du Etxabek.

"Ez dituzte harrapatuko"

Udaltzaingoak eman zien lapurretaren berri SUDCekoei. Sanjuanetarako erosi berri zuten konpresorea, zulagailuak, margotzeko pistolak eta bateriak eraman zituzten, besteak beste: "Okerrena da zure etxean sartu direla pentsatzea, seguru inon ere ez zaudela ikustea. Ez dituzte lapurrak harrapatuko, eta harrapatzen badituzte ere, ezer gutxi egingo diete", adierazi du Juan Luis Arkauz SUDCeko presidentek. Arkauzen ustez ere lapurrek argi zuten eraman nahi zutena: "Sanjuanetatik txanpan botilak genituen soberan. Kaxak zabaldu zituzten baina ez da botilarik falta. Hau da, materiala osteratzen ziren; adibidez, kanpoan zeuden garabiak ekarritako autoei gorpil guztiak kendu zizkieten".

Bi elkarteek lehen aldiz jasan dute halako lapurreta bat. Duela urtebete inguru utzi zien Udalak Nafarroa etorbidean duten egoitza eta bertan oso gustura egon dira. Orain arte, behintzat.

ESANAK

"Azkar saltzeko moduko erremintak ostu dizkigute"

JOSE MARI ETXABE | ARTE

"Okerrena da zure etxera sartu direla pentsatzea"

JUAN LUIS ARKAUZ | SUDC

Txatxilipurdiren 'Freskura!' ekimenak, hasiera arrakastatsua

J.B. | ARRASATE

Joan den astean aurkeztu zuen Txatxilipurdik *Freskura!* ekimena, euskara hutsezko irakurketa eta mahai jolasez igerilekuaren freskotasunean gozatzeko aukera ematen duena. Uztailearen 1ean jarri zen martxan eta abuztuaren 5era arte iraungo du.

Maileguak doakoak dira

Hasiera ezin hobea izan du ekimenak: lehen egunean 34 bat mailegu izan ziren, astelehenean 65 bat eta martitzenean 70 inguru. Eguraldi ona ezinbestekoa da arrakastarako; hori bai, antolatzaileek espero baino harrera hobea izan du. Igerilekuaren

sarreran dagoen postutik irakurketa edo mahai-jolas bat hartzeko igerilekuko txartela edo nortasun agiria utzi behar da. Identifikazio txartel hori maileguaren hartutakoa itzuli ostean bueltatzen zaio jabeari. Eneko Barberena Txatxilipurdiko zuzendariak gogora ekarri du maileguak doakoak direla: "Hainbat erabiltzaile diruarekin etortzen dira; oraingoan ez gabilta ezer saltzen. Doakoa da, maileguen hartzeko".

Azkenik, astero ekitaldi sorpresaren bat egingo dute igerilekuan bertan. Bada, hurrengo astelehenean izango da: ipuin kontalaria egongo da 15:30etik aurrera.



Gaztetxo koadrila mahai jolas baten bila, lagun artean jolasteko. | J.B.



IGOR GONZALEZ

Gure gaitariak, sanferminetan

Sanferminetan ederto ibili dira aurten ere Arrasateko gaitariak. Duela 30 bat urte jaiotako ohiturari eutsiz, uztailearen 6ko hitzorduarekin bat egin dute: "Sakratua da guretako; oso-oso ondo pasatu genuen, lehen unetik azkenera arte", dio Igor Gonzalez gaitariak. Jendeak euren presentzia asko eskertzen duela adierazi digute; denak pozik, beraz.

UGARTE
ARROZTEGIA - ALTZARIAK

ARROZTEGIA
San Juan 1a
Tel.: 943 76 54 91

ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea
Tel.: 943 03 46 30

BERGARA

Proiektuak · Koltxoiak
Horma-Armairuak
Altzariak neurrira
Ateak · Eskailerak
Leihoak · Tarimak
Egur lanak



Txatxilipurdi, uda sasoian ere aisialdiaren belardi

Aurten ere elkarteak 300 umetik gora mugitu ditu



Ondo pasatzeaz gain, elkarteak balioak helaraztea ere badu helburu. | T.

ASIER ALKORTA | ARRASATE

Udaleku irekiak, itxiak, Udare eta Udaixe. Lau ekimen eta ehunka ume. Aurten ere Txatxilipurdi ez da motz geratu, eta, beste behin ere, aisialdiaren alorra eskaintza zabalez estali du. Eta eskaintzak aisialdiaren alorra bete badu, are gehiago bete dute eskualdeko umeek. Izan ere, aurten, guztira, batean eta bestean, 300 ume baino gehiago dabilta ekintzetan parte hartzen.

Uztailaren 4an hasi ziren udaleku irekiak, Udare eta Udaixe, eta hurrengo egunean Kosta Ala Kosta udaleku ibiltaria. Laurek batera, udaldiari aurre egiteko erronka euren gain hartu zuten, Txatxilipurdiaren begiradapean.

Txatxilipurdi urte osoan jo eta ke lanean diharduen taldea bada ere, uztaila "zoramena" izaten dela dio Lander Juaristi Txatxilipurdi taldeko dinamizatzaileak. "Hainbat ekimen jartzen dira martxan eta guzti hori koordinatzea pixkat nahasmena izaten da".

Adinez adin eta tokiz toki

Izan ere, udaleku irekiak lau leku ezberdinetan egiten dira: Orion, Bermeoko Almike auzoan, Garaion eta Kosta Ala Kosta.

Banaketa horrekin, aurten 12-14 urte bitarteko 70 ume pasatuko dira Oriotik eta Almiket 10-12 urteko 40 ume. "Bi leku



Udaren eta Udaixen, ekintza bakoitzean 15-40 ume bitartek parte hartzen dutela dio Txatxilipurdi. | TXATXILIPURDI

horietan bi txanda egingo dira". Garaion 18 ume daude, 12-14 urte bitartekoak eta Kosta ala kosta ekimenean 19 ume daude, 14-16 urte bitartekoak.

Baina horretaz gain, Udaren eta Udaixen 12-17 urte bitarteko umeek parte hartzen dute, unean uneko ekintzetan. "15-40 ume bitartean etortzen dira ekintza bakoitzera".

ESANAK

"Ekintza askorekin, uztaila zoramena izaten da"

LANDER JUARISTI | TXATXILIPURDIKO DINAMIZATZAILEA

"Oso pozik gaude bertoko umeen erantzunarekin"

Horrela, bada, ez da ez ume kopuru txikia elkarteak kudeatzen duena.

Erantzunarekin "pozik"

Txatxilipurdi kideak bertoko umeek uda sasoian egiten diren ekintzen aurrean erakusten duten interesarekin "oso gustura" daukela diote. "Umeen erantzuna beti izaten da ona eta gu oso gustura eta pozik gaude horrekin".

Iazko urtearekin alderatuz aldiz, aurten, udaleku irekietan ume gehiagok parte hartu dutela dio Juaristik. "Aurten iaz baino ume gehiago daukagu udaleku irekietan, baina, orokorrean, beti antzera, 300 umeren bueltan ibiltzen gara".

Hala eta guztiz ere, uda sasiko erantzunaz gain, urte osoan umeek erakusten duten interesarekin ere pozik daude taldekoak. "Gu hezkuntza ez formalean kokatzen den talde bat gara, eta, ondo pasatzeaz gain, balio batzuk ere helarazten dizkiegu umei". Eta horrela da, jolastu eta entrenitzeaz gain, Txatxilipurdi aisialdian hezi egiten ditu umeak. "Euskararen erabileran ere eragiten dugu".

Ikasturte osoan lanean ibili eta gero, uda sasoian ere Txatxilipurdi aisialdiaren belardia izaten jarraitzen du. Jolasteko, ikasteko, ondo pasatzeko eta lagunak egiteko, gauza guztietarako, elkarteak ez du etenik, ez eta mugarik.

"Proiektura egokitzeko" lanak Olarten

Ekainaren 22an hasi ziren Olarte eskolako lanak, eta, eskolako arduradunen esanetan, irailaren 7era arte iraungo dute. Funtsean, espazioa metodologiara egokitzeko lanak dira egiten dabilzanak, eta, horretarako, eskola guztia hustu egin dute. "Datorren ikasturtetik aurrera 0-6 urte bitarteko umeendako izango da eskola, eta, horregatik, ekipamendua eta eraikuntza bera proiektura egokitzeko pausoa eman dugu". Aurreikuspenak kontuan hartuta, irailaren 7an eskolak atek zabalduko dituela iragarri dute.



ASIER ALKORTA

Abaroak hilaren 21ean Errioxara egingo duen txangoan izena eman ahalko da hilaren 13an

Abaroa erretiratuen elkarteak hilaren 21ean Errioxara egingo du txangoa, eta, bertan parte hartzeko, interesatuek hilaren 13an eman beharko dute izena, 10:30ean. Txangoaren prezioa 27 euro da. Egunean bertan Haroko erretiratuen elkartera egingo dute bisita eta bertan hamarretakoa egingo dute. Ondoren, La Hoya herria bisitatuko dute eta Guardiako La Huerta Vieja jatetxean jango dute. Arrasateko gainerako erretiratuen elkarteetako kideek txangoan izena eman ahalko dute, lekua soberan balego.

Datorren ikasturterako antolatutako sukaldaritza ikastaroan izena emateko epea zabalik dago

Econat sukaldaritza eskolak urrian sukaldaritza ikastaro bat eskainiko du eta izena emateko epea zabalik dago. Ikastaroak zortzi aste bukaerako iraupena izango du eta teoria eta praktika uztartuko ditu. Besteak beste, ikasleek zortzi eta hamar erreze-ta artean osatuko dituzte ikastaroan. Izena emateko edo informazio gehiago jasotzeko, interesatuek Jesus Romerori deitu beharko diote (943-77 16 70 edo 695 78 00 58). E-postaz ere eman ahalko da izena (jesusrom@euskalnet.net).

Beñat Barberena | Saskibaloi jokalaria

"Aurten aurrerapauso garrantzitsua egin dudala esango nuke"

- ▶ Barberenak lau urte daramatza EBAn jokatzen
- ▶ Uztailean Argentinara doa, Euskal Selekzioarekin

JOKIN URIBETXEBERRIA | ARRASATE
2007an Ointxe! saskibaloi taldea utzi eta EBAr egin zuen salto Beñat Barberenak. Lau urte hauetan Zaragozako Desarrollo Utebon, Castelloko Onda Urbanan eta Valentziako Power Electronics-eko bigarren taldean jokatzen ibili da, hurrenez hurren. Oraindik ez daki datorren denboraldia non hasiko duen.

Denboraldi osoa etxetik kanpo igaro ostean, berriz zara Arrasaten. Gabonak ezker ez dut tarterik eduki etxera itzultzeko eta gogo biziz nengoen familia eta lagunekin elkartzeko.

Aurten Valentziako Power Electronics taldearen bigarren taldean aritu zara. Nola baloratuko zenuke urte hau?

Urte oso aberasgarria izan da niretako, aurreko hiru urteetan bizi ez ditudan momentuez gozatzeko aukera izan baitut. Talde oso gaztea izan gara eta hasieran asko kostatu zitzaigun gure jokatzeko moduarekin asmatzea. Hala ere, lagun koadrila bat bezala izan gara kantxa barruan zein

kanpoan, eta giroa bikaina izan da uneoro. Pertsonalki, pisu handia izan dut aurten talde barruan eta oso ondo etorri zait hori jokalaria moduan hazteko.

Orain arteko urterik onena izan da, beraz?

Bai, zalantzarik gabe, besteak beste, taldean izan dudana rolagatik.

Lehenengo taldearen aulkitxoan egon zinen Baskoniaren aurka eta geroago Istanbulera joateko deia ere jaso zenuen, Euroligako partidu baterako. Nola bizi izan zenituen momentu haiek?

Abuztuan Valentziara iritsi nintzanean, lehenengo taldearekin egin nuen denboraldi-aurrea. Lan handia egin behar izan nuen ACBko taldean parte hartzeko.

"Ez ditut ahaztuko ACBko taldearekin jokatzeke izan ditudan aukerak"


Orduan iritsi ziren bi aukera haiek, bai Istanbulera joatekoa eta baita Baskoniaren aurka aritzeko ere. Biak ala biak inoiz ahaztuko ez ditudan momentuak izan dira, halako partiduak barrutik bizi izateko aukera izatea ohorea izan da niretzako.

Gerora, baina, entrenatzailea aldatu zuen lehen taldeak eta aulkian ere ez zaitugu ikusi. Zer dela eta?

Halaxe da. Manuel Hussein kargutik kendu eta Svetislav Pesic fitxatu zuen taldeak, eta horrekin batera gazteekiko apustua bertan bera gelditu zen. Ez bakarrik bigarren taldeko gazteena, baizik eta lehenengo taldean fitxa zutenen gazteena ere bai. Emaizta bikainak lortu zituen; beraz, ezin zaio ezertxo ere leporatu Pesici.

Zertan aldatu da 2007an EBAr salto egin zuen Beñat hura eta gaur egungoa?

Ba, nik uste dut ez dela askorik aldatu. Lau urte etxetik kanpo egotearen esperientzia irabazi, lagun berriak egin eta leku asko ezagutzeko aukera izan dut. Dena dela, oso herrikoia izaten jarrai-



Etxean da Beñat Barberena; uztailean Argentinara doa. | J.U.

tzen dut. Eta, saskibaloitari dagokionez, esperientziak ematen duen lasaitasuna izatea lortu dut.

Aurreko urtean bezala, aurtengo udan ere Euskal Selekzioarekin izango zara, Argentinan, lagunarteko hiru partidu jokatzeke.

"Argentinara ikastera noa, eta dakidana erakustera"

Aurten aurrerapauso garrantzitsua eman dudala uste dut eta ziur nago egindako lanaren saria dela Argentinara joateko deialdian egotea.

Ze helbururekin zoaz hara?

Helburua bidaiatzeko gozatzea eta ikasten jarraitzea da, baina baita egiten dakidana erakutsi eta lehen mailako jokalariekin lehiaztea ere. Argentina bezalako selekzioen aurka ez da egunero jokatzen eta ohorea izango da bertan egotea; maila handiko jokalaria izango ditugu aurrean.



JOSETXO ARANTZABAL

Arrasatearren lanak uztail erdira arte

Arrasateko margolariak Harresi aretoan erakusten dabilta ikasturtean zehar egindako lanak, eta uztailaren 15era arte egongo da erakusketa zabalik: "Ni astelehenean izan nintzen erakusketan, eta jende asko joan zen aretora. Egia da erakusketa Kulturaren eginez gero jende gehiago etorriko litzatekeela, jendeak eskurago duelako, baina ezin gara kezatu, erakusketa harrera ona izaten dabil-eta. Horrela izan dadin lanean ibili gara", azaldu digu margo taldeko kide Pilar Muñozek.

Bihar, zapatua, Giranice taldearen kontzertua gaztetxean

Orioko post-rock taldeak kontzertua eskainiko du Arrasateko gaztetxean, 22:30ean hasita, doan. Giranice taldean eremu oso ezberdinetan ibilitako musikariak bildu dira, musika instrumentala egiteko. Gaur girotzen hasteko, baina, Isuo Sasia bakarlarria izango da aurretik.

Udazabal barruan, zinema emanaldiak Monterronen

Urtero moduan, uda sasoiari Monterrongo parkeak errelebu hartuko dio Amaia antzokiari, eta bertan egingo dute zinema eskaintza. Hala, gaur, egubakoitza, egingo dute lehen emanaldia, *Corazón rebelde* (*Crazy Heart*, 2010) filmarekin. Film emanaldiak 22:30ean hasiko dituzte.

Restaurante
UGARAN
Jatetxea

Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

MONTE TABERNA
edari, jana eta kirola

Maalako errabala 2
Tel.: 943 79 20 56

NIRE USTEZ

JOSU
ELORTZAOporrak,
jai giroa

Gogoz eta ilusioz hasi dugu uda, urte osoko lanaren ordainsaria jasotzeko asmoz.

Kostata izan bazen ere, Pazkoak iritsi ziren, aurten-goak ere, mundialak. Erreku-peratzeko denborarik gabe, San Juanak gainean genituen. Elgetara ere joan behar bisita egitera eta igandean, San Martzial. Urteroko legez, goizean goizetik zelaia bete genituen egunak eskaintzen digun ospakizun eta jai giroan murgiltzeko; betiko tradizioek arrakasta izaten jarraitzen dute, eta horrela jarrai dezatela. Gutxi ez eta dagoeneko antzuolarrak ate joka, mairu eta guzti eurak ere jai giroan hasteko gogoz.

San Martinak bitartean, makina bat plazatan arituko gara. Milaka arrazoi daude, aurki itzazue, jai giroan murgildu eta zentzuz zein errespetuz arituz, ondo pasatzeko, eta suerte pixka batekin, ligatzeko ere!

Lortutako egoera politikoa ere ospatzeko arrazoi da, baina oraindik asko daukagu egiteko. Bizitzeko lan egin, edo lan egiteko bizi? Konplexua, norberak pentsa dezala; nik, behintzat, argi daukat. Gogor lan egin dutelako, uda borobil bat opa diet Aitor Mendizabal eta Mikel Aristiri, Donostia 2016ko taldeari eta, nola ez, Bergarako Orkestra Sinfonikoari.

Oporren bueltan izango gara, uda borobil bat izan dezazuela. Ez ahaztu, disfrutatatu, milaka arrazoi daude eta!

Garai gogorretan ere disfrutatatu beharra dauka.

"Milaka arrazoi daude jai giroan murgilduz ondo pasatzeko"



Egoiliarrek, auzolandegian diharduten bederatzi gazteekin. | MONIKA BELASTEGI

Hasi da auzolandegiaren lehen txanda Mizpirualden

Euskal Herriko eta Espainiako bederatzi gazte ibiliko dira egoitzako nagusiekin

MONIKA BELASTEGI | BERGARA

Martitzenean hasi zen auzolandegiaren lehen txanda Mizpirualde egoitzan. Zaragoza, Bartzelona, Madril, Durango, Portugalete, Cadiz eta Valentziako bederatzi gazte etorri dira egoitzako nagusienekin hartu-eman izatera. Izan ere, horixe da Udalak proposatu eta Jaurlaritzak antolatutako auzolandegiaren helburua: belaunaldien arteko elkarbizitza bultzatzea pertsona nagusien eta gazteen arteko elkartrukearen bidez.

Auzolandegia 2009ko uztailean egin zen lehenengoz. Uztailean egin zen orduan ere, 15 eguneko bi txandatan, eta, eragile guztien aldetik -Udala, Mizpirualde egoitza eta Jaurlaritza- izandako balorazio positiboa kontuan izanda, aurten berriz errepikatzea erabaki dute eta orain ere hamabost eguneko bi txanda egingo dira: 1etik 15era lehena eta 16tik 30era bigarrena -bigarrenez zenbat etorriko diren zehazteke dago.

Egoiliarren laguntzaile

Goizetan egongo dira Mizpirualden auzolandegira etorri diren bederatzi gazteak, 10:00etatik 13:00etara, eta Mizpirualdeko animazio lantaldeko profesionalekin batera egoiliarren dinamizazioan parte hartuko dute, betiere egoitzako psikologo animatzaile, monitorea okupazional eta gizarte lan-gilearen gidaritzapean.

Besteak beste, egoiliarrei egunkaria irakurtzen lagunduko diete gazteok, psikomotritate ekintzak egiten, eurekin kartetan egingo dute, paseatzera lagunduko diete, festa eta jolasak antolatuko dituzte eta adinekoen egoitzatik kanpoko harremanak errazteko ekintzak gauzatu.

Gazteek egingo dituzten lanak egoiliarrengan ondorengoak bultzatzea du helburu: parte-hartze aktiboa, nagusiak euren buruarekin ez isolatzea, gaitasun psikomotritzen garapena eta nagusiek memoria eta harreman sozialak garatzea. Horrekin guztiarekin, auzolandegiarekin lortu nahi da belaunaldi desberdinen arteko

elkar-egutzeta eta harremanak bultzatzea, gazteen artean elkar-tasuna sustatzea, egoitzako giroa animatzea eta herritarrak adineko pertsonen gizartearen duten zeregin garrantzizkoaz jabetzeko jarduerak garatzea.

Herria ere ezagutuko dute

Gaztelekuan egingo dute lo eta baita otorduak ere gazteek. Era berean, herria ezagutzeko aukera ere izango dute eta horretarako propio antolatutako ekintzez gozatzeko aukera izango dute: turismo bulegoarekin bisita gidatua, kostaldera irteera, egubakoitzetan jazz kontzertua Espo- loian...

**IRENE DEL RUSTE**
BOLUNTARIOA

"Zaragozatik nator. Beti gustatu izan zaizkit auzolandegiak; Bergarakotik arlo soziala lantzeak erakarri ninduen. Euskal Herrian sekula egoteke nengoen".

**ANDONI HERRERO**
BOLUNTARIOA

"Portugaletetik nator. Gizarte Laguntza ikasi dut eta horrekin lotutako zerbait egin nahi nuen, eta hau aukera ona iruditatu zait. Egoiliarrek oso ondo hartu gaituzte".


**MARIA DEL MAR BONET**
BOLUNTARIOA

"Bartzelonatik nator eta nire laugarren auzolandegia da; antzerki eta arkeologiakoak eginda nago lehen. Aitaita-amamak beti maite izan ditut, eta horregatik etorri naiz".

**TOKI-ONA**
Bodegoia-taberna

Eguneroko janariak
Txixizotzak
Kazolatxoak
Txabierroak

Matxiategi 1. BERGARA
Tel.: 943 39 53



Iturgintza
Berogintza
Aire egokitua
Konponketa
Salmenta

Arruriaga 11
686 943 918

GURIA
Taberna

Bidekurutzeta 5
BERGARA
943 76 20 34

Auditoriuma Oxirondo azokan egiteko asmoa azaldu du Udalak

Hala eginez gero, azoka Miguel Altunako behe solairuan kokatuko lukete

MONIKA BELASTEGI | BERGARA

Auditoriuma Oxirondo azokan egiteko asmoa berretsi du Jesus Elortza alkateak. Aurreko agintalditik datorren planteamendua da eta horri eutsiko diotela esan du. Hain justu ere, eta hasiera baten auditoriuma gaur egun Miguel Altuna institutua dagoen gunean egitea aurreikusitazuzen ere, asmo hori baztertu eta azoka "leku egokiagoa" dela ondorioztatu zuten aurreko agintaldian, gaia arkitekto eta bestelako adituekin aztertu eta gero.

Elortzak azaldu duenez, aurreko Gobernu Taldeak azoka bizi-berritzeko egindako planak agerian laga zuen azoka ez dela "oso egokia egungo beharretarako". Izan ere, "eraiki zenetik gauzak asko aldatu dira".

Azoka, Miguel Altunara

Planteamendu berriaren arabera, auditoriuma azokan eraikiko dute eta azoka gaur egun Miguel Altuna dagoen gunera eroango dute -eraikin zaharrena-. Horren harira, hauxe esan du Elortzak: "Azoka eraikinaren beheko solairuan jarriko dugu eta goikoak udal erabilerrarako izango dira".

Azoka lekuz aldatzeko asmoa azokako bertako dendariekin eztabaidatutako gaia dela esan du alkateak, eta dendariok ados azaldu direla asmoarekin: "Baldin eta lekualdaketa egiten denean ahalik eta eragozpenik txikiena eragiten badiegu".

Auditoriuma, azokara

Auditoriuma azokara eroateko behar eszenikoen gaineko azterketa egin behar dela azaldu du Elortzak, eta horren arabera ikusiko dela "zer-nolako auditoriuma" behar den. Gehitu du dagoeneko harremanetan hasita daudela kultura eragileekin: "Ze behar dagoen, nolakoa nahi dugun eta zenbat diru dagoen ikusi behar-

ko dugu". Izan ere, alderdi ekonomikoa izango da "beste baldintza garrantzitsu" bat.

Eraikitze datez galdetuta, hasierako urratsak egiten dihardutela esan du, eta oraindik aztertze fasean daudela. Bestalde, gogora ekarri du planoak gauzatzeko lehenik eta behin Miguel Altuna institutuak Mayc ondoko eraikin berrira joan behar duela eta horrek "denbora" eroango duela: "Jaurlaritza motel dabil. 2001ean hasitako proiektua da; 10 urte igaro dira eta orain dihardute azpiegitura lanak egiten institutuaren kokaleku berrian". Horrekin guztiarekin, hil honetan Jaurlaritzara joateko asmoa dute la gehitu du, "gestioa arintzeko" asmoarekin.

Miguel Altunak erdigunean duen eraikina libre lagatzen duenean, han azoka kokatzeko obra txiki batzuk egin beharko dituztela ere gehitu du Elortzak, eta gero azoka han birkokatatu.

"Hori guztia egin eta gero hasiko genituzke auditoriumeko lanak". Eta hauxe gehitu du: "Gure agintaldian proiektua garatuta lagaz gero, eta agian, obrak hasita, pozik egoteko moduan egongo ginateke".

ESANAK

"Azoka ez da egokia gaur egungo beharretarako"

JESUS ELORTZA | ALKATEA



MONIKA BELASTEGI

Pozik hasi dituzte udalekuak

Astlehenean eta oso eguraldi onarekin hasi dituzte neska-mutikoen udaleku irekiak. 2 eta 12 urte arteko 290 umek dihardute.

Martitzenean izan ginen eurekin, Martinez de Irala gunean, eta pozik asko erakutsi zizkiguten, argazkian ikusten denez, egun hartan egindako marakak eta txotxongiloak. Uztailaren 22ra arte iraungo dute udalekuak, Jardunek kudeatuta, lehenengoz.



Plazan irudikatu zituzten bi L hizkiak. | JULEN IRIONDO

JULEN IRIONDO | BERGARA

Eleak ekimenak antolatuta bi L hizki irudikatu zituzten martitzenean San Martin plazan hainbat herritarrek. Eskubide zibil eta politikoen errespetuaren alde lanean diharduen taldeak Euskal Herri librea eta legala aldarrikatu gura izan zuen ekintza horrekin. Joan den astea ezker hainbat ekintza egin dituzte eta martitzenekoarekin amaitu zuten sorta. Dozenaka lagun bildu eta irudikatu zituzten bi L horiek, txartel gorriak erakutsita. Hain justu, txartel gorria atera zieten eskubide zibil eta politikoen urraketek: egunotan, Espainiako Auzitegi Nazionalan egiten ari diren Bateragune auziko epaiketa aipatu zuten, eta gogoan izan zituzten lan politikoa egiteagatik zigorra duten herritarrak.

Euskal Herri libre eta legala aldarrikatu dute

Bi 'L' hizki irudikatu zituzten dozenaka herritarrek

OHARRAK

MENDI IBILDIA SAN JOXEPEREKIN

Uztailaren 20an egingo dute, Igeldo eta Orio bitartean. Autobusa 09:00etan abiatuko da autobus geltokitik eta bazkaria Orioko Aisia Balea hotelean egingo dute. Izena emateko elkartearen bulegora jo behar da.

ESTOLDERIA ETA URAREN TASAK ORDAIN DAITEZKE

Uztailaren 5etik irailaren 5era da ordaintzeko epea. Helbideratutako ordainagiriak agindutako kontu korrontean zordunduko dira irailaren 5ean. Helbideratu gabekoak zergapekoak esandako zerga-helbideetara bidaliko dira.

Etzi bedeinkatuko dituzte autoak San Kristobal jaietan

M.B. | BERGARA

Gaur, egubakoitza, hasiko dira auzoko jaiak San Kristobalen. 22:00etan jasoko dute pinua, eta gero, saiheskia, sagardoa eta txokolata egongo dira gerturatzen diren guztiendako. Bihar, zapatua, erromeria egongo da 23:00etan, Miren, Agur eta Gorkarekin, goizeko ordu txikiak arte. Domekan, meza nagusia egongo da 11:00etan, eta horren ondoren, autoak bedeinkatuko dituzte. Horrekin batera, luntxa ere egongo da. Luntxa bukatu ondoren, herri kirolen erakustaldia egongo da, trikitilariak alaituta.

Sugoi

ERLOJUAK,
ARTIKULU
ELEKTRONIKOAK,
KALKULAGAILUAK...

Irizar pasealekua 2 behea
943 76 59 54 BERGARA

Kabutzia

ARRAINDEGIA

Fraiskozuri 6
BERGARA
Tel.: 943 76 56 62

disdira

ile-apaindegia
edertze gela

Masterreka 7
BERGARA
Tel.: 943 76 00 55

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi,
txerri, bildots,
untxi eta
baserriko oilaskoak.*

Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09

CAMACHO

Drogeria
Usaindegia

Bidekurutzeta 24
BERGARA
943 76 13 35

Umorea izango da zineklubaren ardatza

Eguaztenean hasi zituzten gaztetxean zineklub emanaldiak: 'Uno, dos, tres' izan zen lehen filma

ARANTZAZU EZKIBEL | BERGARA

Barealdiaren ondoren berriro ere hasi dituzte gaztetxean zineklub emanaldiak. Ekainean etenaldia egin zuten, eta erabaki dute uztailean berriro ere heltzea programari.

Orain arte egin izan duten moduan, orain ere gai jakin bat aukeratu dute antolatzaileek eta gai horren bueltan aukeratu dituzte filmak. Uztaileko gaia umorea izango da; hala, garai ezberdinetako umorezko lau film eskainiko dituzte gaztetxean.

Hasiera, Billy Wilderrek

Eguaztenean, hilak 6, hasi zuten zineklubeko egitaraua. Billy Wilder zuzendari ospetsuaren *Uno, dos, tres* (1961) filma eskaini zuten. Freskagarriak saltzen dituen multinazional bateko agente komertzialaren eta komunismoaren arteko gorabeherak kontatzen ditu filmak.

Hurrengo filma *Arizona Baby* izango da (1987, Joel Coen). Umerik eduki ezin duen bikote baten asmoak kontatzen ditu lanak: familia bat eraikitzeke helburuarekin boskiak izan dituzten guraso batzuei haur bat bahitzea erabakitzen dute.

Eguaztenean dira filmak

Orain arte domeketan eskaini izan dituzte filmak; uztailean,



Uno, dos, tres filmeko kartela. | GOIENA

EGITARAUA

Uztailak 13 Arizona Baby

Uztailak 20 Academia Rushmore

Uztailak 27 Zombies party

Emanaldiak gaztetxean izango dira, 22.30ean.

baina, data aldatzea erabaki dute. Aurrerantzean filmak eguaztenean eskainiko dituzte, 22:30ean, gaztetxeke kanpoaldeko patioan.

Ikasturteko azken txanpa amaitzeko, *Academia Rushmore* (1998, Wes Anderson) eta *Zombies party* (2004, Edgar Wright) filmak eskainiko dituzte. Barre egiteko aukera paregabea izango da.

Astelehenean jokatuko dute Indar Gorrik eta Mongitxarrek kopako finala

A.E. | BERGARA

Ipintzako futbol txapelketa azken txanpan sartu da. Datorren astelehenean, hilak 11, kopako finala jokatuko dute Indar Gorri eta Mongitxarrek taldeek, 19:00etan.

Asteon jokatuko dira finalerdiak. Mongitxarrek taldeak 2-0 irabazi zion Getokuak taldeari eta Indar Gorrik 5-0 irabazi zion Diego Valor taldeari. Modu

horretan, finalerako txartela lortu dute.

Ligan, final-laurdenetan

Ligan, Langostak 1-0 irabazi zion Escaliburri eta Badulakek 4-1 irabazi zion Iramari.

Final-laurdenetako partiduak izan dira horiek. Datorren astean finalerdiak jokatuko dituzte eta uztailearen 15ean Agorrosinen jokatuko dute finala.

Bergara saskibaloari sailak antolatutako hiruko saskibaloari txapelketan saritutako zenbakia 2.518 da

Ekainaren 25ean San Martin plazan jokatutako hiruko saskibaloari txapelketan saldu zuten loteriaren zenbaki irabazlea 2.518 da. Saskibaloari elkarteak antolatutako txapelketa izan zen. Zenbaki irabazlea duenak bi pertsonarendako aste bukaera bat irabazi du landetxe baten. Zortedunak elkarteke zuzendaritzarekin jarri beharko du harremanetan.

Emilia Nogalesen 'Beraientzat' margo erakusketa zabalik dago uztailearen 17ra arte Aroztegin

Sanjuanetan zabaldu zuten erakusketa eta hilaren 17ra arte egongo da zabalik. Emilia Nogalesen lanak dira ikusgai daudenak, *Beraientzat* margo erakusketa, hain zuzen. Nogales elgoibartarra olioak margotzen hasi bazen ere, gaur egun akrilikoan egiten du lan. Bere kasa ikasi du margotzen; orain dela 11 urte ekin zion margotzeari, diseinatzaile lana utzi ondoren. Aroztegi aretoko ohiko ordutegian egongo da zabalik erakusketa.

Uztailaren 18an Aritzeta abesbatzak kontzertua eskainiko du Santa Marina parrokian

Oporrak hartu aurretik bi kontzertu eskainiko ditu Aritzeta abesbatzak. Hilaren 18an, 19:30ean, Santa Marina parrokian eskainiko dute lehenengo saioa; eta hurrengo hilaren 22an izango da, Gortizen. 20 eta 65 urte bitarteko 25 lagunek osatzen dute abesbatza. Musikaz gozatzea eta abestea gustuko duten kideak dira.



Udaleku Musikalak egiten dabilzan neska-mutikoak. | ARANTZAZU EZKIBEL

Aurtengo Udaleku Musikaletan ikasitakoa erakutsiko dute gaztetxoek Zabalotegin

A.E. | BERGARA

24 neska-mutiko ibili dira Musika Eskolak antolatutako Udaleku Musikaletan. Ekainaren 27an hasi ziren gaztetxoak udalekuan, eta gaur bertan amaituko dute aurtengo edizioa. Hori dela-eta, emanaldia egingo dute gaur 12:00etan Zabalotegin. Batez ere, familia eta lagunei zuzendutako ema-

naldia izango da. Neska-mutikoek egun hauetan ikasitakoa erakutsiko dute.

Lau tailer izan dituzte

Dantza, antzerkia, erritmoa eta ahotsa landu dituzte neska-mutikoek udalekuan. Gainera, San Fermin giroaz gozatzeko aukera ere izan dute egunotan.



OGIZUN
koop. elk.
okindegia

Ibargarai 44-46 BERGARA
943 76 45 53

Ibargarai 17 behea BERGARA
943 76 21 37

Obradorea. Zubillaga 10 OÑATI
943 78 24 13



Argazkia: Kiitn

Bibi / Ion Andueza eta Idoia Juaristi | KB Photoestudioko kideak

"Photoshop ikastaroek harrera oso ona izan dute"

Ikastaroetan argazkiak Photoshop bidez tratatzeko oinarrizko paletak zeintzuk diren irakasten dute bi argazkilariek; eskola pertsonalatuak direla eta, irailetik aurrera gehiago egingo dituztela diote

Bergarako KB Photoestudio argazki-dendan hitzordua egin dugu bertako Bibi eta Ion Anduezarekin eta haiekin argazkilaritzaren gainean jarduteko aukera izan dugu.

Urteak daramatzazue argazkilaritza munduan, eta oraindik ere jarraitzeko asmoarekin.

Egia esan, argazkilaritza, ogibide baino gehiago, zaletasuna da guretzat. Izugarri gustatu izan zaigu beti, eta ea urte askoan segitzeko aukera dugun. Gogorik, behintzat, ez zaigu falta!

Zuen lanetik zer duzue gustuko?

Barietatea. Argazki-dendan ditugun ohiko zerbitzuez gain, ezkontzak ere egiten ditugu, estudioko argazkiak, argazkilaritza industrialean ere murgilduta gaude, kaleko erreportajeak ere maiz egiten ditugu, ikastaroak ematen ditugu... denetik pixka bat egiten dugu eta hori da lanbide honek duen alde onena; bariedatea, alegia.

Zeintzuk dira, baina, argazkilaritza munduan azkenaldian izan ditugun nobedadeak? Eta zer da jendeak gehien eskatzen duena?

Egia esan, estudio lanek azkenaldian gorakada nabarmena jaso dute. Jendeak argazki bildumak (familiakoak, oporretakoak, oparitzeko) ekartzen ditu eta guk horiekin *book* eta poster edo panelak egiten ditugu. Jendeak oso gustuko ditu poster horiek.

Iaztik hona, gainera, herritarrak argazkilaritza hurbiltzeko Photoshop ikastaroak ematen dituzue. Nolatan?

Bai, hala da. Aro digitalera pasatu ginenetik, guk behar hori ikusten genuen. Eta behar hori islatuta ikusi da jendearengan. Izan ere, sekulako harrera ona



Bibi eta Ion Andueza, KB Photoestudioko kideak, Photoshop ikastaroen gelan. | KB PHOTOESTUDIO

izan dute ikastaroek. 2010eko irailean hasi ginen. Eskola pertsonalatuak dira, hiru pertsona gehienez, eta, horregatik, ikastaroak irauten duen hamabi orduetan, argazkiak Photoshopen bidez tratatzeko ezinbesteko paletak zeintzuk diren ikasten dute ikasleek.

Pentsatzen dut irailetik aurrera jarraipena izango dutela Photoshop ikastaroek.

"Jendeak oso gustuko ditu egiten ditugun posterrak"

Bai, ez bakarrik jarraitu, ikastaroen maiztasuna handitzea da helburua. Eskola pertsonalatuak izaten jarraituko dute, baina horien maiztasuna handitzeko lanean gabiltza. Enfasi handiagoa egingo dugu ikastaroetan. Esan bezala, izan dugun erantzuna oso ona izan da eta jendea oso pozik iretzen da ikastaroetatik.

Goienak antolatzen duen Udako Argazki Lehiaketan ere kolaboratzaile fin zaituztegu.

Bai; urteak dira lehiaketa honetan parte hartzen duguna, eta esan beharra dago debagoiendarrek duten maila oso-oso handia dela. Urtero jasotzen dira kalitatedun argazkiak, eta ea aurten ere horre-

la gertatzen den. Hori urri hasieran ikusiko dugu!

Egiten dituzuen lanak inon ikusteko aukerarik badugu?

Bai, gure webgunean (www.kbphotoestudio.com) ikusgai daude egin ditugun hainbat lan, eta beste zenbait lan eta kuriositate ere gure blogean jartzen ditugu (kbphotoestudio.wordpress.com). Interesatuta dagoenak sareko bi lekuotan kontsultatu ahal du.

"Ikastaroen maiztasuna handitzea dugu helburu"

MOTZ-MOTZEAN

Argazki-kamera marka gogokoena?

Gaur egun kamerak ez du horrenbesteko garrantzirik. Ideia onak izatea eta argazkiak ataratzeko gogoa da funtsezkoena eta garrantzitsuen.

Erretratuak ala paisaiak?

Bi aukeren artean guk erretratuak nahiago ditugu. Hau da, zerbait soziala islatzen duten argazkiak, atzean historia bat dutenak, horiek dira guk gustukoak ditugunak.

Udari begira aholkurik bai?

Aholkua baino gehiago, nik debagoiendarrei gomendio bat emango nieke: beldur barik argazkiak ataratzeko, gozatzeko argazkilaritzarekin eta oporretatik bueltan oroiarri politik ekartzeko.

ezkontzak
estudioak
materiala

bisita itzazu gure webgunea eta bloga!

www.kbphotoestudio.com



Aitor Biain | Ganbara abesbatzako zuzendaria

"Bigarren sariak gaziak dira, baina hau oso gozoa da"

- ▶ Ganbara abesbatza sariarekin itzuli da
- ▶ Urte eta erdian hainbat aldaketa izan ditu taldeak

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Ganbara abesbatza bigarren sariarekin itzuli zen San Vicente de la Barquerako (Kantabria) lehiaketatik. Azken urte eta erdian egindako lanaren "emaitza" dela diote taldeko kideek, eta "lehen saria izango balitz bezala" hartu dutela. Aitor Biain zuzendaria oso pozik dago sariarekin eta, batez ere, taldeak egindako lanarekin. Haren berbak dituzue jarraian.

Puntu erdiko aldearekin bakarrik irabazi zuen Las Palmasko Ainur abesbatzak.

Sariak banatu ondoren epaimahaiako kideek esan ziguten bi taldeen arteko berdintasuna erabatekoa izan zela. Eurek zapatuko lana baloratzen dute, eta gauerako hartzen dute erabakia. Oraingoan, domeka eguerdian erabaki zuten. Berdinketa zen nagusi, horregatik puntu erdiko aldea bakarrik.

Bai, baina berdinketa egon arren, Ainur taldeari eman zioten sari nagusia. Bigarren saria gazia izaten da, normalean.

Bai, hala da. Baina, oraingo honetan, bene-benetan, lehen saria izango balitz bezala hartu dugu. Oso pozik gaude egindako lanarekin. Bigarren saria da, bai,

baina gozoa, eta guretzat behintzat, beharrezkoa. Taldearendako ezinbestekoa zen.

Berdinketa bi abesbatzaren artean, baina abesbatza ezberdinak.

Oso bestelako taldeak gara. Las Palmasko taldea oso espirituala da eta 20 kide ditu. Gu askoz gehiago gara, eta soinu ezberdina dugu.

Epaimahaiak zuen soinua azpimarratu zuen nagusiki.

Hala esan ziguten. Soinu naturala, dotorea eta fina lortu genuela, kontralto eta baxu oso onak ditugula, eta kimika handia dugula ere bai. Berba horiek oso aberasgarriak izan dira guretako. Bide berria hasteko inflexio-puntua zen San Vicente de la Barquerako lehiaketa. Aurrera egiteko oso baliagarria izango zaigu bigarren saria.

Eszenaratzea ere zaindu duzue: arrantzale jantzita irten zineten.

"Soinu naturala eta dotorea dugula esan ziguten epaimahaiakoek"

Ganbara abesbatzak beti zaindu du asko eszenaratzea. Kantuak belarrietatik sartu behar du, baina baita begietatik ere. Bestela, diskoa entzuten zaudela ematen du. Espresibitatea, mugimenduak... guztia da inportantea entzuleengana heltzeko.

Azken urte eta erdian aldaketa handiak izan dituzue taldean.

Hala da. Zuzendari aldaketa, kide batzuek taldea utzi eta berriak hasi dira. Ganbara Gazteko bost kide gurekin hasi dira. Lan handia egin dugu: ahotsak afinatu eta elkarren artean enpastatu, talde dinamikara itzuli, talde giroa sortu... Guretzat, erronka zen, eta gainditu egin dugu.

Hutsetik hasi zarete lanean?

Hutsetik ez, taldearen oinarria bera da aurretik zeuden kideetako batzuk daudelako. Baina taldeari aurpegia aldatu diogula esango nuke.

Lehenko Ganbara buruan duenak oraingo Ganbara entzunda, aldaketa asko nabarituko ditu?

Ez. Taldeak bide bera segituko du. Gure ezaugarri nagusia soinua da: soinu naturala dugu. Esteban Urtzelai zuzendari egon den 12 urteetan soinu berezia lortu dugu, eta mantendu egingo dugu.



Aitor Biain, San Vicente de la Barquerako lehiaketako sari jasotzen. | MIREIA ARREGI

Kide eta aurpegi berriak daude. Hori da dugun ezberdintasun nagusia.

Aurpegi berri horien artean Ganbara Gazteko bost kide daude.

Hori zen beste helburuetako bat. Atzetik datozen abeslari gazteei leku egitea. Oraingoan, Ganbara

Gazteko bost kide daude gurekin, eta oso pozik daude. Lan ona egin dute, eta ondo egokitu dira taldera.

Etorkizuna bermatuta dauka Ganbarak?

Bide onetik goazela esango nuke. Neska-mutiko askorekin dihardugu lanean eta haiei abesbatza nagusira salto egiteko aukera eman behar diegu.

Lehen lehiaketan, bigarren saria. Presio handiegia?

Lan handia egin dugu, baina oso zaila da lehiaketa guztiak irabaztea. Sari hau bultzada izugarria da guretako.

"San Vicente de la Barquerako lehiaketa bultzada handia da guretzat"

Ikastolako ikasleak ingelesez lantzen

Ekainaren 29an hasi zituzten ingelesezko udalekuak Txantxiku Ikastolako ikasleek. Haur eta Lehen Hezkuntzako ikasleekin bost talde osatu dituzte, eta Enjoy English programaren barruan askotariko ekintzak egingo dituzte. Azken jaiaren 22an egingo dute, Santa Ana antzokian, 18:00etan.



TXANTXIKU IKASTOLA

OHARRAK

PLASTIKO BILKETA

Baserrietan sortuko plastikokoak batuko dituzte uztailearen 26an. Oñatin lau puntu daude: Zañartun, Zuazola inguruan, Murgian, Asentzio ermitan; ETEO atzealdean; eta Olabarrietako autobus geltokian.

UDAKO KIROL KANPAINA

Udako kirol kanpainako bigarren txandan eta abuztuko bietan lekua dute oraindik. Hain justu ere, mountain bike, mini-tenis, tenis, squash, badminton, patinaje, jolas, pilota, erraketa kirol eta eskaladan. Izen-ematea kiroldegian egin behar da. Bigarren txanda uztailearen 11tik 22ra egingo dute.

Astotrastoren etorrerarekin hasiko dira jaiak Trianan

Askotariko ekitaldiak egingo dituzte domekara arte: erromeria eta rock kontzertua, umeendako ekintzak eta mus jokoa, besteak beste

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Abuztuko oporren aurreko azken-aurreko jaiak ospatuko dituzte Trianan. Gaurtik domekara arte festa giroa izango da nagusi. Astotrastok markatuko du jaien hasiera: 19:00etan egingo diote ongietorria. Handik aurrera, eta domekan sarien zozketa egin arte, askotariko ekitaldiak egingo dituzte.

Astotrasto, txorimaloak eta erraldoiak lagun dituztela kalejira egingo dute umeek eta txistulariek 19:30ean. Ordu berean, sagardo eta pintxoak banatuko dituzte txosnan. 20:00etatik 21:30era eta 22:30etik aurrera, Luhartz taldeak erromeria egingo du.

31. mus txapelketa

Bihar, 11:30ean umeak izango dira protagonistak: marrazki saioa egingo dute, eta guztiek sariak jasoko dituzte. 15:30ean ilinti kafea banatuko dute, eta 16:00etan 31. mus txapelketa egingo dute. 17:00etan haurrendako jolasak eta eskulanak egingo dituzte eta 19:00etan kalejira



Astotrasto Trianara heltzen, iazko jaiari hasiera emateko. | JULIO CALLEJA

auzoan, txorimalo eta erraldoiekin. Zapatuan musika egongo da: Alaiki taldearekin erromeria 20:00etan eta 00:00etan, eta Gorroto eta Awakening The North taldeekin rock kontzertua 22:00etan.

Parrandan geratzen direnendako beste bi ekitaldi ere badaude: 03:30ean txokolate-jana egongo da eta goizaldean sokasalto saioa egingo dute.

Festak bukatzeko, zozketa

Herriko txistulariek esnatuko dituzte auzotarrak domekan. 12:00etan hildakoen aldeko meza egingo dute San Martinen. Ondoren, luncha eta auzo-bazkaria egingo dituzte. Jaiak bukatzeko, musikak hartuko du lekukoa Trianan: Miren, Agur eta Gorka taldeak erromeria egingo du, 18:00etan. Zozketarekin agurtuko dituzte festak.

Oñatzen 40. urteurreneko bazkarirako txartelak erosteko azken eguna hilaren 15a da

Iaz 40 urte bete zituen Oñatzek, eta irailaren 3an ospatuko dute. Bada, dagoeneko salgai dituzte bazkarirako txartelak: kultura etxean eta Anton, Izarraitz eta Aloña tabernetan eros daitezke hilaren 15a baino lehen. "Hori da azken eguna", esan dute antolatzaileek. Bestalde, larrain-dantzarako entseguak egingo dituzte hilaren 14an eta 21ean, Errekalden, 20:00etan.

Domekan, hilaren 10ean, eta hilaren 17an argia kenduko dute herri osoan, 08:00etatik 12:00etara

Oñargik aditzera eman duenez, domekan, hilaren 10ean, eta hilaren 17an argia kenduko dute herri osoan 08:00etatik 12:00etara. Azpi-estazioan hainbat berrikuntza lan egin behar dituzte, eta horren ondorioz mozketak eragina izango du Oñati osoan. Lau orduko mozketak izango dela aurreikusten dute. Argia abisu barik ipiniko dute.

San Martingo 26 etxeen zozketa hilaren 13an egingo dute Santa Ana antzokian, 18:00etan

San Martingo 4. eta 5. zenbakietan egiten diharduten babes ofizialeko etxeen zozketa hilaren 13an egingo dute Santa Ana antzokian, 18:00etan. Guztira, 26 etxe zozketatuko dituzte. Etxebidek egindako zerrandan 169 eskaera onartu dituzte. San Martingo 4. eta 5. zenbakietan desjabetze egoeran dauden lagunendako beste lau etxebizitza gordeko ditu Udalak.

Titietako minbizia goiz detektatzeko programa abian 1952-1962 urte artean jaiotako emakumeendako

Martxan da Osakidetzak titietako minbizia goiz detektatzeko antolatzen duen programa. Bi urtetik behin egiten dute, eta, oraingoan, 1952 eta 1962 urte artean jaiotako emakumeei zuzendu diete. Mamografia egiteko txanda emango zaie gutun bidez. Osakidetzaren iritziz, prebentzioa egitea "ezinbestekoa" da minbiziari aurre egiteko.





Ainhoa Borrero. | M.A.

665.000 euro banatu ditu ONCEk gurean

M.A. | ARETXABALETAKO

Joan den egubakoitzean, hilak 1, egindako zozketan 665.000 euro banatu zituen ONCEk Aretxabaletan. Ainhoa Borrero oñatiarrak Mitarte kalean saldutako 15.760 zenbakiak utzi zuen saria; 35.000 euroko 19 kupoi banatu zituen.

"Oso pozgarria da erosleen artean sariak banatzea", zioen Borrerok hurrengo egunetan. Astelehen goizean txartel sari-tuen hainbat jabe saltzailearen jabe joan ziren, zelan kobratu galdezka.

Sari asko banatu ditu azken hilabeteotan ONCEk EAEn. Maiatzean, Arrasaten, eta azken bi asteotan Donostian (70.000 euro eta 770.000 euro) eta Zarautzen (1.750.000 euro).

Aretxabaleta kirol elkarteak ezohiko batzarra du gaur

M.A. | ARETXABALETAKO

Aretxabaleta Kirol Elkarteak bazkideek ezohiko batzar orokorra dute gaur, Arkupen (18:00). Juan Mari Enekotegi presidente duen zuzendaritza batzorde berriak hartuko du elkartearen gidaritza.

Lehenengo, 2010-2011 denboraldiko kontuen berri eman go dute. Ondoren, irailean hasiko duten 2011-2012 denboraldia aurkeztu eta diru kontuak onartuko dituzte. Eta ekitaldia bukatzeko, denboraldiko kirolari onenek saria jasoko dute.

Bi lagun hasi dira lanean asteen, Udalarendako

Sei hilabeteko kontratua dute, eta herrian eta auzoetan egingo dute lan

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETAKO

Langile bi hartzeko dei egin zuen Udalak ekainean, eta astelehena ezker lanean dabilta horiek. Herrian bertan eta auzo eta baserri inguruetan egingo dituzte lanak: "Batez ere, landaguneetako bide bazterrek garbitzen ibiliko dira orain. Hala ere, bestelako lanak ere egingo dituzte: igeltserotza lan puntualak, margotze lanak...", dio Argiñe Larrea Enplegu teknikariak.

Askok eman zuten izena Lanbiden, baina eskatutako baldintzak betetzen zizutenak 35 izan ziren. Ondorengo aukeraketa egiteko hainbat irizpide ezarri zituzten, eta horien artean 13 aukeratu elkarriketa egiteko. Baloratutako irizpideen artean ondorengoak daude: diru

sarrerak bermatzeko errentaren onuradunak izatea; langabezian egondako denbora; karga familiarak; euskara; gidabaimena; aurretik duen esperientzia; eta adina.

Lanbideren erantzuna laster

Udalaren asmoa bi beharrea lau peoi kontratatzea zen eta eskaera hori egin zuen Lanbidera, Aste Santu aurretik. Oraindik ez dute jaso eskaera horren erantzunik, baina datozen 15 egunetan jakingo dutelakoan daude udal ordezkariak.

Udaleko brigadako kideek egiten dituzten lanek, baina, ezin zuten itxaron gehiago eta horregatik hartu dituzte bi lagun. Lanbideren erantzuna ezezkia izanez gero, langile horien gaitasua Udalak hartuko du bere gain. "Erantzuna baiezkoa bada, beste bi pertsona kontratatuko ditugu. Bi horiek dagoeneko egin dugun hautaketa prozesuan aukeratuta geratu dira, eta erantzunaren berri emango diegu horiei", dio Larreak.

ESANAK

"Lanbideren erantzuna baiezkoa bada beste bi lagun hartuko ditugu, eta aukeratuta daude horiek"

ARGIÑE LARREA | ENPLEGU TEKNIKARIA



Eginoko La Leze inguruan harkaitz artean ibili zen taldetxoak. | LORAMENDI ELKARTEA

Degurixako egonaldiako izen-ematea zabalik dute

M.A. | ARETXABALETAKO

Loramendik, Gazte Ekimenak eta Murruxok antolatutako hirugarren irteera egingo dute uztailaren 22tik 23ra: Degurixa aldean kanpaldia. Hilaren 23an desafioa egingo dute bertan

eskoriatarrek, oñatiarrek eta aretxabaletarrek, Degurixa zainena den "erabakitze". Desafio hori girotu eta era berean ondo pasatzeko asmoarekin antolatu dute kanpaldia. Izena emateko epea astelehenean

zabalduko dute hilaren 19a arte; Loramendira jo behar da.

Haitzarteetan gustura

Bigarren irteera joan den zapatuan egin zuten: haitzarte edo kanoietan ibili. Eginon (Araba), La Leze inguruko kobazuloan, ibili ziren zortzi lagun, baita gustura ibili ere: "Hotz apur bat pasatu genuen, eta eguzki izpiak noiz ikusiko zain geunden, baina oso gustura".

Federatu txartelean aldaketak egiteko Murruxora jo behar da

Murruxiko Mendizale Elkartek jakinarazi du aldaketak egiteko aukera dagoela federatutako txartelean; baita federatzeko aukera ere. Uda partean mendi aldera irteerak eta bidaiak egingo dituztenendako da batez ere deia.

Murruxikoren Durana kaleko egoitzatik pasatu behar dute interesatuek eta bertan zehaztu aldaketa. Azken eguna, martitzena da, uztailaren 12a (19:00-20:00).

San Kristobal jaiak ospatuko dituzte bihar Larrino auzoan

San Kristobal zaindariaren eguna ospatuko dute Larrino auzoan eta bertan dagoen elkartearen. Umeendako ekitaldiekin hasiko dute jai giroa bihar, hilak 9 (16:30): jolasak, pilota partidak, buruhandiak, txokolate beroa... Eta gauean auzo afaria izango da elkartearen, trikitaliak lagun.

Domekan, San Kristobal eguna, meza nagusia izango dute (12:00) eta ondoren mokadutxoak.

Hasi dute uztaileko zinema 'El discurso del rey' filmarekin

Hiru film emango dituzte Arkupen uztaileko zinema barruan. Gaur (21:30) eta astelehenean (16:30), *El discurso del rey*; hilaren 13an eta 15ean (21:30) eta 18an (16:30), *Fast & Furious 5* izango da; eta uztailaren 20an eta 22an (21:30) eta 26an (16:30), *Piratas del Caribe 4*. Sarrera, 2 euro da.

Bestalde, hilaren 13an *Aretxabaleta atzo eta gaur* emanaldia eskainiko dute (11:30 eta 19:00).

Trapu Zaharra taldeak 'Jira biran' antzezlan eskainiko du egunean

Jira biran lana ekarriko du gurea Trapu Zaharra taldeak datorren egunean, hilak 14. Herriko Plazan eskainiko dute (19:00).

Seme-alabek gero eta beranduago alde egiten dutela gurasoen etxetik gai hartuta, egungo bizi-moduaren eta familiarren gaineko hausnarketa egingo dute, eta iritzi ezberdinak erakutsi.

Txistu entseguak egiten dabilta, urriko Txistulari Eguna gertatzeko

Urriaren 9an Aretxabaletan ospatuko duten Debagoieneko II. Txistulari Eguna gertatzen hasi dira txistulari taldeko kideak, eta entseguak egiten dabilta eguaztenetan (18:30), Arkupen. Hurrengoak izango dira: 13an, 20an eta 27an.

Herriko txistulari guztiak animatu gura dituzte entseguetara joan daitezen.

**BENGOA
URDAITEGIA**

Bertako okelak
eta odolosteak

Durana 9. Aretxabaleta
Tel.: 943 79 19 79





FELIX PAGALDAY

Laborantza tresnak
Ongarriak- Haziak

Mitarte 7 behea
ARETXABALETAKO
Tel.: 943 77 00 33 / 943 79 42 56

Aretxabaleta erdi-erdian


Etxebizitzen 2. fasea – Prezio berriak



2 eta 3 logelako etxebizitzak

Sukaldea jantzita
(altzari eta etxetresna elektrikoak barne)

Trastelekua beheko solairuan



Etor zaitez informazioa jasotzera, konpromisorik gabe:

Iturrizar 1, behea – ARETXABAleta – Tel.: 943 79 40 00

Ibargarai 36, behea – BERGARA – Tel.: 943 76 11 18

www.ortuibar.com - ortuibar@telefonica.net

Hilaren 22ra arte ikus daitezke Ibarraundin Erdi Aroko buru estalkiak

M.B. | ESKORIATZA

Behere Aroan eta Erdi Aroan Euskal Herriko emakumeek erabiltzen zituzten buru estalkien erakusketa zabalik egongo da hilaren 22ra arte, Ibarraundin. Goizez ikusi ahal izango da, 09:00etatik 14:00etara.

Ekainaren 26a ezker museoan dagoen erakusketa horretan Ipar eta Hego Euskal Herriko hainbat herritako 30 buruko daude ikusgai, baita XV. mendean Erronkarin erabiltzen zen ohiko jantzi bat ere.

Erakusketako arduradun Estibaliz eta Cañive Santistebanen esanetan, soinekoa herri bakoitzaren sentsibilitate artistikoaren adierazle izan da, eta, hortaz, haren izaeraren alderdiak bat. Pertsona bakoitzak jantziari emandako soluzio formalak norberak artea sortzeko duen senaren ondorio dela diote.



Buru estalki bat. | ESKORIATZAKO UDALA

NIRE USTEZ

MARIJO PAGALDAI



Aldatzeko ahalmena

Krisi garaian gaude. Ez dut uste krisialdi hau ekonomikoa bakarrik denik, baizik eta gizarte-baloreen eta balore planetarioen krisiaren ondorioa. Edozein krisik gatazkak eta zailtasunak ekartzen ditu, baina baita aukera berriak ere: aldatzeko, gauza berriren bat bilatzeko eta kreatibitatearako. Lehenago modu isilagoan sumatzen bagenuen zerbaite, orain, krisialdiak egunero gogorarazten digu.

Eta oraingoan bai, denongan dauka eragina. Eta honetan denok hartu dezakegu ardura,

kontzientzia eta borondatez jokatu.

Umetan zaintzea, babesa, jaten ematea eta gurekin onak izan daitezela espero eta eskatzen dugu eta hori da sasoi hari dagokiona.

Baina, heltzen garenean ere umeak bezalaxe jokatzen jarraitzen dugu? bakar-bakarrik eskatu, exijitu eta protesta egiten dugu «arduradunek» egin dezaten eta guri dena eginda eman diezaguten?.

Uste dut bakoitzak daukala ahalmena edo boterea gauzak aldatzeko. Norberaren erantzukizunari dei egiten diot.

Izan gaitzen bankari eta administratu ditzagun gure ondasunak kontzientziarekin. Izan gaitzen politiko eta gobernatu dezagun gure burua. Izan gaitzen mediku eta zaindu dezagun gure osasuna. Izan gaitzen enpresari eta egin dezagun gure lan pertsonala denondako aukerak sortuaz.

OHARRAK

ZAHARREN EGOITZA

Zabalik jarraitzen du herriko zaharren egoitzarako diru bilketak. Laguntzeko gertu daudenek bi kontu korronte dituzte: 3035 0044 82 0440028200 (Euskadiko Kutxa) eta 2101 0038 57 0012756144 (Kutxa).

ETXEBIZITZA TASATUAK

Santa Marina eta Gaztañadui-ko etxebizitza tasatuak zozkatzeko behin-behineko zerren-

dak gaur arte kontsulta daitezke, 13:00ak baino lehen.

UDAKO ORDUTEGIA

Uztail, abuztu eta irailean ordutegi berezia izango dute udaltxeko herritarrendako arreta zerbitzuan. Asteleheneetik egubakoitzera 10:00etatik 13:30era dago zabalik, eta, nahi izanez gero, 943 71 44 07 telefonoa eta udala@eskoriatza.net e-posta dute herritarrek eskura.

Audiencek 'Amerikanuak' ekarriko du bihar gurera

Gernikarren ikuskizunaz gain, Ain_1 taldeak 'Musika Kaxa' aurkeztuko du gaur Errekan Gora jaialdian

MIRIAN BITERI | ESKORIATZA

Errekan Gora jaialdiaren harira, hitzordu bikoitza dago asteburuan herrian. Bihar, zapatua, Audience Gernikako taldeak *Audience plays Amerikanuak* ikuskizun berria estreinatuko du. 22:30ean hasiko da emanaldia, Huheziko klaustroan.

Nacho Reig eta Gorka Bilbao zinemagileek gidatutako *Amerikanuak* dokumentalerako soinu bandan oinarritzen da proiektu berri hori. Audience film horrendako zuzenean sortutako 19 kantuek blues, rock eta folk doinuek oinarritzen dira. Dagoeneko ohikoak diren gitarra, biolin, piano eta steel gitarrari, aurretiaz grabatutako oinarri eta programazioak batu zaizkio disko horretan, taldearen lehen lan luzearen antzera, eta esperimentazioa errotan ditu erritmo tradizionalak.

Nevadara

Amerikako musikaren sustraiak eta aukera berriak bila Nevada joan ziren hainbat euskaldunen historia elkar lotzen dira ikuskizun horretan.

Diskoa Jose Lastrak grabatu du. Gaizka eta Ager Insunza, Hannot Mintegia, Andoni Lauzika eta Mikel Sagarnak osatutako boskotearen lehen diskoak grabatu zituen produktore berak.



Bihar izango dira gernikarrak, Huheziko klaustroan. | GOIENA

Hain justu ere, *Some Lovely Hands On Dry Skin* eta *Second Handed* izeneko lanak.

Ain_1, Azkoaga Enean

Esan bezala, Audience bihar izango da unibertsitateko klaustroan. Gaur gauean, ostera, Ain_1 boskoteak joko du Azkoaga Enea hotelean, 22:30ean. Arrasate, Bergara eta Gasteizko neskez osatutako taldea da hori; hain zuzen, Itsaso Navaridas, Amaia Pavon, Ainara Kortabarria, Maialen Madariaga eta Iraitz Agirrek osatutakoa.

Musika kaxa izeneko lana aurkeztuko dute. Proiektua ez zen musika talde soil moduan jaio, ikuskizunetik beharbada gehiago du musika taldetik baino. Dantza, ikus-entzunezkoak, poesia eta bestelakoak uztartzen dituzte osagai bezala saioetan. Boskoteak honakoa esan du *Musika Kaxa* emanaldiaren harira: "Ukitu intimista du gure lanak. Gure egunerokoari, herriari, auzoari eta gure baitako beldur, maitasun, gorroto, desio eta abarrei kantatzen diegu, errima eta doinu nahiko librean".



MIRIAN BITERI

Iruñean bezala ibili ziren atzo herriko umeak

Aste osoan askotariko jolasak egin ostean, atzo, uztailak 7, San Fermin eguna ospatu zuten udaleku irekietan parte hartzen dabiltzan umeek. Goizean, kartelak gertatzen eta entzierroak jarraitu beharreko ibilbidea zehazten ibili ziren, eta arratsaldean, azken hori egin zuten; jarraian, jolasak izan zituzten. Astelehenean hasi zituzten aurtengo udalekuak herrian; aurten 240 neska-mutiko inguru dabilta horietan.

Aldaketak herriko aparkalekuetan, hondakinen-bilketan eta autobusetan, jaiengatik

Ibilgailuak ezingo dira aparkatu herriko plazan, Buztinzurin eta Kalebarren 1en, uztaillaren 12tik 19ra bitartean. Hondakinen-bilketan ordua aldatuko da: uztaillaren 14an goizean atera beharko da organikoa; 15ean, 12:00etatik 14:00etara ontziak; 16an, 12:00etatik 14:00etara organikoa; eta 17an, 12:00etatik 14:00etara erre-fusa. Autobus guztiak, berriz, Antiguan geratuko dira.

Antzuolako bizikleta challengeko azken proba jokatu zen joan den domekan, San Martzialen

Azken proba jokatu, hauek izan dira puntu gehien lortutakoak: Aritz Kortabarria infantiletan; Iñigo Aranburu eta Jone Jauregi alebinetan; Danel Kortabarria eta June Legorburu benjaminetan; Jon Larrea eta Miren Legorburu aurrebenjaminetan; eta Alain Payne txikietan. San Martzialgo igoera Aritz Kortabarria irabazi zuen, 13 minutu eta 45 segundoko denbora eginda.

Giro ederra eta jende asko aurtengo San Martzial jaietan; 90 bat lagun izan ziren zapatuan afaltzen

Zapatuko tiro-plato lehiaketan Jose Luis Arregik irabazi zuen; antolatzaileen arabera maila handia egon zen. Bertso-afariak izan zuen arrakasta handia; 90 bat lagun batu ziren bertan. Lizarralde eta Muñoa bertsolariak saio ona egin zuten. Domekan jendez lepo egon zen San Martzial, eguerdi partean batez ere; txirrindulari igoera, meza eta dantzariak ikusten. Urdaiazpiko eta ardo botila zozketaren irabazlea ez da oraindik agertu. Hau izan zen zenbaki saritua: 230.

OHARRAK

ERRETIRATUEN BAZKARIA
Domekan, 14:00etan, urteroko bazkaria egingo dute eskolan herriko erretiratuek. Bazkalostean dantzaldia egongo da.

eta Oulettes de Gaubetik Petit Vignemalera ibilaldia egingo dute. Domekan Vignemal, Cerbillonar edo Pic de la Sadera joango dira.

PIRINIOETARA IRTEERA
Arrola Mendi Taldekoak Pirinioetara irteera egingo du aste bukaeran. Zapatuan goizeko 5:30ean elkartuko dira Olaranen. Zapatuan Pont Espagnetik irten

JAIETAKO HERRI-AFARIA
Jaietako zapatuan egingo den herri-afarirako txartelak erosteko azken eguna domeka, uztaillak 10, da. Arin, Mox eta Larrea tabernetan daude, 15 eurotan.



Batzarreko puntu bat bozkatzeko, martitzeneko bilkuran. | USOA AGIRRE

Batzorde berria egongo da Udalean: parte-hartzearena

Ohiko osoko bilkurak bi hilean behin egingo dituzte, hileko lehen martitzenean

USOA AGIRRE | ANTZUOLA
Atzo, martitzena, egin zen agintaldiko lehen osoko bilkura. Bertan erabaki zuten, besteak beste, osoko bilkurak bi hilean behin egitea, hileko lehen martitzenean, 18:00etan.

Batzorde informatzaile berria izango du oraingo agintaldiak: parte-hartzea. Herriarrek in lan egiteko batzordea izan nahi du horrek; erabakiak ere hartuko dira bertan, gaiaren arabera. Gainerako batzordeak eta batzordeburuak hauek izango dira: Ogasuna eta pertsonala, Mikel Jauregi; Hirigintza eta zerbitzuak, Iñaki Iartza; Kultura, Maddi Elortza; Kirola, Aritz Saidi; Hezkun-

tza, Inma Beristain; Gazteria, Aritz Saidi; Euskara, Inma Beristain; Osasuna eta gizarte-ongizatea, Nagore Dos Santos; Nekazaritza eta ingurugiroa, Santi Etxezarreta.

Alkatearen dedikazioa
Osokoan onartu zuten, alkateak 8 orduko lan-jarduna izango du egunero eta 1.300 euro neto kobratuko ditu.

Puntu honetan, EAJko Maria Eugenia Arrizabalagak galdetu zuen ea zergatik kobratu behar zuen oraingo alkateak aurrekoak baino gutxiago. Inma Beristainek erantzun zuen taldean hartu dituzten irizpideen arabera fin-

katu duela soldata hori eta "nahikoa duela". Gaineratu zuen gutxiago kobratu arren ez diola gutxiago dedikatuko herriari.

Bi lanpostu berri

Udalan bi lanpostu berri sortzea ere erabaki zuten. 2007ko apirillean obra buruak istripua izan zuen eta ordutik hutsik egon da postu hori. Bestetik, 2008an obra eta zerbitzuetako peoia hil egin zen eta postu hori ere hutsik dago harrezkeroztik. Hala, hirigintza-tik proposatu dute langileen profila aldatzea: bi langileen jerarkiak berdintsuak izango dira, baina bat elektrizitatean aditu izango da.

Puntu hau bozkatzeraoan PSE-EEko Carlos Urrestarazu abstenitu egin zen, bere ustez ez zuelako aurretik informazioa ondo jaso; dokumentuak euskaraz bakarrik bidali zizkiotelako. Hurrengoetarako dokumentazio guztia gaztelaniaz ere helaraziko zitzaioela esan zuten Udal Gobernuoek.

Jaien aurrekontua

Azkenik, jaien ohiko programa eta logistikarako aurrekontua onartu zen: 44.000 euro.

Nereia
Zorionak antzuolar guztioi!
659 57 50 97
Kalebarren 13 ANTZUOLA

Ile apaindegia
Edertze aretoa
Ondo pasatu Antzuolako jaietan!
Germaine de Capuccini produktuak
Laser bidezko depilazioa
Informa zaituzte!
Sagasti 1 • 943 78 71 37 • ANTZUOLA

DESKARGA AUTOAK
Jai zoriontsuak antzuolar guztioi!
Antigua auzoa z/g Antzuola.
Tel.: 943 76 62 75

Itzar
LIBURU DENDA ESTANKOA
JAI ZORIONTSUAK!
Kalebarren 1
ANTZUOLA
Tel. / Faxa: 943 76 60 62

martin okindegia
Jai zoriontsuak antzuolar guztioi!
Lantegia: Kalebarren 4
Saltokia: Herriko plaza
943 76 64 35



Asteleheneko koadrilen arteko pikeak belaunaldi ezberdinetako gazteak batu zituen. | IMANOL GALLEGO



Taldeko lana ezinbestekoa izan zen proba ezberdinak gainditu ahal izateko. | I.G.

"Eskerrik asko, parte hartu duzuen guztioi, gure jaiak herrikoigoak egin dituzue"

Udalaren balorazioa, "oso ona"; lehen eguna jendetsuena izan zen eta azkena, berriz, herrikoiena

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

Astelehenean amaitu ziren San Martin jaiak. Bada, ajea gainditzeko tarte larregi barik eta balorazio orokorra egiteke oraindik, udal gobernu berriari jaiak nola joan diren galdetu diogu: "Balorazio oso ona egiten dugu. Orokorrean ekintzetan jende askotxok hartu du parte, eta adin guztiendako eta denetariko gustuendako ekintzak egon dira. Aramaioarrez aparte, hurbildu da jendea, batez ere egubakoitzeko kontzertuetan. Gainera, domekan familia arteko bazkariak egon ziren eta Aramaion familia duen jende asko etorri zen". Parte-hartzean oinarritutako ekintzak nabarmendu ditu Udalak,

"herritarrek herritarrendako egindakoak", hain zuzen.

Ekintzon arrakastaren atzean dauden talde, elkarte eta norbanakoei "eskerrrik beroenak" eman gura die Udalak: "Eskerrik asko

ekintzak antolatu edota bertan parte hartu duten talde eta pertsona guztiei, gure jaiak herrikoigoak egin dituzue". Itzal bakarra, arazo teknikoengatik domekako Iparraldeko herri

kirolak bertan behera geratu izana.

Egubakoitzean kanpotar asko

Egun jendetsuena egubakoitza izan zen, jaietako lehen eguna.



Plazako herri afarian 130 lagun batu ziren mahaiaren bueltan. | AINARA INUNZUAGA

Gaueko kontzertuek –Anai-arrebak, Sorkun eta Zea Mays– kanpoko jende asko erakarri zuen. Bestalde, azken eguna, astelehena, izan zen egunik herrikoiena: "Goizean ume askotxo etorri ziren jolasetara eta arratsaldeko koadrilen arteko pikean, parte hartzaile eta ikusleen artean jende asko elkartu ginen. Amaitzeko, 130 pertsonarendako herri afariarekin borobildu genuen eguna", jakinarazi du Lierni Altuna alkatordeak. Herritar batzuk txartel barik ere geratu ziren.

Deabru Beltzak, "oso polita"

Nobedadeen artean domeka gaueko Deabru Beltzak taldearen kale antzerkia nabarmendu du Udalak: "Argiak itzalita, su artifizialekin eta musikarekin lagunduta, oso polita eta interesgarria izan zen". Azkenik, aurreko udal gobernuaren "ezinbesteko laguntza" ere azpimarratu gura izan du talde berriak: "Aurreko korporazioak dena antolatuta utzi zuen eta guk egitaraua ahalik eta ondoen irreteko ahalegina egin dugu".

Bertso afaria egingo dute gaur udaletxeko arkupeetan (21:30)

Udalaren jaietako egitarauaren barruan dago gaur Herriko plazan egingo den bertso afaria. Bertsolarien artean, izen handiak eta herriko ordezkariak: Sebastian Lizaso eta Aitor Mendiluze eta Xabier Igoa, hain zuzen. Iker Zubeldia egin behar zuen bertsoan baina ezin duenez, Mendiluzek hartuko du haren lekua. Afaria 21:30ean hasiko da.

Pilota izango da protagonista domekan, goizean zein gauean

Domekan pilota partiduak izango dira. 10:30ean Aramaio-ko pilota eskolako umeen arteko lagunarteko partiduak jokatu dira eta tartean Ander Axpe egongo da. Binakako gazte mailako lehiak ere jokatu dira. 21:30ean, berriz, infantilen partidu bat. Eta gero, helduen arteko Arabako II. irekia jokatu da.

Murugaingo indusketak nola egin eta hedatuko diren aurkeztu zuten eguazteneko aurkezpenean

Etor Telleria arkeologoaren arabera, asteen hasitako indusketek "lan erritmo ona" daramate

J.B. | ARAMAIO

Ondare Babesa enpresako Etor Telleria arkeologoak gidatuta, asteen hasi dituzten Murugaingo indusketa lanak aurkeztu zituzten eguaztenean Sastiñan. Bi proiektu daude mahai gainean: Burdin aroko herriaren azterketa aurkitzea batetik, eta 36ko gerrako trintxeren azterketa azaleratzea bestetik.

Egitarau berezia prestatu dute uztaileko, herritarren parte-hartzea eta inplikazioa sustatzeko: uztailearen 17an eta 24an trintxerak lokalizatu eta trintxeren mapa egingo dute auzolanean, eta hilaren 31n, berriz, indusketen gunera bisita gidatua egingo dute Etor Telleriarekin. Hori bai, argi utzi gura izan dute azterketa-eremua zehazteko lehen

fasean arkeologo profesionalak arituko direla indusketetan: "Kontu handiz egin beharreko lana da, izan ere, ondarea gal daiteke ez bada ondo lan egiten".

Dokumentazioa eta zabaltzea

Indusketa lanak faseka egingo dituzte; astelehenean hasi ziren indusketekin. Telleriaren arabera, "lan erritmo ona" daramate: "Lana ondo bideratuta dagoela uste dugu eta eremua zehazteko hilabete osoa dugu aurretik". Indusketekin batera dokumentazio lana ere izango dute oinarri, eta azkenik, zabalkunde lana ere egingo da: "Proiektu ireki bat izatea nahi dugu, jendearen parte-hartzea bultzatuko duena eta jendearendako izango dena", azaldu zuen Telleriak.



AOBT taldeko Alex Mendikute eta Etor Telleria, aurkezpenean. | JOKIN BEREZIARTUA

ELGETA

"Ferixa Nagusiko jaietan festa giroa izan da nagusi"

Alkatearen ustez, programan sartutako aldaketek harrera ona izan dute herritarren artean

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Amaitu dira 2011ko Ferixa Nagusiko jaiak eta balorazio positiboa egin du Oxel Erostarbe alkateak. "Jai giro polita egon da eta egue-neko Mozorro Eguna eta zapatuko Herri Eguna nabarmenduko nituzke", adierazi du. "Oihana Kortazarri egindako omenaldia polita izan zen eta jaioberriei lehenengo aldiz egindako ongi-erri ekitaldiak erantzun ona izan du, izan ere, osoko bilkuren aretoa beteta zegoen. Zapatu gauean, berriz, Egan taldeak bete egin zuen Herriko plaza. Urteak dira horrelakorik ikusten ez genuela". Alkateak uste du umeendako barikuan prestatutako jolasak arrakasta izan zutela, eta erretiratuen bazkaria guztiz finkatuta dagoela jaien egitarauan. Kezka bat azaldu du Erostarbek: "Gaupaseroek arazo bat edo beste sortu zuten bariku goizean umeendako puzgarriak eta igerilekua ipintzen ari zirela". Horrelakorik berriz ez gertatzea nahiko luke.



Herritar taldea Herri Eguneko bazkarian topa egiten. | LARRAITZ ZEBERIO

Txapelketak eta sariak

Jaiotan hainbat lehiaketa egin dira. Asto karreran Mikel Bertainaga nagusitu da beste behin. Bolo txapelketan 26 lagunek hartu zuten parte eta Gaizka Bolinaga izan zen garailea sei txirlo jota. Intxortako Lehoiek zozketatutako saria, berriz, Mikel Mandaluniz Realzale sutsuak eraman zuen.

Jaiak Goiena telebistan

Gaur, barikuan, 22:15ean eman go du Goiena telebistak Elgetako jaien gaineko erreportajea. Aste bukaeran zehar errepikapenak ere egongo dira; zapatuan 10:00etan, 16:45ean eta 21:00etan; eta domekan 14:00etan eta 22:30ean. Mozorro Eguna, ongi-erria jai berriei, asto karrera, paella jana, feria... ikusiko dira.

Atzo entzierroa eta gaur ur jolasak

Bi entzierro egin zituzten atzo, eguna, udalekuekateko umeek. Txikienek Salbador kalean egin zuten lasterka eta nagusiek, San Roke kalean. Hitzordu finkoa dugu dagoeneko umeen entzierroa. Ondoren, antzerki ikuskizun txiki bat eskaini zuten umeek. Gaurko, barikua, ur jolasak iragarri dituzte udalekuekateko hezitzaileek.



LEINTZ GATZAGA

Umeen Eguna ospatuko du Gurelek bihar, egun osoko ekitaldiak eginda

MIRARI ALTUBE | LEINTZ GATZAGA

Umeei eskaini eta familia giroan ospatzeko eguna antolatu du Gurelek biharko. Hala, jolasak eta jai giroa izango dira nagusi Gatzagako kale eta bazterretan. Eta herriko umeak izan arren protagonistak, kanpoko familiei zabalik dagoen jai delako iragarri dute antolatzaileek.

Gatzagako umeek egingo dute ongi-erria (11:30), eta esker bertsoa abestuko diete kanpotik datozen guztiei.

Ondoren, bisita gidatua egingo dute herrian (12:00). Bien bitartean, bisitara ez doazen umeendako jolasak egingo dituzte plaza inguruan; eta gero, guztiak elkarrekin, gatz museorantz

abiatuko dira. *Altxorraren bila* jolasa izango dute lagun, eta ibilbidean jarritako pistak topatuz iritsiko dira museoraino.

Dorletako santutegira

Museoa ikusi ostean, berriro ere pistei jarraituta Dorletako santutegi ingurura joko dute. Dorletako parajeak erakutsi eta argibideak emango dituzte helduendako, eta jolasak egin, umeendako. Dorletan mokadutxoia eta edariak jarriko dituzte salgai, bazkalaurreko zuloa betetzeko.

Gero pistei jarraituta herriraino itzuliko dira, bertan altxorra hartzeko.

Buruhandiak eta trikitalariak izango dituzte lagun bazkaltzera joan arte (14:30). Bazkalostean zozketak eta karaokea egingo dituzte, eta Gatzagako gatzarekin egindako bonboiak eta galletak jarriko dituzte salgai, Gurel elkar-tearendako dirua batzeko asmoarekin.

Lehenengoz antolatutako Umeen Eguna bukatzeko antzez-lana izango dute (18:00).

Marcelino Usabiaga: "Bada garaia egia osoa kontatzeko"

L.Z. | ELGETA

Testigantza liburua da Aitor Azurkiren *Maizales bajo la lluvia*, eta, horregatik, eguazteneko ekitaldian Marcelino Usabiaga izan zen protagonista Espaloian. 95 urte bete izanagatik ondo baino hobeto gogoratzen ditu gerra eta ondotik etorri zen diktadura. "Jendeak gertatutakoaren berri izan behar du", adierazten du. "Azurkik primerako lana egin du. Oso garrantzitsua deritzot, izan ere jendea-ri egia osoa kontatu behar zaio behingoz. Urteetan, egia erdiak baino ez dira kontatu hemen". Usabiagak 19 urte zituen faxisten altxamendua gertatu zenean eta jaioterrian, Irunen, hartu zuen fusila lehen aldiz. Hortik

aurrera gertatutakoak pelikula batean jasotzeko modukoak dira. Zalantza barik, badu zer kontatu!

Gerrako galtzaileak

Usabiagaren testigantza eta beste hamar gudarirenak jasotzen ditu Alberdania argitaletxearen zigilupean Azurkik sinatzen duen liburua. "Gerrako galtzaileen historia da; gelditzen diren azken gudari horiena. Urteetan isilduak izan dira eta kontatzeko gogoz daude". Testigantza eman duten gudarien artean abertzaleak, sozialistak, anarkistak eta komunistak daude. Aurkezpen ekitaldian ekarritako liburua guztiak saldu zituen Azurkik.



Aitor Azurki, Marcelino Usabiaga eta Jesus Gutierrez Espaloian. | L.Z.

Binakako paleta goma txapelketa egingo dute irailetik aurrera

Pilotarekin lotutako herri mailako txapelketek harrera ona dute Elgetan azkenaldian, eta irailetik aurrera binakako paleta goma txapelketa antolatzeke asmoa agertu du herritar talde batek.

Txapelketa irail hasieran jarriko dute martxan, eta, azaldu dutenez, norgehiagokak barikuetan eta domeka goizetan jokatzeko da asmoa.

Parte hartzeko interesa dutenek jakin behar dute izen-ematea dagoeneko zabalik dagoela Espaloia kafe antzokian eta abuztuaren 26a dela azken eguna. Prezioa, biko-teko, 20 euro da.

Batzordeak banatzea adostu dute hiru alderdi politikoek

Aurreko agintaldian baino bi batzorde gutxiagorekin abiatuko da agintaldi berria Elgetan. Udaletxean ordezkaritza politikoa duten hiru alderdiek batzordeak banatzea adostu dute. Hala, Aralar-Independenteak taldeak lau batzorde hartuko ditu, Bilduk bi eta EAJK bat.

Jaiak direla-eta, luze jo dute negoziazioek eta astelehenean, uztailaren 11n, 20:00etan egingo dute batzordeburuak osatzeko bilkura. Udalak erakunde ezberdinetan izango dituen ordezkariek eta alkatearen eta zinegotzien soldatak zehaztuko dituzte.

Federatutako pilotariak jokatzeko dute domekan

Dorletako pilota txapelketako azken partiduak jokatzeko dituzte datozen hiru asteotan. Domekan, hilaren 10ean, 15. jardunaldiari dagozkionak izango dira; federatuenak, hain zuzen. Sei partidu jokatuko dituzte (09:30): gazteen mailako partidu bi; haurren mailako beste bi; eta helduen mailako beste bi.

TELEBISTA



Telebistaren irabazlea uztailearen 18an jakinaraziko dugu.

16"-ko LCD telebista

- TDT integratua.
- PCrako konexioa.
- HDMI.
- USB 2.0.



EUSKALTELEKO KAMISETAK



Kamiseten irabazleak uztailearen 11n jakinaraziko ditugu.



Bazkide egiteko

Tel.: 943 25 05 05
e-postaz: kluba@goiena.com
www.goienakluba.com
Urteko kuota: 48€



goienakluba
Abantailaz betetako kluba!

TXIRRINDULARITZA

Lehendakari txapelketako bosgarrena Antzuolan domekan

Iñaki Lete memorialak amateur mailako ziklista onenak batuko ditu

XABIER URTZELAI | ANTZUOLA

Domekan, 09:30ean hasita, Lehendakari txapelketako bosgarren proba puntuagarria egingo dute, Antzuolako 66. saria -Iñaki Lete memoria- . Hala, lasterkariak 130 kilometroko proba izango dute aurretik, eta, tartean, mendiko sarirako bi tarte puntuagarri: Deskarga eta Aseztio.

Domekako lasterketan, baina, proba hori ondo ezagutzen duten ziklistei gutxirako balioko die orain arteko erreferentziak, 110 kilometroan, urtero moduan, Aseztio igoko duten arren Antzuolara bidea ez dute eta Elgetatik egingo, Kanpanzartik baizik. Hala, lasterketak ohi baino bost kilometro gehiago izango ditu, baina ez dago garbi horrek zelan eragingo duen proban.

Azken urteotan, ihesaldietan

Antzuolako helmugara tropela erabat hautsita iritsi ohi da. Hala ere gertatu da, besteak beste, azken bi urteotan. 2010ean Naturgas taldeko Pello Bilbao izan zen azkarrena, eta iaz Omar Fraile (seguros Bilbao) aurretik izan behar zuen urte onaren lehen pistak erakusten hasi zen, helmugara bakar-bakarrik iritsita,




Omar Fraile, iaz, Antzulako helmugan; Orbearekin fitxatu du aurretik. | J.A.

tarte politarekin, gainera.

Horretarako, 72 kilometroan Deskargak lehen selekzioa egin ohi du, baina Aseztiooko maldak erabakigarriak izaten dira; onenak baino ez dira geratzen hor, taldekideen babesetik urrun. Elgetatik Antzuolarako tarte bakarrik egitea nekeza da, baina nekezagoa izango da, domekan, bide hori Kanpanzartik egin behar badute.

Kanpanzarreraino, Aseztio lehen aigo duenak indartsu badago tarte eskuratu ahal izango du, baina, hortik aurrera, helmugaraino 14 kilometro geratuko dira, eta aproposak dira atzean taldea sortu eta ihes eginda doazenak harrapatzeko. Etzi, ziklistek 12:50 inguruan argituko dituzte zalan-tza horiek guztiak.



Velasco, lurrean, Izagirre taldekidea ondoan duela. | ROBERTO BETTINI

TXIRRINDULARITZA

Iban Velasco etxean da, 5. etapan jausi eta lepauztaia hautsita

X.U. | ARRASATE

Bosgarren etapa amaitzeko 15 kilometro falta zirela jausi zen Iban Velasco arrasatearra (Euskaltel-Euskadi). Eroriko ugari izan ziren, eta zorte txarrean Markel Irizar oñatiarraren taldekide -eta gelakide- Brajkoviccek (RadioShack) eta Velascok berak izan zuten.

Itxura txarra, hasieratik

Bada, Tourreko medikuak segituan igarri zuen eskuineko lepauztaia hautsita zuela. Hala ere, Velascok bizikleta gainean jarri eta etapa amaitu zuen, ahal izan zuen moduan. Horren ostean, Dinan-go ospitalera eraman zuten

eta han baieztatu zioten lepauztaia hautsita zuela. Atzo, eguna, bueltatu zen Arrasatera. Hala, debagoiendar bakarra geratzen da orain Tourrean, Irizar oñatiarra.

Tourrera bidaia

Bestalde, Tourrera joateko irteera antolatu dute Irizarren, Garmendiaren eta Odriozolaren lagunartek. Nagusiek 130 euro ordaindu beharko dituzte eta 12 urtetik beherakoek, 75 euro. Prezio horren barruan daude autobusa, jatekoak eta edatekoak. Lo egiteko, berriz, kanpin denda eraman beharko du norberak. Gaur, egubakoitza, da izena emateko azken eguna.

ATLETISMOA

Debagoieneko atletak Valentzian izango dira, Espainiako txapelketan

Gazte mailan Xativan (Valentzia) egingo dituzten Espainiako txapelketan egoteko gutxieneko markak lortu dituzte Maialen Axpek, Eukene Dorronsorok eta Iñigo Uribarrenek.

Maialen Axpek pertika saltoa egingo du eta Eukene Dorronsoro 100 metroko eta 200 metroko lasterketan lehiatuko da. Azkenik, Iñigo Uribarrenek salto hirukoitzean jardungo du. Hirurak marka pertsonala ontzeko asmoz doaz, podiumaren bila.

SQUASHA

Debagoieneko squash txapelketa uztailearen 16an egingo dute

Datorren astebururako antolatu du AKE taldeak Debagoieneko squash txapelketa, eta dagoeneko zabalik dago izen-emate epea. Horretarako, deitu telefono zenbaki honetara, 656 73 60 17, edo idatzi iuribetxebe@akesquash.com helbidera. Txapelketaren helburua squash ibarrean zabaltzea da; hala, lagunartean egingo duten txapelketan jokatzeko ez da beharrezkoa federatuta egotea. Uztailearen 11 da izena emateko azken eguna.

TXIRRINDULARITZA

Mikel Aristi Europako txapelketan izango da, Italian, uztail erdian

Espainiako hautatzaileak aukeratutako sei ziklisten artean dago Bergarakoa

XABIER URTZELAI | BERGARA

Gazte mailako bigarren urtea du Mikel Aristik, eta belaunean izandako lesiotik errekueratuta, maila ezin hobean dabil Bergarakoa. Gipuzkoako Itzulia irabazi berri, udan jaso zezakeen albiste onena jaso du: Italian izango da uztailaren 14tik 17ra, han korrituko duten Europako Txapelketan.

Txapelketa Italiako Offida herrian egingo dute, Adriatiko itsasotik oso gertu, Ascoli Piceno probintzian. Gazte mailan iraupen proban arituko da Aristi, uztailaren 16an. Mikel izango da gazte mailan izango den euskal ordezkari bakarra, nahiz eta beste kategoria batzuetan egongo den ziklista euskaldunik.



Aristik Sumoficeko mailota Markinakoagatik aldatuko du egunotan. | X.U.

Aukeratuen artean

Gipuzkoako Itzulia irabazi ostean Sumofic-Lokatzaokoek bazekiten Europako Txapelketara joateko aukerak izango zituela Aristik. Baita berak ere, nahiz eta zaila izan. "Esperantza baino ilusioa daukat, baina oso zaila izango da, sei ziklistendako lekua baino ez delako egongo". Bada, sei lagun horietako bat izango da Bergarakoa.

Gazteek egin beharko duten ibilbideak 124,2 kilometro izango ditu, 13,8 kilometroko zirkuitu gogor bati bederatzi itzuli eman beharko dizkiete. "Ibilbidean 2,5 kilometroko eta %7ko malda duen aldapa izango dute, eta horretaz gain, helmugako azken kilometroa ere maldan gora izango dute, beraz, esijentzia maila altua eska-

tuko du Europako txapelketak", adierazi dute Sumoficeko ordezkariak.

Europako Txapelketara begira, pedal kolpe ona izateko Aristi atzoz geroztik Bizkaiko itzulia korritutzen dabil, Markinako taldean utzita. Domekara arte egongo da Bizkaiko Itzulia korritzen.

SASKIBALOA

Sustrai Aloña Mendik gaur, egubakoitza, aurkeztuko du EBA ligarako izango duen proiektua

Sustrai Aloña Mendiko zuzendaritza gogor ibili da lanean irailean talde oñatiarra EBA kategorian ikusi ahal izateko, eta lan horren fruituak gaur, egubakoitza, aurkeztuko dituzte, 19:30ean kultura etxean. Aurkezpenean, besteak beste, liga berrian jokatu ahal izateko oñatiarrek egindako lau fitxaketak aurkeztuko dituzte, eta tartean egongo da Gorka Kintana arrasatearra, MUTik datorren jokalaria eta liga hori ondo ezagutzen duena, Iraurgin jokatzeko ibili zen-eta, ibarreko beste ordezkari batekin batera, Gorka Alartziarekin batera. Kirol proiektua bera ere aurkeztuko dute.

FUTBOLA

Antolatzaileak hasi dira 24 orduko Zaldibarko txapelketan parte hartzeko izenak hartzen

Datorren asteburuan, uztailaren 16an, egingo dute Zaldibarko 24 orduko areto futbol txapelketa, baina antolatzaileak hasi dira izenak hartzen. Txapelketan jokatu ahal izateko talde bakoitzak 50 euro ordaindu beharko ditu, eta izena emateko 634 44 75 92 telefono zenbakira deitu behar da. Informazio gehiago: zaldibarkofutbitotxapelketa.com



2009ko edizioko irudia. | ARTXIBOA

PILOTA

Dorletako pilota txapelketa barruan, oraingo domekan pilotari federatuen txanda izango da, 09:30ean hasita

Guztira sei partidu jokatu dituzte Gatzagan: lehenengo, gazte mailako Urrutia-Urzelai (Arrasate) eta Arregi-Prieto (Arrasate); bigarrenean Arabaolaza-Etxagibel (Arrasate) eta Barandiaran-Aizpuru (Gatzaga); Hirugarrenean infantiletako Moron-Egia (Arrasate) eta Garate-Gardoki (Arrasate-Aramaio); laugarrenean Murua-Iturriotz (Arrasate) eta Urtaz-Azpitarte (Elorrio); bosgarrenean Uriarte-Mondragon (Arrasate) eta Oiarzabal-Zubizarreta (Eskoriatza); eta seigarrenean Lazkano-Bolinaga (Arrasate) eta Urrutia-Zubizarreta (Eskoriatza).

GOI-MAILAKO HEZIKETA ZIKLOEN ESKAINTZA 2011-2012

MGEP

MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

Tituluak

- Erregulazio eta Kontrol Sistema Automatikoak.
- Sareko Informatika Sistemen Administrazioa.
- Fabrikazio Mekanikoko Diseinua.
- Fabrikazio Mekanikoko Produkzioaren Programazioa
- Industri Ekipoaren Mantenimendua.



BERRIA

Eta hurrengo ikasturtean, gainera...

Matrikula zabalik!!!


943 71 21 91

www.mondragon.edu/gep

SISTEMA ELEKTROTEKNIKOAK ETA AUTOMATIZATUAK

- Edukiak:
- Elektrizitatea eta elektronika
 - Domotika eta automatizazioa
 - Energia berriztagarriak
 - Telekomunikaziorako azpiegitura komunak

Debagoieneko GREMIOAK



AROTZEGIAK

AZKARATE AROZTEGIA

Bergara

- Ateak, leihoak, horma-armairuak, tarimak, parket flotatzailak, sukaldeak
- K-21

Telleria 19 B02-B03

T: 943 76 47 19 / 610 88 40 20

www.goiena.net/blogak/azkarate

ELEKTRIZITATEA

AITZORROTZ ELEKTRONIKA

Aretxabaleta

- Telebista, audio eta bideoa
Salmenta eta konponketa
- Instalazio elektrikoak
- Atezain automatikoak
- Antena kolektiboak

Otalora 14

T: 943 79 16 10

F: 943 79 16 10

ARANZABAL KOOP. E.

Arrasate

- Instalazio elektrikoak
- Antena kolektiboak

Zerkaosteta 15

T: 943 79 68 21 / 670 57 53 83

F: 943 79 68 21

ERAIKUNTZAK

ARRASATE ERAIKUNTZAK SL

Arrasate

Meatzerreka auzoa

T: 943 77 12 26 / 659 67 17 59

e.arrasate@euskalnet.net

FRIXI ERAIKUNTZAK

Eskoriatza

- Hormigoizko estrukturak eta urbanizazioak
- Kontratak
- Enpresen mantentze-lanak

Intxartxueta 5

T: 943 71 55 15 / 629 51 39 22

F: 943 71 55 15

ITURGINTZA

EGIA ITURGINTZA

Arrasate

Gipuzkoa etorbidea 39, behea

T: 943 77 01 85

OYANGUREN ITURGINTZA

Eskoriatza

- Iturgintza eta gasa
- Berogailuak eta petrolio-produktuak
- Klimatizazioa

Aranburuzabala 15

T: 943 71 47 14 / 606 00 73 69

f.oyanguren@ctv.es

URKO MANTENIMIENTO SL

Aretxabaleta

- Instalazioen mantentze-lan guztiak
- Berokuntza eta gasa
- Aire girotua eta haizeztatzea

Basabe industrialdea B-3

T: 943 77 19 88

F: 943 79 59 97

LEIHOAK

ARGI-PLASTIK

Arrasate

Zigarrola kalea 1, 8 pab

Tel.: 943 77 11 30

<http://merkatua.net/argiplastik>

ION LEIHOAK

Arrasate

Debagoiena Industrialdea 11.Pab

Tel.: 943 79 11 35

F: 943 773 120

<http://www.ventaion.com>

LOREZAINZTA

MAKAI KOOP. ELKARTEA

Aretxabaleta

- Barruko zein kanpoko lorezaintza
- Ureztatze sistemak
- Loreontzi-euskarriak eta balkonerak

Basabe poligonoa D-2-1

Tel.: 943 79 78 45 / 616 96 57 98

F: 943 79 78 45

MARGOAK

APAIN MARGO ETA APAINKETA

Arrasate

- Pintura orokorrean
- Pareztatzeak
- Errotulazioa

Maitena 3-1.

Tel.: 943 79 61 56 / 689 04 91 17

KULTURA

Dantza garaikidea, karrikara

- ▶ Kukaik 'Karrikan' dantza saioa eskaini du Herriko Plazan, 20:00etan
- ▶ Maiatzaren 13an estreinatu zuten ikuskizuna Leioako Umore Azokan

ARANTZAZU EZKIBEL | ARRASATE

Leioako Umore Azokan euskal ikuskizunik onenaren saria jaso duen *Karrikan* dantza ikuskizuna eskainiko dute gaur, Herriko Plazan, Kukai dantza taldeko kideek.

Jon Maya zuzendaria eta dantzaria da. Ikuskizun "berezia" dela azaldu du. Parte hartuko dute sei dantzarik eta DJ batek, eta kalean bertan eskaintzeko sortutako ikuskizuna da. Horregatik, oso sinplea izango da: "Baliabide tekniko gutxienarekin egiten saiatzen gara. Ez dugu agertokirik erabiltzen, lurrean egiten dugu dantza eta musikari baten laguntza izaten dugu".

Hiru koreografo talderen lana

Hiru koreografo taldek parte hartu dute dantza ikuskizuna prestatzen: Damian Muñoz eta Virginia Gartzia, alde batetik; Iker Gomez izan da bigarren koreografoa; eta Pantxika Telleria bestea. "Ikuskizun honek hiru

FITXA	
DANTZA IKUSKIZUNA	
'KARRIKAN'	
Zuzendaria: Jon Maya.	
Koreografoak: Damian Muñoz eta Virginia Gartzia, Iker Gomez eta Pantxika Telleria.	
Dantzariak: Alain Maya, Eneko Gil, Ibon Huarte, Jon Maya, Nerea Vesga eta Urko Mitxelena.	
DJa: Zigor Lanpre.	

zati ezberdin ditu, zati horietako bakoitza landu dugu koreografo batekin. Hirurak euskal koreografoak dira, baina Euskal Herri-kanpo jarduten dutenak lanean", azaldu du Mayak. Koreografia bakoitza 20 minutu ingurukoa izango da: "Zati bakoitzak zerikusia dauka euskal tradizio-ko gai batekin, baina, betiere, tratatuta dago hiru koreografo garaikide hauen begiradatik".

Musikak batuko ditu zatiak

Zigor Lanpre DJa ibiliko da zuzenean musika jartzen. "Alde batetik, ikuskizunari osotasuna ematen dio; hiru zatiko ikuskizuna da, baina bere presentziak osotasuna eta lotura ematen dio. Gainera, pieza bakoitza girotu egiten du. Batzuetan oso giro jakina emanez eta beste batzuetan gauza askoz ere adierazgarriagoak esanez", dio Mayak.

Kalean dantza egiteak zer berezitasun daukan galdetuta, Mayak dio interesgarria eta polita dela: "Kalean edo aretoan dantza egin, alde handia dago. Biak dira interesgarriak eta politak, baina, era berean, oso ezberdina da. Antzoki baten iluntasuna dago, argia, publikoa non dagoen bada-kizu, zu ere babestua zaude... Kalean, berriz, oso espontaneo izan daiteke dena, jendea mugitu egiten da, telefonoa, zaratak... Era berean, kaleko ikuskizunetan hartu emana zuzenagoa izaten da", azaldu du Mayak.



JON MAYA
DANTZARIA

"Zaletasuna zena lanbide bilakatu da"

Txikitari hasi zen Jon Maya dantzan; denborarekin, zaletasuna ofizio bilakatu du. Dantzak eskaintzen diona azaldu digu.

Nola ikusten duzu dantzaren egoera Euskal Herrian?

Kexarik ez daukat lanean gaudelako eta egiten ditugun ikuskizunek erantzun ona dutelako. Baina, betiere, dantzaren abiapuntua beste arte jarduera askorekin alderatuta baxuagoa izaten da. Hala ere, uste dut pixkanaka bidea egiten ari garela.

Zer dauka dantzak zure denboraren zati handiena eskaintzeko?

Egia da egunaren parte handiena dantzari ematen diodala. Zalaletasun bezala hasi zena lanbide bihurtzen joan da eta uste dut dantzaren munduan dagoen mugimendu guztia dela erakartzen nauena.



Kukai dantza taldeak dantza tradizionalen oinarritutako dantza garaikidea egiten du.



Alex Caporuscio da taldeko arima; Londresen jaio zen, 1973an. | GAZTELUPEKO HOTSAK

Ahots eta gitarra doinu bereziak gaua girotzeko

Alex Caporuscio Band taldeak Espoioa girotuko du, 22:00etan hasita

ARANTZAZU EZKIBEL | BERGARA

Bermuga musika egitarauak bigarren emanaldia izango du gaur. Madriletik etorrita kontzertua eskainiko du Alex Caporuscio Band taldeak Espoioan, 22:00etan.

Albert Collins, Johnny Winter eta Stevie Ray Vaughan bezalako maisuek hasitako bidea jarraitu du Caporusciok. 1991n blues taldea sortu zuen Italian. Ondoren, 1995ean, Madrilera joan zen.

Euskal Herriko lehen grabazioa

Blues eta rock doinuak lantzen dituen taldeak maiatzean argitaratu zuen lehenengo lana Gaztelupeko Hotsak diskoetxearekin. Hamar abestik osatzen dute lehen lan hori; abestien oinarria gitarra doinuak eta abeslariaren ahots

bereizgarria dira. Blues lasaia, alde batetik, eta rock indartsua, bestetik, denetik du diskoak; baita country eta jazz ukituak ere. Caporuscio da taldeko ahotsa eta gitarra-jolea; Javier Vacasek baxu

Collins, Winter eta Vaughan bezalako maisuak jarraitzen ditu Caporusciok

Bigarren diskoa grabatzen dabilta Grooveyard etxearekin

elektrikoa jotzen du eta Antonio Pax Alvarezek bateria.

Dagoeneko bigarren diskoa gertatzen dabilta taldekideak. AEBetako Grooveyard diskoetxe ospetsuarekin aterako dute diskoa, aurten bertan.

Uztailleko kontzertuak

Bermugaren asmoa musika beltza herritarren eskura jartzea da. Hala, uztailleko egubakoitz gutxietan egongo dira kontzertuak Espoioan. Hilaren 15ean, Badajoz eta Portugalgo Nao taldeak bossa doinuak ekarriko ditu; eta uztailaren 22an, Rico McLarrin & Marcos Coll Band taldearen blues, funk eta soul doinuak. Kontzertuak 22:00etan izango dira, Espoioan. Abuztuan, ostera, egubakoitzetan beharrenez eguaztenetan izango dira saioak.

Abesti sinple eta azkarrek hartuko dute Antton taberna Oñatin

A.E. | OÑATI

Ezin deskriba daitekeen eta era berean hutsik egin ezin den kontzertu horietako bat izango da gaur Gora Gora Kids taldeak Oñatiko Antton tabernan eskainiko duena, 20:15ean.

Donostia, Andoain, Iruñea eta Oñatiko kideek osatzen dute taldea. Hain zuzen, bateria-jolea da oñatiarra, Arkaitz Villar.

'Uaouh, Miauh & yeah!'

Musikari haize freskoa eman dio Gora Gora Kids taldeak. Doinu sinple eta azkarrak erabiltzen dituzte ikusleak erakartzeko, eta zuzenak eta gertukoak diren mezuek hasieratik harapatzen dute. *Uaouh, Miauh & yeah!* maketa 2010ean kaleratu zuten. Hain zuzen, lan hori eskainiko dute gaur Antton tabernan; hala ere, beste abes-

ti batzuk ere eskainiko dituzte. Taldearen arima islatzen du lehen maketa honek, jolas arima. Maketaren izenburuak bat-batekotasuna mantentzen du, taldearen abestiek eta arimak bezala.

Bigarren lana laster kalean

Bigarren lanarekin buru-belarri lanean dihardute taldekideek eta asmoa da azaroan argitaratzea. Biniloan aterako dute lan hori. Euren asmoa urtero zerbait grabatzea da.

Euskaraz, gaztelaniaz, ingelesez eta frantsesez abesten dute. Euskaldunak diren arren beste hizkuntza batzuk ere erabiltzen dituztela eta euren bizitzan eragina dutela diote taldekideek. Garage doinuak eta surf ukituak ditu Gora Gora Kids taldearen musikak.



Gora Gora Kids taldea Beragarako Gaztetxean. | GOIENA

Funkia eta jazz entzungai Aramaioko Iturrieta sagardotegian, bihar

Readyfussion talde gasteiztarrak kontzertua eskainiko du bihar, zapatua, 19:00etan

A.E. | ARAMAIO

Iturrieta sagardotegian beste behin ere musikaz gozatzeko aukera paregabea egongo da. Zapatu arratsaldean, funk eta jazz doinuak eskainiko ditu Readyfussion talde gasteiztarrak. Lau lagunek osatzen dute taldea: Alfonso Aranguren, bateria; Andres Garrido, baxua; Kepa Martinez de Albeniz, teklatura; eta Jorge Sotres, gitarra.

Talde berria da

Aurten bertan sortutako taldea da Readyfussion. Lan berria estreinatuko dute, eta euren sare sozialetan adierazi dute "estreinaldi mundiala" izango dela. Bada, taldea berria izan

arren, eskarmentu handiko musikariak dira laurak. Euren helburua gustuko duten musika zabaltzea da. Egiten duten musika mota zehaztea oso zaila da, baina jazz-fussion kategorian koka dezakegu: funk, blues, latindar musika eta soul ukituekin.

Bihar, Iturrietan, 19:00etan izango da lehenengo emanaldia, eta afariaren ondoren beste saio bat eskainiko dute.

Believe Me, Double Trouble, Lehena eta *Night Rhythms* dira sortu dituzten abestietako batzuk. Horiek eta gehiago eskainiko dituzte bihar. Musika gozoa eta lasaia Iturrietako terrazan entzuteko aukera egongo da.

I. 'Karmele Igartua sorkuntza beka'

Idazle eskolak *Karmele Igartua sorkuntza beka* sariak banatu ditu ikasturte amaiera ekitaldian. Narrazioan Irene Gilek eroan du saria *Hondar aleak paperean nola...* lanarekin; eta poesian Jone Gorostarzu izan da saritua *Desegiten* lanarekin. Ikasturte amaierako bekak zirenei Igartuaren izena jarri diete, haren omenez.



IDAZLE ESKOLA

Hondarribiko blues jaialdian "zoratzan" daude Bergarako Belceblues taldeko kideak

- ▶ Atzo, egunea, Johnny Winter bluesaren maisuarekin jotzeko aukera izan zuten bergarrek
- ▶ Dagoeneko bigarren diskoa grabatzen dabiltza; urrian kaleratuko dute 'Diabulus in musika'

ARANTZAZU EZKIBEL | BERGARA

Belceblues taldeko kideak pozik daude. Izan ere, Hondarribiko nazioarteko blues jaialdian parte hartzeko gonbita izan dute. Atzo, egunea, Johnny Winter handiarekin jo zuten bergarrek; eta etzi, kontzertu didaktikoa eskainiko dute.

"Zoratzen" daude aukerarekin Bergarrek 45 minutu inguruko emanaldia egin zuten. Kontzertuaren aurretik egon ginen Asier Elortza taldekidearekin eta esan zigun disko berria prestatzen dabiltzan arren abesti berri gutxi joko zituztela: "Batez ere, betiko abestiak eskainiko ditugu".

Aukera hori nola iritsi zaien galdetuta, zera azaldu du: "Azpeitian eskaini genuen kontzertu batera etorri ziren Hondarribiko Blues Federaziokoak, eta han ezagutu genuen elkar". Aukeran izan zuten kontzertuaren eguna: atzo, egunea, edo gaur, egubakoitzea: "Nahiago izan dugu Winterrekin jo. Zoratzen gaude! Bluesaren mitoa da, erreferentia da, bai guretzat, baina baita beste

jende askorendako ere", dio Elortzak. Belcebluesek hasi zuen kontzertua; ondoren, Girls Whith Guitars AEBetako taldeak jo zuen, eta azkenik Johnny Winter maisuaren ordua izan zen.

Domekan eskainiko duten kontzertu didaktikoa agertoki nagusiaren atzealdean jarritako karpan izango da. Beste batzuetan ere egin izan dituzte horrelako saioak bergarrek: "Blues zelan sortu zen eta zelan garatu den azalduko dugu", dio Elortzak. Bluesa zela dagoen eraikita eta gaur arteko bilakaera zelakoa izan den azalduko dute. Ordu eta laurden inguru iraungo du kontzertu didaktikoa.

Bigarren diskoa, urrirako

Disko berriaren grabazioekin buru-belarri lanean dabil hirukote bergarra. "Uztailean bukatuko ditugu grabazioak; abuztuaren oporrak hartuko ditugu eta ondoren nahasketak egingo ditugu", dio Elortzak. Hala, urrirako diskoa kalean izatea da asmoa.

Aurreko *Infer* arrakastatsua- ren ildo beretik doa bigarren

lana: "Bluesa eta blues-rocka izango dira nagusi, eta ez horrenbeste rock-and-rolla". Diskoaren izenburua *Diabulus in musika* izango da.

Hurrengo saioa

Hurrengo kontzertua uztailearen 19an eskainiko dute, Ermuko Santiago jaietan: "Haize lau-

tearekin batera jardungo dugu. Antolatzaileek horrela eskatuta, batzuetan Satan-As haize taldearekin jotzen dugu". Hondarribiko kontzertuetan, Belceblues taldeko hiru kideak bakarrik aritu dira: Oihan Vega (bateria eta koroak), Ibon Larrañaga (gitarra eta koroak) eta Asier Elortza (baxua eta ahotsak).



Belceblues taldeko kideak. | GOIENA

ESANAK

"Winter bluesaren mitoa da guretzat eta jende askorendako"

"Bluesa zelan sortu zen eta zelan garatu zen azalduko dugu etzi"

ASIER ELORTZA | TALDEKIDEA



ALMACENES ARRASATE

FAGOR, ASPES, EDESA eta MERKATUKO MARKARIK ONENAK.
Etxetresnetan sekulako eskaintzak!
Orain erosi, eta ordaindu sei hilabetean interes barik.

BERME 2 URTE

1000 b/min
6 Kg

A+ Saikapen energetikoa

GARBIGAILUA ALF 1106

260 € **aspes**

BERME 2 URTE

1200 b/min
6 Kg

A+ Saikapen energetikoa

GARBIGAILUA WM12E222

375 € **SIEMENS**

BERME 2 URTE

1000 b/min
7 Kg

A++ Saikapen energetikoa

GARBIGAILUA ZEN-L1217

330 € **edesa**

BERME 2 URTE

1400 b/min
7 Kg

A+ Saikapen energetikoa

GARBIGAILUA WM14E465EP

410 € **SIEMENS**

BERME 2 URTE

1200 b/min
8 Kg

A+++ Saikapen energetikoa

GARBIGAILUA F-2810

399 € **FAGOR**

BERME 2 URTE

A Saikapen energetikoa

ONTZI-GARBITZAILEA 2LF013S

360 € **FAGOR**

BERME 2 URTE

A Saikapen energetikoa

AI-1300 INDUKZIOA

335 € **aspes**

BERME 2 URTE

A Saikapen energetikoa

LABE PIROLITIKOA HOLLY-HP5X INDUKZIO PLAKA HOLLY-13S

625 € **edesa**

BERME 2 URTE

1850 x 600 x 600

A+ Saikapen energetikoa

HOZKAILUA KGN-36NVW20

490 € **SIEMENS**

BERME 2 URTE

1850 x 600 x 600

A+++ Saikapen energetikoa

HOZKAILUA FFJ4871X

665 € **FAGOR**

Europar Batasunaren arautegiak ezartzen duen batz besteko energia kontsumoaren arabeko energia aurreztea.

A+ >>> 70%
A >>> 45%
B >>> 25%

Biltegiko prezioak. Deskontu handiak. Kooperatibistendako prezio bereziak.

Sukalde altzariak: proiektua eta aurrekontua DOAN. Konpromiso barik.
Zatoz eta ezagut gaitzazu. Kataide poligonoan 3, Roneo ondoan.



Gari Garitano, berak egindako marrazkiak eskuan dituela.

Gari Garitano | Marrazkilaria

"Errazago marrazten dut mutil baten aurpegia neska batena baino; neskak konplexuagoak dira"

ASIER ALKORTA | BERGARA

Txiki-txikitatik marrazten du eta entrenitu egiten da egin-kizun horretan. Asko gustatzen bazaio ere, askatasun osoz egitea gustatzen zaio, "presiorik gabe". Bergarako Bule tabernan lan egiten ez duenean, lasai dagoenean, Gari Garitanok (Bergara, 1979) tartetxoa hartzen du marrazteko. Arkatza albo batean utzi eta gaur tabernako barraren beste aldean jarri da berba egiteko.

Noiz eta nola hasi zinen marrazten?

12 edo 14 urterekin hasi nintzen marrazten, *Dragoi Bola*-rekin. Hasiera baten, marrazkiak kopiatu egiten nituen. Gero, musikaren munduan sartu nintzen eta gitarrak eta bestelakoak hasi nintzen

egiten. Azkenean, berriro marrazkien estiloa aldatu nuen, eta musika alboratu.

Txikitatik hasi bazinen ere, eskuekin abila zara, ezta?

Bueno, kontua egitea da. Orduak eta orduak sartu behar dira, eta horrela trebatzen da. Egin eta egin, geratu barik.

Aldizkariak eta bestelako argitalpenak asko kontsultatzen dituzu?

Bai, marrazkiak ikusten ditut liburuetan eta *El Jueves* bezalako aldizkarietan. Orain, aldiz, bideo-grabatuak nabil. Bideo-grabatuak papera errez egiten dira.

Karikaturak edo marrazkiak egiteko aurpegi zailik badago?

Orokorrean, neskak oso zailak dira marrazteko. Mutilak errazago egiten ditut neskak baino.

Neskek aurpegi finagoa eta konplexuagoa dute marrazteko.

Eta zein da marrazteko erraza?

Xelebrea den edonor.

Kopiatzen hasi zinen, baina gaur egun zuk zeuk asmatzen dituzu marrazkiak?

Bai, kopiatzea teknika hartu eta trebatzeko modu bat da; kopiatzen ikasten da. Horrela hasten zara eta gero zuk zeuk zeure marrazkiak marrazten amaitzen duzu.

Beti zuri-beltza erabiltzen dituzu?

Gehienetan. Koloretan ere zer edo zer egin izan dut, baina, normalean, zuri-beltza erabiltzen dut. Dena koloretan egitea zaila da niretzat. Eta egiten badut ere, aurretik egindako marrazki bat hartu, kopia atera eta kopia hori margotzen dut. Inoiz kolorea xehetasunak markatzeko ere era-

bili izan dut. Pinturarekin bakarrik bi koadro egin ditut.

Paper zuriaren aurrean jartzen zarenean, zer dalehendabizi marrazten duzuna?

Lehenik eta behin, argazkia buruan eduki behar dut, ezinbestean. Gero begien paretik edo aurpegi-formatik hasten naiz. Hasieran zikinean egiten dut eta behin oinarri bat zikinean eginda dudanean, garbira pasatzen hasten naiz, xehetasunak gehituz.

Zenbat denbora behar duzu marrazki bat egiteko?

Bi edo hiru orduan egin dezaket.

Bizkor!

Kontuan hartu behar dena da bi edo hiru orduan horretara egoten naizela, buru-belarri. Eta egindakoa gustatzen ez bazait, zuzenean zakarrontzira doa.

Ikusten dudanez, zeure buruarekin zorrotza zara. Inguruan duzun norbaiti iritzirik eskatzen diozu?

Amari-edo galdetu izan diot ea gustatzen zaion. Nik gogoko ez badut, aldiz, apurtu egiten dut.

Erakusketarik-edo jarri duzu herrian?

Behin, lagun baten tabernan jarri nuen, eta baten batek marrazkiak garestiak zirela esan zidan. Baina kontuan eduki behar dutena da nik hori egiteko hiru edo lau ordu behar ditudala.

Badago bereziki marraztuko zenukeen ezer?

Ondo egindako karikatura bat. Bestela, paisaiak-eta ez zaizkit gustatzen.

Dagoeneko bilduma potoloa edukiko duzu etxean, ezta?

Nik egindako marrazkirik ez dut etxean koadroan jarrita. Denak karpitetan gordeta daude.

Marrazketarekin lotutako zer edo zer ikasi duzu?

Ez. Behin, ordu bat egin nuen Artelekun, baina ez dut ezer gehiagorik egin.

PERTSONALA

Kolore bat: Beltza.

Herri bat: Abaltzisketa.

Pertsonaia bat: Ez daukat bereziki gustatzen zaidan pertsonaiairik.

Janari gustukoena: Txokolatea.

Musika talde bat: AC/DC.

Ikusi duzun marrazkirik onena:

Bizkarra marrazkilariairen edozein marrazki edo karikatura.

Oporretarako leku bat: Nafarroa aldeko edozein leku.

Amets bat: Abaltzisketan bizi izatea.

ASTEAGOIENAN



Debagoieneko jaien saio berezia eskainiko dizuegu

Eskoriatza, Elgeta eta Aramaio-ko jaien gaineko saio berezia eskainiko dizuegu egubakoitzean. Errepikapenak izango dira zapatuan 10:00etan, 16:23an eta 21:09an eta domekan 09:59an eta 22:32an.

'Jaiak: Debagoienekoak' Egubakoitza, 22:15



EBA liga hizpide Sustrai Aloñako kideekin

Sustrai Aloñak EBA ligan jokatuko du; horren aurkezpena egingo dute gaur. Astelehenean, Harmailatik saioan hitz egingo dugu horri buruz: zein fitxaketa egingo dituzten, dirulaguntzak eta beste hainbat kontu.

'Harmailatik' Astelehena, 21:42

GOIENA TELEBISTA

EGUBAKOITZA, 8	ZAPATUA, 9	DOMEKA, 10	ASTELEHENA, 11	MARTITZENA, 12	EGUAZTENA, 13	EGUENA, 14
13:15 Marrazki bizidunak	08:00 Marrazki bizidunak	08:00 Marrazki bizidunak	13:15 Marrazki bizidunak	13:15 Marrazki bizidunak	13:15 Marrazki bizidunak	13:15 Marrazki bizidunak
13:45 Kantari	09:00 Ipupomamua	08:30 Jaiak: Tolosa	13:35 Kantari	13:45 Kantari	13:30 Kantari	13:45 Kantari
14:15 Onein	09:30 Leku txiki bat	09:24 Ipupomamua	14:10 Berbetan	14:20 Onein	14:00 Harmailatik	14:20 Onein
14:45 Berriak	10:00 Jaiak: Debagoiena	09:59 Jaiak: Debagoiena	14:46 Berriak	14:46 Berriak	14:45 Berriak	14:46 Berriak
15:15 Ur eta lur	11:15 Jaiak: Zarauzkoak	11:14 Marrazki bizidunak	15:16 Jaiak: Tolosako jaiak	15:16 Harmailatik	15:15 Onein	15:10 Hamaika.bit
15:45 Hamaika.bit	11:52 Ur eta lur	12:14 Ur eta lur	16:10 Gipuzkoa kultura	16:01 Hamaika.bit	15:41 Ikusmira	15:40 Tertulia
16:15 Leku txiki bat	12:27 Onein	12:49 Berriak	16:40 Berriak	16:31 Leku txiki bat	16:36 Berriak	16:40 Hamaika.bit
16:45 Berriak	12:48 Berriak	13:04 Onein	17:10 Leku txiki bat	16:44 Berriak	17:06 Bizitegia	17:35 Ikusmira
17:15 Berbetan	13:02 Kantari	13:25 Gipuzkoa kultura	17:20 Nere herrie: Berroeta	17:14 Bi tartean	17:34 Bi tartean	17:43 Berriak
17:50 Ipupomamua	13:32 Gipuzkoa kultura	14:55 Magazinea	18:21 Onein	18:47 Berriak	18:07 Gipuzkoa kultura	18:13 Ipupomamua
18:25 Leku txiki bat	14:02 Marrazki bizidunak	15:55 Erreportajea: Batelak	18:42 Ikusmira	19:17 Kantari	18:37 Leku txiki bat	18:43 Berriak
18:45 Berriak	14:37 Berriak	16:21 Ikusmira	19:37 Berriak	19:47 Magazinea	18:47 Berriak	19:13 Kantari
19:15 Kantari	14:52 Erreportajea: Batelak	17:16 Marrazki bizidunak	20:07 Kantari	20:47 Bi tartean	19:13 Kantari	19:46 Magazinea
19:45 Magazinea	15:18 Bizitegia	18:01 Berriak	20:42 Magazinea	21:17 Magazinea	19:46 Magazinea	20:46 Bi tartean
20:45 Gipuzkoa kultura	15:46 Jaiak: Zarauztz	18:16 Ipupomamua	21:42 Harmailatik	22:17 Harmailatik	20:46 Tertulia	21:17 Magazinea
21:15 Magazinea	16:23 Jaiak: Debagoiena	18:46 Bi tartean	22:27 Magazinea	23:02 Magazinea	21:46 Magazinea	22:17 Gipuzkoa kultura
22:15 Jaiak: Debagoieneko jaiak	17:38 Tertulia	19:19 Tertulia	23:27 Harmailatik		22:41 Tertulia	22:47 Magazinea
22:45 Tertulia	18:38 Nere herrie: Berroeta	20:19 Gipuzkoa kultura			23:41 Nere herrie: Berroeta	23:47 Bizitegia
23:45 Magazinea	19:39 Magazinea	20:49 Bizitegia				
	20:39 Gipuzkoa kultura	21:17 Berriak				
	21:09 Jaiak: Debagoiena	21:32 Magazinea				
	22:24 Berbetan	22:32 Jaiak: Debagoiena				
	23:00 Magazinea	23:47 Tertulia				

ARRASATE IRRATIA

Txatxilipurdiren udalekuetan egunero

Tarte berezia egiten ari gara egunero Txatxilipurdiren udalekuendako. Asteon, Orion izan gara. Gaur bertan Bermeora egingo dugu salto eta astelehenean Udai-xerekin Zarautzera heltzen harrapatuko ditugu gazte-txoak.

Alzheimerri buruz Luis Galdos medikuarekin

Luis Galdos medikua alzheimerrari buruzko ikerketa egiten dabil, eta harekin izango dugu solasaldia datorren astean, gaixotasunaren eta ikerketaren nondik norakoak kontatzeko. Uda giroan saioan, 107.7an.

GUARDIAKO FARMAZIAK

ARRASATE			
Zapatua, 8	ANA FDEZ. CORCUERA	Aranbarri plaza, 1	943 79 22 26
Domeka, 9	JUAN ANTONIO IRIZAR	Erquin, 11	943 79 12 39
Astelehena, 10	LOURDES AMEZUA	Sta. Marina, 32	943 79 09 74
Martitzena, 11	ANA ESPAÑOL MORALES	Araba Etorb., 14	943 79 18 65
Eguaztena, 12	AURORA RUIZ	Nafarroa Etorb., 1	943 79 14 09
Eguena, 13	ERKUDEN ETXEBERRIA	Zarugalde, 42, 44	943 77 16 30
Egubakoitza, 14	ALBERTO AZKOAGA	Ferrerias, 1	943 79 15 15
BERGARA			
Zapatua, 8	A. URRUTIKOETXEA	Orixondo plaza, 4	943 76 11 74
Domeka, 9	IÑIGO ZABALA	Barrenkale, 25	943 76 16 87
Astelehena, 10	IÑIGO ZABALA	Barrenkale, 25	943 76 16 87
Martitzena, 11	MERCEDES GUALLAR	San Antonio, 5	943 76 11 05
Eguaztena, 12	JAVIER ESTELLA	Matxiategi, 5	943 76 19 63
Eguena, 13	L. ALVAREZ-M. MOZOS	Iparragirre	943 76 12 15
Egubakoitza, 14	A. URRUTIKOETXEA	Orixondo plaza, 4	943 76 11 74
OÑATI			
Zapatua, 8	JULDAIN	Kale Barria, 6	943 78 11 28
Domeka, 9	JULDAIN	Kale Barria, 6	943 78 11 28
Astelehena, 10	JULDAIN	Kale Barria, 6	943 78 11 28
Martitzena, 11	ANDUAGA	San Lorentzo, 3	943 78 21 16
Eguaztena, 12	ANDUAGA	San Lorentzo, 3	943 78 05 58
Eguena, 13	BARRENETXEA	Kale Zaharra, 1	943 78 01 22
Egubakoitza, 14	BARRENETXEA	Kale Zaharra, 1	943 78 01 22
ARETXABALETA			
Zapatua, 8	DOLORES AGIRRE	Gorosarri plaza	943 71 48 28
Domeka, 9	DOLORES AGIRRE	Gorosarri plaza	943 71 48 28
Astelehena, 10	DOLORES AGIRRE	Gorosarri plaza	943 71 48 28
Martitzena, 11	M. VICTORIA ANITUA	Belorrieta auzoa, 1	943 08 11 43
Eguaztena, 12	M. VICTORIA ANITUA	Belorrieta auzoa, 1	943 08 11 43
Eguena, 13	M. VICTORIA ANITUA	Belorrieta auzoa, 1	943 08 11 43
Egubakoitza, 14	M. VICTORIA ANITUA	Belorrieta auzoa, 1	943 08 11 43

Farmazien eskuko telefonoetarako 2011 egutegia eskuratzeko, bidali FARMA 25600 zenbakira. Gehieneko kostua 1,9 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera, Altitria TICek kudeatuta (www.althria.es).

URTEURRENA

Rosario Eguren Garitano



Lehen urteurrenoko mezak domekan, uztailaren 10ean, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokian eta 11:00etan, San Kristobal ermitan ospatuko dira.

Bertaratuko zaretenoi, alde zuretik mila esker etxekoenezan.

URTEURRENA

Jabier Ormazabal Beristain



Antzuolan hil zen 2010eko uztailaren 6an.

Lehen urteurrenoko meza domekan, uztailaren 10ean, 11:00etan, Antzuolako Erukizko amaren parrokian ospatuko da.

Etorriko zaretenoi, alde zuretik mila esker.

URTEURRENA

Santi Erostarbe Leibar




Oñatin hil zen 2010eko uztailaren 6an, 79 urte zituela.

Lehen urteurrenoko meza zapatuan, uztailaren 9an, 19:00etan, Oñatiko Mikel Deunaren eliza nagusian ospatuko da.

Aurrez esker on, bertaratzen zateren guztioi.

ESKER ONA

Kepa Otxoa Abarrategi



Arrasaten hil zen 2011ko ekainaren 25ean, 78 urte zituela.

Hileta-elizkizunera etorritakoei eta samin-agurrak bidali dizkiguzuenoi, eskerrik asko etxekoenezan.

Arrasaten, 2011ko uztailaren 8an.



Aritz eta Amaia

Arrasateko Amaia Aperribay eta Aritz Terol uztailaren 2an ezkondu ziren Musakolako San Isidro elizan. Ospakizuna Zumarragako Etxebarri jatetxean egin zuten. Australia eta Balin daude orain eztei-bidaian. Zorionak etxekoan eta familiakoan partetik!



Sergio eta Virginia

Virginia eta Sergio arrasatearrak zapatuan ezkondu dira Uribarri auzoko Itxaropenaren elizan. Ondoren, Arteaga jatetxean ospatuko dute familia eta lagunekin batera. Hauen guztien partetik, "zorionak eta urte askotarako, bikote!".



Ziortza eta Xanti

Xanti eta Ziortza zapatuan ezkondu dira Bidaurretako Monastegixan. Ondoren danok Zelai-Zabal jatetxean ospatuko dugu bazkai edarra. Zorionak, bikote! Ondo pasatu eguna eta ezkon bidaia. Aupa Triana! Zuen lagun eta familixian partetik.



Amaia eta Oskar

Amaia Narbaiza eta Oskar Perez bihar, zapatua, ezkondu dira. Zorionak, bikote eta oso ondo pasatu zuen ezkontz-eguna! Baita eztei-bidaian ere! Familiakoan eta lagunon partetik.



Cristina eta Klaudio

Uztailaren 9an ezkondu dira Bergarako Santa Marina parrokian eta Lasa jatetxean ospatuko dute lagun eta senide guztiekin. "Zorionak familiaren partetik eta ondo pasatu eztei-bidaian".



Angel Mari eta Agurtzane

Bergarako Angel Mari eta Agurtzane uztailaren 12an ezkondu ziren, orain 25 urte. "Zorionak, bikote, zuen zilarrezko ezteian. Milaka muxu zuren kuadrillakoen partetik".



Txurruko eta Marian

Bergarako Jose Luis Rodriguez eta Marian De Goñi uztailaren 5ean ezkondu ziren orain dela 25 urte. Horrek ospakizun berezi bat merezi du. Beraz, zapatuan, afari bat egingo dute lagun guztiekin batera. "Zorionak, bikote! eta ondo pasatu eguna eta datozen beste urteak. Muxu handi bat lagun guztien partetik".



Peio eta Agurtzane

Peio Blazquez eta Agurtzane Buendia uztailaren 9an ezkondu dira Gasteizen. Ondo pasatu eguna eta ezkon bidaia. Zuen lagun eta familixian partetik, milaka muxu. Zorionak, bikote!

HILDAKOAK

- Juana Ezpeleta Txintxurreta.** Bergaran, ekainaren 30ean. 84 urte.
- Jose Mari Uriarte Gallastegi.** Arrasaten, ekainaren 30ean. 78 urte.
- Agustin Isasmendi Elgoibar.** Eskoriatzan, uztailaren 1ean. 51 urte.
- German Balentziaga Errasti.** Bergaran, uztailaren 2an. 58 urte.
- Jose Fernando Ugarte Garcia.** Eskoriatzan, uztailaren 2an. 56 urte.
- Danel Canta Belategi.** Gasteizen, uztailaren 3an.
- Bixenta Pagoaga Gonzalez.** Arrasaten, uztailaren 3an. 100 urte.
- Ramon Perez Alonso.** Arrasaten, uztailaren 5ean. 83 urte.
- Eladio Arando Zangitu.** Bergaran, uztailaren 6an. 75 urte.

OROIGARRIA

Andres Urzelai Ganboa



2009ko uztailaren 11n hil zen.

*Bizi garen artean sekula ez zaitugu ahaztuko.
Beti gure oraimenean eta bihotzean.*

Etxekoak.
Antzuolan, 2011ko uztailaren 8an.

OROIGARRIA

Agustin Isasmendi Elgoibar



Ikastolako gurasoa

Eskoriatzan hil zen 2011ko uztailaren 1ean, 51 urte zituela.

Une zail eta gogor hauetan bat egiten dugu familiaren saminarekin.



Arizmendi ikastolako guraso eta langileak.
Leintz bailaran, 2011ko uztailaren 8an.

OROIGARRIA

Agustin Isasmendi Elgoibar



M. Luz Mata lankidearen senarra


Eskoriatzan hil zen 2011ko uztailaren 1ean, 51 urte zituela.

Bat egiten dugu familiaren saminarekin.



Luis Ezeiza eskolako guraso, ikasle eta irakasleak.
Eskoriatzan, 2011ko uztailaren 8an.

OROIGARRIA



German Balentziaga Errasti



2011ko uztailaren 2an hil zen.

*Ez nau izutzen negu hurbilak
uda beteko beroan
dakidalako irauten duela
orainak ere geraan.*

Zure koadrila, Nagixak.
Bergaran, 2011ko uztailaren 8an.

OROIGARRIA

Danel Canta Belategi



Gasteizen hil zen 2011ko uztailaren 3an.

Besarkada handi bat Arrasateko lagunon partez.

Maider eta Niko, Elena eta Alberto, Aitziber eta Gorka,
Amaia eta Iñigo, Irazki eta Iker, Aintzane eta Abel.

Arrasaten, 2011ko uztailaren 8an.

Babeslea:

Euskalduna

Hileta Zerbitzuak

Beilatokia
Etengabeko zerbitzua
Lore koroak
Eskelak
Tramite guztien bideratzea



Amilaga 39, Bergara Tel./Faxa: 943 76 12 99
e-posta: euskalduna@harrespil.net

ARRASATE Kukui dantza taldea

Sei dantzarik eta DJ batek hiru koreografok gertatutako dantzak egingo dituzte *Karrika* ikuskizunean. Hain zuzen, Kukui taldearen ikuskizun berri honek Leioako Umore Azokan euskal ikuskizunik onenaren saria lortu zuen. Pieza tradizionalak hartu eta ikuspegi eta tratamendu berria eman diete.

Gaur, Herriko Plazan, 20:00etan.



KUKUI



OTAMOTZ.COM

ARAMAIO Bertso afaria

Herriko jaiak amaitzeko, bertso afaria egingo dute, Udalak eta Aramaio bertso eskolak antolatuta. Gai-jartzailea Idoia Beitia izango da; bertsolariak: Sebastian Lizaso, Iker Zubeldia eta Xabi Igoa. Txartelak 17 eurotan daude dagoeneko salgai.

Gaur, Aramaion, 21:30ean.

MUSIKA**ARRASATE Giranice eta Isuo Sasia taldeen kontzertua**

Arrasateko gaztetxean Giranice eta Isuo Sasia taldeek jardungo dute zapatuan. Giranice Orioko post-rock taldea da eta Isuo Sasia, ostera, bakarlarria da. Isuo Sasiak hasiko du kontzertua.

Uztailaren 9a, zapatua, Arrasateko gaztetxean, 22:30ean.

ARAMAIO Readyfussion taldearen kontzertua

Eskarmentu handiko Gasteizko lau musikari horiek helburu nagusizat dute gustuko duten musika zabaltzea. Estiloaren definizioa oso zaila izan arren, jazz-fussion kategorian koka daiteke, funk, blues, latindar musika eta soul ukitu batzuekin. Lau musikariek oso ibilbide luzea dute musikaren munduan eta mota askotako taldeetan parte hartu dute, jazz, pop, rock, flamenko, kantautore musika eta dantza egiteko musika estilokoak batez ere. Taldekideak izan dira orain aipatutako bandetan: Gari, Raul, Luara, Socaire, Antton Aranburu, Drakar, Cris Etxepare, Los padrinos, Osiris, flamencos de Zaramazulo, Mikel Telleria, Luis Aranburu Big Band, Urgabe eta beste asko.

Uztailaren 9a, zapatua, Iturrieta sagardotegian, 19:00etan.

BERGARA Alex Caporuscio Band taldearen kontzertua

Uztaileko ostiraletan, ohikoa den moduan, Espoioian kontzertuak eskaintzen dira; oraingoan, Alex Caporuscio Band deiturikoak izango dira agertokira igoko direnak. Talde horretako musikariak Londreskoak eta Madrilgoak dira.

Uztailaren 8a, egubakoitza, Espoioian, 22:00etan.

OÑATI Gora Gora Kids, Antton tabernan

Uaouh, Miau & Yeah! diskoa aurkeztuko du Gora Gora Kids taldeak Oñatiko Antton tabernan. 60ko hamarkadako surf musika, hondartzarik gabeko herri batean. Rock-and-roll gitarraz josia izango da gaueko protagonista musika freskagarriarekin

Uztailaren 8a, egubakoitza, Antton tabernan, 20:15ean.

NON-ZER

Emaiguzue zuen ekitaldien berri eguazteneko eguerdia baino lehen.

Tel.: 943 25 05 05 | kultura@goiena.com | Faxa: 943 25 05 13

UZTAILA 08
UZTAILA 14

DANTZA**ARRASATE 'Karrikan' dantza ikuskizuna**

Kukai dantza taldeak *Karrikan* dantza ikuskizuna eskainiko du herriko plazan. Sei dantzari eta DJ batek parte hartuko dute dantza saioan, eta hiru koreografok gertatutako dantzak egingo dituzte. Leioako Umore Azokan euskal ikuskizunik onenaren saria lortu zuten gainera.

Gaur, uztailaren 8a, egubakoitza, Herriko Plazan, 20:00etan.

ANTZERKIA**ARETXABALETA 'Jira biran'**

Trapu Zaharra antzerki taldearen ikuskizun honetan, eguneroko bizitzan gero eta ohikoagoa den gai batez jarduten da: seme alabek-gero eta beranduago alde egiten dutela gurasoen etxetik. Egoera horrek balioko du XXI. mendeko bizitza eta familiari buruzko bi ikuspuntu aurrez aurre jartzeko. Horrela, bada, Jenarok, garraiolari autonomoa

eta setak instalatzen dituenak, ikusten du seme Jenarinek ez duela inolako intentziorik etxetik alde egiteko. Udalak antolatzen duen *Eskua altxa eta aukera eza-zu funtzionario bat* lehiaketa-ikuskizuna izango da proposamen berri horren abiapuntu, eta bertan, aitak, batik bat, parte hartu eta borroka egingo du bere semearentzako lanpostu bat lortzeko. Uztailaren 14ean, eguna, Herriko Plazan, 19:00etan.

JAIK**OÑATI Trianako jaiak Oñatin**

Egubakoitzetik domekara arte ospatuko dituzte. Askotariko ekitaldiak egingo dituzte: erromeria eta rock kontzertua, mus txapelketa, umeendako jolasak eta marrazki saioak, txorimaloak, kafea, auzo-bazkaria. Astotzatorri ongietorriarekin hasiko dituzte festak.

Uztailaren 8a, egubakoitza, 19:00etan.

BERGARA San Kristobal auzoko jaiak hiru egunez

San Kristobal auzoko jaiak izan-

go dira hilaren 8tik 10era bitartean, Aldaiegian.

Uztailaren 8a, egubakoitza, 14:00etan hasiko dira.

ARETXABALETA San Kristobal jaiak, Larrinon

San Kristobal zaindariaren eguna ospatuko dute Larrinon auzoan eta bertan dagoen elkartean. Hona egitaraua: 16:30, umeendako jolasak, pilota partidak, buruhandiak eta kilikiak; 19:00etan txokolata, 21:00etan auzo afaria elkartean, trikitilariak lagun. Domekan, San Kristobal eguna, meza nagusia izango dute (12:00) eta mokadutxoa ondoren.

Uztailaren 9a, zapatua, Larrinoko elkartea, 16:30ean

OSPAKIZUNAK**ANTZUOLA Erretiratuen bazkaria**

Ohiko meza eta ongietorriaren ostean egingo dute bazkaria.

Uztailaren 10a, domeka, herriko eskolan, 14:00etan.

OÑATI Meza domeketan Urbian

Azaroaren 1 arte domekero egin-

go dute meza Urbian 11:30ean. San Inazio egunean (uztailak 31) eta Andra Mari egunean (abuztuak 15) ere elizkizuna egingo dute. Uztailaren 10a, domeka, Urbiako ermitan 11:30ean.

LEINTZ GATZAGA Umeen Eguna

Umeen Eguna izenarekin, jaia antolatu du Gurelek. Egun oso ospakizuna izango da eta umeei begira antolatutako ekintzak izan arren jolasak, buruhandiak, antzerkia egongo da. Familia guztiarendako jai eguna izango da. Hala, gatz museora bisita eta herri bazkaria iragarri dituzte.

Uztailaren 9a, zapatua, plaza inguruan 11:30ean.

OÑATI ULMA Gaur eta Bihar

ULMA Gaur eta Bihar ULMA Taldearen iragana eta etorkizuna uztartzeko ekimena da. Horretarako 9 zuhaitz (8 negoziorei dagozkienak eta beste bat taldeari dagokiona) landatuko dituzte ULMA Taldeko Zerbitzu Zentraletan. Guztira 18 pertsona (negozio bakoitzeko bi) izango dira. Uztailaren 8a, egubakoitza, ULMAko zelaian, Garagaltza auzoan, 18:00etan.

ERAKUSKETAK**ARETXABALETA 'Margo taldearen erakusketa**

Arrasate Margo Taldeko kideen lanak ikusgai egingo dira Harresi aretoan, 18:00etatik 20:00etara. Margo taldeko 15 lagunek jarriko dituzte eurek egindako lanak. Urtean zehar ikastaroan egindako erakutsiko dituzte artista zaletuek. Ondokoen obrak daude ikusgai: Pilar Ansoategi, Amaia Arantzabal, Beatriz Arregi, Juan Mari Lopez de Bergara, Pilar Muñoz, Montse Roldan, Isabel Mendizabal, Pepita Mendizabal, Xeli Mendizabal, Gurutze Mujika, Raket Perez de Arenaza, Tano Rinas, Julen Ribas, Txomin Gonzalez eta Ana Juarezzenak. Harresi aretoan, uztailaren 15era arte, 18:00etatik 20:00etara.

IKUS-ENTZUNEZKOAK**ARETXABALETA 'Aretxabaleta atzo eta gaur' emanaldia**

Argazki artxiboak gertatutako Aretxabaletaren gaineko ikus-



MYSPACE

BERGARA Alex Caporuscio Band

Blues gitarren gaua izango da gaur Bergaran. Espoioian antolatutako saioen barruan, Alex Caporusciok joko du bere bandarekin. Johnny Winter eta Stevie Ray Vaughan hartzen ditu maisu eta eredutzat.

Gaur, Espoioian, 22:00etan.



goiena

2011-07-08

HARPIDETZA: ARETXABALETA 20550, E05 BASABE POLIGONOA | TEL.: 943 08 10 50 | HARPIDETZA@GOIENA.COM

BUKATZEKO

Bidegorriko aurpegi ezagunenak

- ▶ Marianak eta Silviak egunero-egunero egiten dute Arrasate eta Eskoriatza arteko bidea oinez
- ▶ Marianak 15 urte daramatza astelehenetik egubakoitzera, egunero, paseatzera joaten

ARRITXU BARRUSO | ARRASATE
07:15ean, egunero-egunero, espedizio bitxia irteten da San Andres auzoko Andaluzia kaletik Eskoriatzarantz: Mariana, Silvia eta Matilde dira. Urteak daramatzate astelehenetik egubakoitzera Arrasate eta Eskoriatza arteko bidea egiten; Marianak zortzi urte inguru daramatza, ondoren Matilda batu zen eta azken hiru urteetan Silvia -Marianaren alaba- ere gehitu zaie taldera: "Euria, elurra, izotza, beroa... Berdin du ze eguraldi egiten duen, egunero-egunero 07:15ean irteten da espedizioa. Eskoriatzaraino joan eta buelta egiten dugu. 5 gradu zero azpitik eginda ere joan izan gara. Neguan ordu horretan sekulako hotza egiten du, ilun egoten da, eta tapa-tapa eginda joaten gara, jendeak ezagutu ere ez gaitu egiten", kontatu digu Marianak.

Hamabost urte paseoa

Marianak zortzi urte daramatza Arrasate eta Eskoriatza arteko bidea egiten, baina, aurretik, senarrarekin joaten zen paseora: "Duela hamabost bat urte hasi ginen eta sei urtez egon ginen egunero-egunero paseo berbera egiten. Orduan ere 07:00etan irteten ginen. Arrasatetik Bedoñara joaten ginen,



Silvia Arrocha eta Mariana Gil Arrasate eta Eskoriatza arteko bidegorrian. | A.B.

gero Urkulura, handik Aretxabaletera eta ondoren Arrasatera berriro ere".

Bidegorriko koadrila

Ez da batere erraza izan Mariana eta Silvia bidegorrian elkarrizketatzea; bertatik pasatzen diren pertsona guztiak ezagutu eta agurtzen dituzte: "Bidegorrian oso ezagunak gara, lagun taldea daukagu hemen. Jendea harritu egiten da, ze eurek batzuetan kale egiten baitute, baina gu egunero etortzen gara. Gainera, jende asko etortzen da Fagorrera lanera oinez eta horiek ere denak ezagutzen ditugu".

Goizeroko lagunarteko terapia

Eguneroko bueltatxoak egin ostean eguna beste indar batekin hasten dutela kontatu digute: "Ohitu egiten zara, eta paseotxoak egiten ez baduzu ez zara ondo sentitzen. Gainera, oso ondo pasatzen dugu elkarrekin, tontakeriak esanez joaten gara, sekulako barreak egiten ditugu. Eta arazoren bat badugu, elkarri animatzen ahalegintzen gara. Terapia bat bezala da".

Marianak kontatu digu oso ondo sentitzen dela eta oso gutxitan joaten dela medikuarengana. Goizetako terapiak izango du, seguruenik, zerikusi horretan.

AZKEN BERBA

IDOIA
ETXEBERRIA



Hegoak ebaki banizkio

Dokumental batean ikusi nuen. Txori arrek eginahalak egiten zituzten emeak konkistatzeko. Batzuek habia zoragarria egiten zuten, euren trebetasuna erakusteko. Beste batzuek lore petaloak pilatzen zituzten, sasoiak zeuden seinale. Deigarriak ziren denak ere. Kolore bizikoak. Zeinek baino zeinek hobeto kantatzen zuten, emeak erakartzeko. Emeak kolore ilunekoak ziren. Diskretuagoak, isilagoak. Baina beraiek ziren aukeratzen zutenak.

Gero arrautzetatik kumeak jaiotzen ziren. Eta denbora gutxira hegan egiten ikasi, eta habia uzten zuten. Txori emea libre zen berriro.

Eta pentsatu nuen: kontxo, txorien antzik ez dugu. Emakume askok eginahalak egiten dituzte gizakumeak konkistatzeko. Batzuek dantza egiten dute, euren trebetasuna erakusteko. Beste batzuk goitik behera apaintzen dira. Deigarriak dira. Kolore biziz jantziak. Zeinek baino zeinek xarma handiagoa du, mutilak erakartzeko. Mutilek arropa iluna daramate. Diskretuagoak dira. Hori bai, ez dago garbi nork aukeratzen duen nor.

Ezer erakutsi behar izan ez duten praka-narrasekin batzen dira neska asko. Dutzan ere kantatzen ez dutenak.

Arrautzak badakigu nork jartzen dituen. Eta jaiotzen dira ume batzuk sekula santan habia uzten ez dutenak.

Orain Seat León TDI autoa

Aleaziozko lllantak, bizona klimatizadorea, bluetooth, abiadura kontrolatzeko funtzioa, USB eta askoz ere gehiago,



0 km-ko autoa estreinatzeko

15.000 € baino gutxiagotatik

... edo Seat Exeo ST TDI autoa

Aleaziozko lllantak, bizona klimatizadorea, bluetooth, argiaren eta euriaren sentsoreak, aparkatzeko atzeko sentsorea, abiadura kontrolatzeko funtzioa, USB eta askoz ere gehiago,



0 km-ko autoa estreinatzeko

21.000 € baino gutxiagotatik

AUTO
KOPURU
MUGATUA
ASEGINOLAZA

Urteaga kalea, 37
BERGARA
Tel. 943 761 250

